

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Ermua*



Aurkibidea

# Udalerria: Ermua

## Sarrera



Bizkaiko udalerria, administratzaioz Durangaldea da, baina hainbat arlotan Debarrenarekin eta Eibarrekin oso lotura estua izan du beti. Hizkeraz ere, Debaerdiko hizkeraren ezaugarriak dira nagusi (Eibarko euskararen oso antzekoa). Industriaren hazkundeak bultzatuta, inguruko herrietatik hainbat euskal hiztun hartu ditu; ondorioz, euren jatorrizko berbeta duten Lea-Artibai eta Durangaldeko lagun ugari bizi da Ermuan. Biztanle ia guztiak hirigunean batzen dira eta ez dago erdigunetik kanpoko auzunerik. [Eitzaga](#), Zaldibarko auzoa izan arren, Ermutik gertuago dago eta bertan bizi direnek Ermurako joera dute bai harremanetan zein hizkeran. *Argazkia: Wikipedia*

- **Biztanleak:** 16.795
- **Euskaldunak:** %24,35

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **70**
- Zintak: **140**
- Pasarteak: **804**
- Transkribatutakoak: **59**
- Audioak: **312**
- Bideoak: **477**

## Proiektuak

- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- Ermua eta Eitzako euskara
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Ermuko eta Mallabiko "Drogeteniturri" aldizkaria
- Euskadi Irratia
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak

## Hizlariak

### **Agurne Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi *Lomiño*** (1927-2021)

Ermuko "Lomiñoneko" etxean jaio zen 1927an. Ines eta Patxiko gurasoek 9 seme-alaba izan zituzten.

### **Agus Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi *Lomiño*** (1920-2013)

Ermuko "Lomiñoneko" etxean jaio zen 1920an. Ines eta Patxiko gurasoek 9 seme-alaba izan zituzten eta Agus izan zen bosgarrena. Umea zela, 18 urteko ahizpa nagusia hil zitzaien eta amari laguntzeko eta haren mina arintzeko, nagusiaren papera hartu zuen. Gerora, gerrateak irten zuenean, ondo ikasia zuen bere betebeharra, eta senideak Bilbon preso zituela, bera arduratzen zen haiei jatekoa eta arropak eramateaz, bere izenean zegoen ibiltzeko baimenari esker. Victor Elejondo Barakaldoko maisuarekin ezkondu eta Zaldibarrera, senarra eskola-maisu zegoen lekura, bizitzera joateko eskaini bazioten ere, Ermuan geratu nahi izan zuen. Bi seme-alaba izan zituzten. 60 urte bete arte Ermuko parrokian katekista gisa ibili zen.



### **Elbire Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi *Lomiño*** (1926-2008)

Ermuko "Lomiñoneko" etxekoa. Ines eta Patxiko gurasoek 9 seme-alaba izan zituzten.

### **Jabier Agirregomezkorta Pradera *Palazionekua*** (1931-2012)

### **Alazne Aiestaran Yarza *Orozkonekua* (1972)**



Ermuan jaio zen 1972an eta bertan bizi da. Kazetaria da eta irakaslea lanbidez. 2000. urtetik aurrera, Ermua eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkariko zuzendaria da. Lanpostu horretan ikusi eta ikasitakoek balio izan diote bere doktore-tesian Deba Barreneko 6 herri aldizkariak aztertzeko; tesiaren izenburua hau da: "Deba Barreneko euskarazko komunikazio-sistema, tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisisa 200-2004 bitartean ("...eta kitto!", "Pil-pilean", "Barren", "Berriketari", "Kalaputxi" eta "Drogetenitturri")". Elkarrizketa egin zitzaionean, Eskoriatzako HUHEZIn Ikus-entzunezko Komunikazioen irakaslea zen eta EHUko Komunikazio Zientzien Fakultatean ere irakasten zebilen. 1994an Lan Harremanetan diplomatu zen, 2000. urtean Kazetaritzan lizentziatu eta 2007an Komunikazio Zientzietan doktore egin, guztiak EHU. Euskara batua eta ermurrera nahasten ditu.

### **Alberto Alava Martinez *Txato* (1951)**



Alberto Alava, Donostian jaio zen 1951an. Bizitza Ermua eta Eibarren artean eman duen ere, bera ermuarra sentitzen da. Armeria Eskolan ikasi zuen. Euskadiko Mugimendu Komunistako militantea da gaztetatik eta taldearen nondik norakoez (ideiak, filosofia, ekintzak, bilakaera...) 60-80. hamarkadetakako Eibarko egoera politikoa eta sozialaz hitz egin du.

*Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa*

### **Irene Aldalur Astarloa *Patakonía* (1918-2009)**

Eitzaga auzoko (Zaldibar) Bentan jaioa eta 2 urterekin Ermura joana.

### **Juan Isidro Amillategi Uzuriaga *Zinko* (1920-2010)**

Ermuko "Zinkonekoa" (Sabon) baserrikoa.

**Candida Ardanza Arrillaga (1908-2009)**



Ermuko "Joxio" baserrian jaio zen 1908ko San Antolin egunean. Aita arotza zen eta gizona, Manuel Agirregomezkorta, "Inbirri" gaitzizena zuena, sarraila-konpontzailea. Alaba bi izan zituen eta Elisabetekin, nagusienarekin, bizi izan zen azken urteetan Santa Anako etxean, ordura arte plazako bere betiko etxean bakarrik ondo moldatzen bazen ere. Elkarrizketan alabak lagundu zion gauzak gogoratzen.

**Dioni Ardanza Ormaetxea (1914-2005)**

**Jesusa Ardanza Ormaetxea (1928-2008)**

Eitzabarrenengoan jaio eta Sallabenten bizi izandakoa.

**Emilio Areitio Agirregomezkorta (1914-1996)**

**Leonzia Areitio Azpiri (1906-1989)**

Gurasoak eta senarra Ermukoak. Gazte denboran Beko Errotan (Sallabente) bizi zen.

**Lucia Areitioaurtena Isasi-Isasmendi *Erromaretakua* (1925-2019)**



Ermuan tren-geltoki ondoan jaio zen 1925ean. Ama Bernardak trenaren erromaren kargua zuenez, hortik datorkio gaitzizena. 14 urterekin raketista gisa Bartzelonara jokatzera joateko kontratua egin zioten eta urte haietako bizipen ugari ditu gogoan. Hangoak amaituta, Ermuan gero ile-apaintzaile ibili zen. Eugenio Unamuno "Kajeruanekuekin" ezkondu zen; 4 seme-alaben ama da eta Real Sociedad futbol-taldeko Asier Riesgo atezainaren amama. Azken urteotan Donostian bizi da. Elkarrizketan esandakoak Ermua eta Mallabiako `Drogetenitturri´ herri aldizkariaren 153. zenbakian, 2008ko urtarrileko alean, argitaratu zituzten. Hizkera: ermuarra.

**Miren Areitioaurtena Isasi-Isasmendi Lanas**  
(1921-2003)



Ermuan jaio zen 1921ean. Bere ama Bernardak, tren-geltokiaren erromarak igo eta jaisteko ardura zuen; senide guztiak "Erromaretakuak" bezala ezagutu izan badituzte ere, berari Miren "Lanas" deitu izan zaio, artilea saldu eta jertseak egiteko dendatxo bat zabaldu zuenetik Izelaieta kaleko lehen pegoran. Niceto Onandia Telleria ermuarrarekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituen. Kantuen letretarako memoria aparta zuen eta Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria "Txindurri" bere lehengusinarekin Arrate Irratiko eta Euskadi Irratiko saio ugaritan parte hartu izan zuen kantu eta kontuok aiereratuz. `Eibar kantuan´ liburuan ere bien kantu-testigantza dator jasota. Euban hil zen 2003ko otsailaren 25ean. Hizkera: ermuarrera.

**Elixio Areitioaurtena Zarraua** (1915-2009)

**Joxe Inazio Arrarte Gisasola Arrarte IV** (1944)



Ermuan jaio zen 1944an. Bere 3 anaia nagusiagoen antzera, Felixen, Ferminen eta Juan Luisen antzera, zesta-punta jokalaria izandakoa. Atzelari moduan jokatzen zuen `Arrarte IV´ izenarekin. 1960an debutatu zuen profesional gisa Palmako Balear frontoian. Gerora, mundu osoan zehar ibili zen pilotan jokatzen.

**Mateo Arrieta Agirregomezkorta Betiondo**  
(1922-1993)

Ermuko Zubiaurre kalean jaio zen 1922ko San Fermin egunean. Vicente eta Elena gurasoen 5 mutilen aldran, Mateo laugarren. Eskolan euskaraz egiteagatik zigorra jasotzen zen sasoiak ezagutu zituen, liburu handiak eskuetan eta ipintzen zituenari antzik eman ezinik. Gazte-gaztetatik beharrera joatea egokitu zitzaion, lehenengo Ermuan "Leonenian" eta "Urretanian", gerora Oñatiko "Areition", eta jubilatatu artean Eibarko "Star" tailerrean. Alizia González Atxa eibartarrarekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Bizimodu gehiena Eibarren egin arren, gaztetan eta umetan Ermuan bizi izandakoak ondo artxibatuta zituen. Isasi kaleko bere etxean hil zen 1994an. 1994ko otsailean Ermua eta Mallabiko `Drogeteniturrí´ herri aldizkariaren 2. alean artikulu bat argitaratu zen bere gogorapenekin, "Kazak ala bonbarderuak?" izenburupean, gerratean Ermuan egondako babeslekuen gainean.

**Margarita Arrizabalaga Lauzirika (1928-2010)**



Erdiko kalean jaio zen, "Joxebenta" etxean. Anai-arrebetan gazteenak ziren bera eta anaia bikia. Elkarrizketan [Maria Angeles](#) ahizpa ere azaltzen da.

**Maria Angeles Arrizabalaga Lauzirika (1926-2019)**



Erdiko kalean jaio zen, "Joxebenta" etxean. Umetan Muruetan pasa zuen denbora asko izebaren etxean. Eskolan gutxi ibili zen eta ezkondu arte lanean jardun zuen, ume-zain edo lantegian. Elkarrizketan [Margarita](#) ahizpa ere azaltzen da.

**Juan Domingo Astarloa Laka *Betiondo* (1933-2015)**

Markinan jaio zen 1933an, baina, 2 urte zituela, Ermuko Ongarai auzoko "Betiondo" baserrira joan zen familia bizitzera.

**Miren Astarloa Laka *Betiondo* (1935)**



Ongarai auzoan kokatutako "Betiondo" baserrian jaio zen 1935eko martxoaren 18an, San Jose bezperan; hori dela eta, Maria Josefa izenarekin bataiatu zuten. Ermura joan zen eskolara eta eskola eta baserriko lanak tartekatzen zituen. 1963an Rodolfo Ugena garraiolari erandioarrarekin ezkondu zen eta lau izan ziren andre-gizonok izandako seme-alabak. 1972. urtean alargun gelditu zen, 3 urtetik 7 urtera bitarteko lau txikiren kargu, umezurtza- eta alarguntza-laguntasun barik. Premiak astinduta, bat-batean baserritar izatetik garraiolari eta enpresa-buru izatera pasa zen. Bulegoko lanak gizarte lanekin tartekatu izan ditu: Elizaren ekimenean parte hartu izan du, Ermuko Alargunen Elkartea sortu zuen eta Ermuko Tonbola Solidarioa sortu eta bultzatu zuen. Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere bere giza-lanekin jarraitzen zuen indartsu.

**Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi Txindurri**  
(1906-2006)



Maria `Txindurri`, aitarengandik -Gillermo Bengoetxea zenarengatik- jaso zuen gaitzizena. Guillermo bertsozalea zen eta hainbat bertso eta abesti konposatu zituen, oraindik ere, gaur egun Ermuan eta Eibarren kantatzen direnak: besteak beste aratusteetako Hartzaren egunekoa. Ermuko dantza eta txistu taldeetako batek ere `Txindurri` izena du bere omenez. Mariak Ermuari buruzko oroitzapen eta pasadizo ugari gordetzen zituen. Esandakoaren lekuko, `Ermua eta Eitzako euskara` liburuan edo `Drogeteniturri` aldizkarirako jasotako abesti, ipuin eta testigantza ugariak. Euskaltzale amorratua, Ermuko herriaren memoria historikoa zen. Eibarren egindako zenbait liburutarako ere eman zuen testigantza. Ehun urte betetzeko egun batzuk falta zitzaizkiola hil zen.

**Esteban Bilbao Aranburu** (1933-2024)



Malengoneko etxean jaioa. Aita Malengo baserrikoa zen eta ama, berriz, Mallabiko Apoitakoa. [Pilar](#) arrebarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

**Pilar Bilbao Aranburu** (1931)



Malengoneko etxean jaioa. Aita Malengo baserrikoa zen eta ama, berriz, Mallabiko Apoitakoa. [Esteban](#) anaiarekin batera azaltzen da elkarrizketan.

**Juana Buruaga Solozabal** (1920-2010)

Mallabian jaio zen. Ermuko Abeletxe baserriko Bixente Markinarekin ezkondu zen. Biei batera egin zitzaion elkarrizketa, Ermuko euskararen inguruko azterketarako.

**Luisa Egia Agirrebeitia San Antonio** (1921-2014)

Ermuko San Antonio okindegiko beharginak ziren gurasoak; 1921ean bertan jaiotzeaz gain, bertako gaitzizena harrotasunez eraman izan du Luisak. Gazterik alargundu eta 3 seme-alabarekin geratu zen. Kantu eta kontu zalea, gustuko zuen irakurtzea zein lagunartean egotea. Hizlari ona, antzinako Ermuko gauzatxoak kontatzen pozarren egoten zena. Hizkera: ermuarrera.



**Alberto Elejalde Narbaiza Ixu** (1933-2015)

Eibarren jaio zen 1933an, baina 2 urte zituela Ermura joan ziren bizitzera. Zesta-punta jokalaria. Aurrelaria. Euskal Herritik kanpora ere hainbat frontoitan ibilia, Valentzian, Bartzelonan, Italian, Ameriketara...



**Iñaki Elgea Argiarro Foterianekua** (1934-2021)

Ermuko elizaurrean jaioa.

**Ermuko "Hartza Eguna"** (1934)

Inauterietan antolatzen den ekitaldia da, Eguen Zuri biharamunean, barixaku arratsaldean. Hartzez jantzitako pertsonari laguntzen, kalejiran doa herriko jendea, Gilermo Bengoetxeak "Txindurrik" 1934an asmatutako koplak abestuz batera. Gerrate aurreko urte horretan, gazte bat tuberkulosiarekin gaixotu eta, peoraz-peora eskean ibiliz, botikak ordaindu ahal izateko dirua jiratzeko asmoz asmatu zituen "Txindurri" bertsolari ermuarrak hartz baten harrapaketa gainera bertsoak: "Patxi Urkoko etorri jakun/ lehengo egunian esaten/ animalia bat han ebillela/ bazter guztiak apurtutzen...". Euskal Birusa Elkarte Kulturalak 1989an berreskuratu zituen bertsoak eta kantujiran aritzeko ohitura ere. Talde ezberdinekin elkarlanean arituz kaleratzen da: Anaitasuna Ikastola, Eskolabarri, Kaltxango AEK Euskaltegia eta Udal Euskaltegia.

**Ermuko "Santa Ageda" abesbatza**

Sta. Ageda koplak abesteko ohitura 1990ko hamarkadan berreskuratu zen Ermuan. Kantuzale orori zabaldua egon arren, jendeak Abesbatza modura hartzen du (orohar koroetan aritzen direnak osatzen dutelako). Asteak aurretik egiten dituzte euren entsaioak eta martiriari eskainitako koplekin batera, iluntzi horretarako klasiko bihurtu diren beste abesti batzukin edertzen dute euren kantujira. Santa-eskean batutako diruak, herrialde behartsuetan lanean diharduten erlijioso eta seglar ermuarren proiektuak diruz hornitzeko erabiltzen dira.

**Estibalitz González Solozabal *Plazakodendakua***  
(1963)



Ermuan jaiotakoa da 1963 urtean. 1977an Eibarrera joan zen bizitzera eta handik urteetara berriro bueltatu zen Ermuko bere txokora. 1990ean bertako Euskal Birusa Euskara Elkartean hasi zen kolaboratzen, baita haren barruan dagoen `Drogeteniturri´ aldizkarian ere; elkarrizketa garaian ere horretan ziharduen. Ehunka artikulu idatzi ditu Ermuko historia, ohitura zahar, lanbide eta pertsonaia esanguratsuen gainean. "Ermuko Ahozko Ondarea" egitasmoaren bultzatzaile eta koordinatzailea da. Lanbidez Haur Hezkuntzako irakaslea da. Ume- eta kale-kantu tradizionalak batzearena da bere zaletasunik aipagarriena, ipuinak kontatzearekin batera. 2010ean `[Lapikotxiki: kantuz kulunkatzen](#)` ume-kantuz osatutako liburuxka kaleratu zuen. Bere hizkerak ermuarrera, markiñera eta batua nahasten ditu.

**Margarita Gorosabel Egiazu *Txaleko*** (1924-2021)

Aita eibartarra eta ama ermuarra izan arren, Margarita Sorluzen jaio zen 1924ko uztailaren 20an; aitak argindarra emateko kargua zuen bertan. Gerora, gurasoekin eta hiru anai-arrebekin Eibarren bizi izan zen, harik eta Errepublikara sartu zen arte. Ordutik aurrera Ermuan bizi izan da. Niceto Gorritxategi ermuarrarekin ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten.

**Joseba Gotzon Idigoras Arzuaga *Pedratxa*** (1923-2010)

Ermuko Probalekuan jaio zen 1923an, Pedratxaneko etxearen 2. solairuan. Bera mutikoa zela, etxearen kargu zegoen Ermuko Batzokia, "Gurenda Etxea". Dantzari familiar jaio zen, eta hortik zetorkion euskal dantzetarako zaletasuna eta jakinduria. Ermuko `Txindurri´ dantza taldeko sortzaileetako bat izan zen. 35 urte eman zituen dantzak erakusten eta sarritan izan zen Santixauetako dantza solteko txapelketetako epaimahaikide. `Abeslariak´ gizon-abesbatzako partaidea ere izan zen luzaroan. Maria Luisa Mugerza Buruagarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Lanbidez akabatzailea izan zen, harik eta jubilatu zen arte.

### **Fede Iturriagagoitia Mallagarai (1933)**



Ermuko Irulitxa kaleko "Iturriaganeko" etxean jaio zen 1933an, Jose Ramon eta Isabel andra-gizonak izandako 5 seme-alaben artean. Arantza Malkorra Arroa Goitarrarekin ezkondu zen eta 3 seme-alaba izan zituzten. Aitaren arrimuan ikasi zituen Ermua inguruko txorien kantu, izen eta ohiturak. Ehiztari amorratua; ehizatu izan dituen hegazti bereziak disekatu egin izan ditu: 100 hegazti desberdin inguru ditu bilduta, ia denak berak harrapatuta, eta gehienak Euskal Herrian. Bilduma hori Ermuko Udalaren eskuetan laga zuen, ezagutzera eman zezaten.

### **Arantza Izagirre Agirregomezkorta Lomiñokua (1940)**



Ermuko Lobiano ("Lomiñokua") jauregian, Murgatarren jauregian, jaio zen 1940an, beren aitita etxearen eta orubearen eraikitzailea eta administratzailea zelako. 26 urte zituela Migel Okariz pilotariarekin ezkondu zen arte, "Lomiñokuan" bizi izan zen. Haren gela handietan negua gogorra izan arren, maitasun handiz gogoratzen ditu etxea eta inguruak. Ermuko herri-kantu baten letran bertan bizi izandako pertsonen izenak aipatzen dira. Gaur egun `Lobiano Kultur Gunea´ den jauregi horren inaugurazioa zela-eta, artikulu bat argitaratu zen bere bizipenekin `Drogeteniturri´ Ermua eta Mallabiko herri aldizkariaren 143. zenbakian.

### **Antonio Izagirre Aranburu Antontxato (1902-1995)**

Ermuko Plazan jaioa (Patxi taberna). Gurasoak ere Ermukoak. Andrea Eitzabarrenengoa baserrikoa. Lanbidez armargina.

### **Lucre Izagirre Garate Eskolanekua (1910-2002)**



Ermuko Erdikaleko "Erleta" etxean, "Eskolanekua" modura ere ezagutzen den etxe karratuan, jaio zen 1910ean. Franzisko zuen aita eta Eskolastika ama; haiek izandako 6 seme-alabetatik alaba bakarra izan zen Lucre. Aita Franzisko, alkate izandakoa, gizon jakintsu eta ikasia zen, aurreratua sekula eta inon egon bada, eta kultura eta bizitzarekiko ikuspuntu kontuetan bere sasoiaren aurretik joan zena. Ama, ostera, piano-jotzailea zen eta Lucrek ere piano-karrera eta musika-ikasketak egiteko aukera izan zuen, orduko emakume gutxik bezala. Hizlari ona.

### **Tomas Izagirre Garate *Eskolanekua* (1918-2008)**

Ermuko Erdikaleko "Erleta" etxean, "Eskolanekua" modura ere ezagutua den etxe karratuan, jaio zen 1918an. Franzisko zuen aita eta Eskolastika ama; haiek izandako 6 seme-alabetatik gazteena izan zen Tomas. Eskolara ikastera plazara bertara joan zen eta gurasoek ikasketak eman guran Eibarrera bidali zuten. Gerora, kantuari jarraituta edo, " ...estudiuak ikasitzera Salamankara bidaldu." Hantxe amaitu zituen goi-mailako Ginekologia ikasketak; karreradun lehen ermuarra izatearen ohorea berea da. Eibarren jardun zuen ginekologo bezala, harik eta jubilatua zen arte. 17 urterekin soldadu joan zen gudari gisa, gerra irten zenean. Elkarrizketa egin zitzaionean garbi-garbi gogoratzen zituen ume eta gaztetako gertaera asko. Euren aita Franzisko, alkate izandakoa, gizon jakintsu eta ikasia zen, aurreratua sekula eta inon egon bada, eta bere sasoiaren aurretik joan zena; Felix anaia, berriz, aparteko pilotaria. Bien gaineko gogorapen eta anekdota ugari kontatu zituen. Euskalkia: ermuarrera. Erdaraz bitzako kontuez hitz egitean, hizkuntza horretara jotzen du; ume eta gaztetako oroitzapenak, berriz, hikan dakartza.

### **Fidel Izarra Larrea *Izarranekua* (1926-2009)**

Ermuko "Abadetxe" ondoan jaio zen 1926. urtean. Hamargarrena izan zen Obdulia eta Teodororen 12 seme-alaben artean. 15 urtera arteko eskolak Ermuan hartu zituen eta handik aurrerakoak Eibarren: "Artamendiren" jostundegian hasi zen jostun izateko ikasten, eta arratsaldez Jesusa Arregiren akademiara joaten zen kontabilitatea eta "Instrucción general" ikastera. Hari eta jostorraz kontuok bertan behera laga behar izan zituen aitak "Izarra" tailerra jarri eta hango bulegoko lanak bere kargu laga zituenean. 1955ean Maria Dolores Izagirre Olañetarekin ezkondu zen eta elkarrizketan bera izan zuen lagun. Gaztetan Santiago Parrokian akolito ibili zen luzaroan; elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere bere gain hartzen zituen bertako hainbat ardura. Hizlari aparta.

**María Ignacia Kareaga Unamuno *Txaletekua***  
(1918-2018)

Madrilen jaio zen 1918an. Aita, pilotari ermuarra, Ameriketara joana zen pilotan jokatzera eta ama Madrilen haren zain zegoela jaio zen Maria Ignacia. Madrilen bertan hasi zen eskolan. Ikasketak dituzten emakume gutxi ikusten ziren sasoiaren, berak Maisutza eta Piano ikasketak amaitu zituen Gasteizen. Sasoi batean titulua zuen maistra ermuar bakarrenetakoa izanda, sarritan eskatu zioten titulua beste maistraren baten izena justifikatzeko. Valentin Careaga pilotariarekin ezkondu zen, eta Amerika eta Ermua bitartean urteak eman ondoren, Ermura itzuli ziren Valentinek pilotari laga zionean. Senarra "Cine Guria"ren sortzaileetako bat izan zen, eta Maria Ignacia, berriz, parrokiako katekista urte luzez. Hizkera: ermuarrera.

**Jesús López Villalba** (1941)

Bilbon jaio zen 1941ean eta Ermuan abade ordenatu zuten 1970ean, bere urtebetetze egunean. Ermura iritsi zenean, herria eta estatua bera aldaketa-zurrumbilo batean sartuta zeuden; bera izan zen, lan talde batekin batera, Ermua aldatzeko trena bultzatu zutenetako bat. Sasoi beretsukoak dira gerora herriaren gizarte-sarean esangura itzela izango zuten hainbat giza-talde: "Scout" taldea, "Emakumearen Sustapenerako Zentroa", Udalekuak... 1977ko irailean Bartzelonara alde egin zuen, nekatuta, baina ereindakoaren pozez. Karrantzan egon da azken urteetan abade eta jubilatutuan Ekuadorrera abiatu zen, premiadunen alde lanean jarraitzeko asmoz.

**Bixente Markina Kareaga *Abeletxe*** (1916-2002)

**Gregorio Mugerza Buruaga *Santuko*** (1918-2005)

Aita Santukoa baserrikoa. Ama eta andrea Mallabikoak. Lanbidez baserritarra, karretero eta kontratista.

**Bitore Mugerza Mallabiabarrena** (1933)

Jostuna izandakoa.

**Felisa Mugerza Mallabiabarrena** (1926-2007)

Jostuna izandakoa.

### **Justo Narbaiza Zelaia (1924-1998)**

Urko Goikoa baserrikoa.

### **Maria Esther Olaetxea Arriaga (1931)**

#### **Margarita Olañeta Izagirre *Pedromarianekua* (1931)**

Ermuko Erdiko kalean jaiotakoa 1931n. Ignacio Olañeta eta Rosario Izagirreren bost seme-alabetatik bera izan zen nagusiena. Aita Ermuko alkate izan zen ezkondu zenetik, ardura hori hartu aurretik "AGIreneko" tailerrean mekaniko aritu bazen ere. Amaren kargu zegoen "Pedromariareneko" taberna-denda. Artean neskatotxo zela, aita nola espetxeratu, desagertu eta hil zen ezagutu zuen. Bilbon "Huérfanas de guerra" ikastetxean ikasi zuen 6 urtetik 14 urtera bitartean. 25 urterekin Eibarrera ezkondu zen Jose Mari Kruzetaekin eta 4 seme-alaba izan zituzten. 2002tik 2016ra bitartean `Eibar´ aldizkariaren zuzendari eta koordinatzaile izan zen, senarrak lagatako konpromisoari jarraituz. Politikaren gaineko irratia mahai-inguru baten hizlari bezala jarduna da eta sigla gabeko Udalbatzak defendatu izan ditu. Ermua eta Mallabiko `Drogeteniturrí´ herri aldizkariaren 2007ko martxoko 144. zenbakian, Ignacio Olañetaren izaera eta heriotzaren gaineko artikulua bat argitaratu zen, haren alabaren (Margariren) oroitzapenekin.



#### **Inaxio Onandia Telleria *Ermu* (1912-2002)**

1912an jaioa. Gurasoak Mallabikoak zituen. Pilotari izandakoa; zesta-puntan jokatzen zuen atzelari moduan. Ermuko alkate izan zen 1966tik 1977ra.

#### **Jesus Ormaetxea Arregi *Ureta* (1926-2016)**

Areitio ondoko Ureta baserrian jaio eta bertan bizi izan zen. Bizimodua ere baserrietik ateratzen zuen. Ermuko azken baserriarretakoa. Zaldibarko Eitzaga auzoko Ines Bildosolarekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten. Uretatarrak, hasi aitita Jose Joakin, Eusebio aita eta Jesus berarenganaino, entzute handiko idi-probalariak izan dira aurreko mende guztian zehar eta Jesusek ere ederto ezagutzen zuen mundu hori. Enkantxuz enkantxu ibiltzen zeneko sasoiak oroitzeaz gain, idiak izateak zer suposatzen duen kontatzen du elkarrizketan. Hizkera: mallabittarrera.

### **Luis Mari Ormaetxea Atorrasagasti *Olaikorta***

(1932-2012)



Elgetako Olaikorta baserrian jaioa, Ambrosio eta Teodorak izandako 10 seme-alabetatik seigarrena izan zen. Jaiotetxea berez Elgetako lurretan egon arren, hurbilago daude Eitzaga auzoa (Zaldibar) eta Ermua, eta harako joera izan dute gaztetatik. Ezkondu ere Ermuko Begoña Mallagarai Ormaetxearekin ezkondu zen, Ermuko "Ostatu" taberna ezaguneko alaba bakarrarekin, eta Ermuan bizi izan da harrezkero. Lanbidez tornularia, eta zaletasunez ehiztaria. Bere arrebak, [Juanita](#) eta [Pilar](#), Elgetan daude katalogatuta.

### **Antonia Ormaetxea Narbaiza *Txotxin*** (1927-2022)

Ermuko Probalekuan jaio zen 1927an. "Ureta" probalari handiaren semea (idi-proban ere ibili zena) izan zen bere aita. Ermuko Probalekuan jaiotzearena ohore handia izan da berarendako. "Joxio" baserriko Felix Ardantzarekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten. Gizona luzaroan preso izan zuen gerra sasoiaren eta, ordukoak ahazten ahalegindu bada ere, 70 urteen bueltako dokumental eta errekonozimenduek piztu egin zioten bizi izandakoa. Hizkera: ermuarrera.

### **Edurne Ostolaza Larrinaga *Arotzanekua*** (1934-2010)

Ermuan jaiotakoa 1934an. Jose Mari Ostolaza arrasatearrak eta Emilia Larrinaga mallabitarrak Ermura ezkondu izan zituzten bi alabetatik bera izan zen nagusia. Mallabiko kaminoan (gaur Zeharkale) aroztegi-zerratoki bat martxan zutela, 36ko gerratea etorri eta bertan behera laga behar izan zuten dena. 1937ko apirilaren 26an, familia osoa Ermutik ihesi zihoala, Munitibarreko bonbardaketak bete-bete harrapatu zituen, zubi baten azpian babes bila sartuta zeudela. Bonbetako baten ondorioz, aita, ama eta Julene 15 hilabeteko alaba txikia hil ziren. Edurne bizirik atera bazen ere, gerrateak utzitako arrastoek zeharo eragin diote bizitzan zehar. Metrailak ahoan eta aurpegian lagatuko zauriak sendatzeko hiru operazio egin behar izan zituen: 19 urterekin lehenengoa eta ezkondu ostean beste biak, bigarrena, kasualitatez, Franco hil zen egunean. Mallabiko Gereaa auzoko Barrenengua baserrian bizi izan zen 12 urtera arte eta geroago Ermura joan zen. Bertara ezkondu zen 1960an Ezekiel Zenikazelaiarekin eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ermua eta Mallabiko `Drogeteniturrí` aldizkariaren 138. zenbakian, 2006ko iraileko alean, gerrateko testigantzen artikuluen bilduma txiki batean argitaratu ziren bere bizipenak.



### **Alex Solozabal Areitio (1936)**



Ermuan jaio zen Santiago Parrokia aurreko arkupe zaharretan, kontzejupean, 36ko gerratearekin batera. Gaztetan pilotari bezala nabarmendu zen eta Ameriketara jokatzeko kontratu bat sinatu ostean, Habanan, Mexikon eta Floridan bizi izan zen. Habanakoak dira bere gogorapenik maitatuenak. 1963an, Durangoko Ezkurdi pilotalekuan, Munduko Txapela eskuratu zuen zesta-punta modalitatean. Ermuan bizi arren, sarri-sarri egin izan du osteratxoren bat Atlantikoaren beste aldera. Hizkera: ermuarrera.

### **Amparo Suinaga Orbe *Matxin* (1917-2015)**

Aitxitxa Matxinen errotan jaio zen 1917an. Aitak, Santos Suinagak, pilotaria izanda, 20 denboraldi eman zituen Kuban jokatzeko; eta Amparok, 7 urte zituela, amari lagunduzion "La Fayette" transatlantiko frantsesean beste alderaino. Itsasontzian emandako 9 egunak ondo gogoratzen zituen elkarrizketa egin zitzaionean. Ikasle ona izan zen eta maistraren esanak betetzen fina, nahiz eta lantzean behin okerkeriaren bat egin. Memoria handiko andrea, datu kontuetarako fidagarria eta euskara aberatsekoa. Hizkera: ermuarrera.

### **Felix Ugalde Iraogoitia (1934)**

Elorreta Beko baserrian jaioa. Baserrian eta Eibarko Alfa lantegian egin zuen lan. Andrea Bariñakoa zuen.

### **Esperanza Urien Totorikaguena (1938)**

Urkobekoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Bolibarko Artatik etorritakoa. Ama 43 urterekin alargun geratu zen, hiru ume txikirekin. Esperanzak lau urte besterik ez zituen. Horregatik txiki-txikia zenetik baserriko lanetan lagundu behar izan zuen. 13 urterekin Lejardiren lantegian hasi zen beharrean.

### **Inazio Urreta Areitioaurtena (1922-2012)**

Armeroen semea eta loba. Ermuko Izelaieta kalean jaio zen 1922an. Eskolara plazara joaten zen eta 11 urterekin jo zuen estreinakoz Santa Cecilia Bandan. Ureta baserriko Victoria Ormaetxearekin ezkondu zen eta haren anaia Joseren "Ureta" tailerrean lan egin zuen. Seme bi izan zituzten. Laneko bidaia batean, Alemanian, argazki-kamera bat erosi zuen eta Ermuko herriaren argazki-bildumarik zabalena du: desagertutako kale-bazter, eraikin zein gertaera sozial ugari erretratatu izan ditu. 1955-1961 bitartean udal zinegotzia izan zen, San Pelaioko futbol-zelaia eta Teresa Murga eskolak inauguratu ziren sasoian.

### **Maria Luisa Urreta Suinaga Urretanekua (1920-1999)**

Ermuan jaio zen 1920an, aititaren "Matxiñeneko" erroetan. Jose Cruz "Harribakua" eta Mariak izandako 4 seme-alabetatik hirugarrena eta neska bakarra izan zen Maria Luis, Rafael, Pedro eta Santosentartean. Umetan Sallabenteko eskolan ikasi zuen eta gero Eibarko Aldatze ikastetxean. Eskolak amaituta, Donostiako Barandiaran jatetxean egon zen sukaldaritza ikasten. Sukaldari abila zen eta bilobak gustura joaten ziren haren etxera bazkaltzera. Gaztetan "Beti Gazte" koadrilakoa zen eta harekin makinatxo ibilera egin zituen. Florentino Molina asturiarrarekin ezkondua, ez zuten seme-alabarik izan. Senarraren lana zela eta, Ermutik kanpo urte asko eman ostean, azken urteak Ermuan eman zituen, eta familiaren plazako "Harribakua" etxean bizi izan zen. Gaineko solairuan Rafael "Chevalier" bere neba bizi zen; biak Parrokiako Koruko partaide ziren eta kantari apartekoak. Senitarteko ospakizunetan, entzuleek ederto gozatzen zuten beren duo ederrekin. 1999ko urtarrilaren 31n zendu zen, 78 urte zituela.



### **Juan Urreta Unamuno (1923-2016)**

Izelaieta kalean jaioa.



### **Berta Yarza Amillategi (1940)**

Orozkoneko etxean jaio zen (baserriaren izena berez Bustintza Urko ei zen).





### **Natividad Yarza Amillategi (1935)**

Orozkoneko etxean jaio zen (baserriaren izena berez Bustintza Urko ei zen).

### **Zakarias Yarza Amillategi Orozko (1931-2004)**

Orozkoneko etxean jaioa (baserriaren izena berez Bustintza Urko ei zen).

### **Migel Yarza Areitio Bekorreta (1925)**

Orduko egoerak hala eraginda, Zarautzen jaio zen 1925eko martxoaren 24an. Elbire Agirregomezkorta ermuarrarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Emaztearen senideen "Lomiño" enpresan lan egin zuen. Erretiroa hartu zuenetik edadeko pertsona gaixo eta premiadunei laguntzen jardun du "Nagusilan"en bitartez. Irakurtzea, bidaiatzea, zinemara joatea, mendian ibiltzea, itsasoa, lagunartea... izan dira bere gustuko zaletasunak. Euskalkia: ermuarrera.

### **Mari Luz Yarza Makazaga (1930-2023)**

1930ean jaio zen Ermuko Irulitxa auzoan (gaur egungo Zelaieta). Gerra Zibila hasi zenean 6 urte zituen. Zarautzera joan ziren hasieran, baina aitak Santanderrera alde egin zuen eta Ermura itzuli ziren. Ermua ebakutzeko eskatu zutenean, Ziortza-Bolibarko Arta auzora joan ziren ezkutuan. Ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan, baina josten eta brodatzen jardun zuen. Mallabiko Aldasolo baserriko Rufino Arregirekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten. Miren Areitioaurtenarekin batera elkarrizketatu zuen Fernando Aranberrik "Ermua eta Eitzako euskara" proiekturako eta, besteak beste, hainbat kantaren berri eman zuten.



**Maria Felisa Zenarruzabeitia Gorrotxategi Motxu**  
(1927-2021)



Ermuan jaio zen 1927an Barrenkalean kokatutako "Motxu" baserrian. Eskolara plazara joan zen: eskola txikira lehenengo eta 15 urte artekoa geroago. Filorengana joaten zen bordatzen ikastera, baserriko lan guztiak amaitu ostean. Jose Luis Aranbururekin ezkondu eta gero ere, Eibarko berdura plazara joaten zen generoa saltzera astoarekin. Ermuko azken andrazko baserritarra izatearen ohoreak harrotasunez bete izan du. Ermua eta Mallabiko `Drogetenitturri´ hilabetekariaren 160. zenbakian uholdeen gaineko bere gogorapenak datoz jasota, "Sua eta ura, belaunetik behera" izenburupean.

**Joxe Mari Zendoia Ugarte** (1922)

**Alejandro Zubizarreta Albizu** (1931-2018)



Ermuko Izelaieta kalean jaio zen 1931n. Pilotaria izan zen (herrien arteko hainbat lehiatan jokatu zuen) eta musikaria ere bai. Solfeoa ikasi zuen bere osaba Luis Albizu ("Luis Txikixa") maisu zuela. Ermuko "Santa Cecilia" bandan tronpeta-jotzaile eta Txistularien bandan txistu baxu izateaz gain, bere sorrera-sorreratik gizonezkoen "Abeslariak" abesbatzako partaide izan zen. "Zubi-ondo" enpresan mekaniko ofiziala izan zen. Felisa Junquerarekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten. Ermuan ospatutako 47. Txistulari eguna zela eta esan zuena `Drogetenitturri´ herri aldizkariaren 89. aleko artikulu batean dator jasota.

**Pedro Zubizarreta Garro** (1925-2010)

Ermuko Izelaieta kalean jaio zen 1925ean. Aita, Cosme Zubizarreta, Ermuko "Santa Cecilia" Musika Bandaren zuzendaria izan zen eta "Ermuko Biribilketa" martxaren konposatzailea. Pedro bertako saxofoi-jotzailea izan zen 1940tik 1972ra, Banda desagertu zen arte. Bizitzan musika izan bada ere ikastea gehien kostatu zaiona, kortxea eta kortxeaerdiekin borrokan beti, hark eman izan dio bizipoza: musika jo, entzun, abestu... Mallabiko "Urizar-Etxebarriko" Isidora Txurrukarekin ezkondu zen 1955ean eta euren alaba Eva, musikari lotuta hau ere, soinu txiki eta akordeoi irakaslea da Ermuko Alboka Musika Eskolan. 30 urtez Mallabian eta mallabitar batekin bizi izan arren, ermuarrera da bere hizkera.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Aisia

### 1.1. Bentako giroa eta bezeroak

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-001/006
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:09:56. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Atzera-aurrera handia zegoen sasoi hartan Sallabenten, Ermuko auzoan. Gaur egun bat dira Ermua eta Sallabente, baina orduan kilometro bat zegoen. Ermuko jende asko joaten zen Eibarrera lanera edo eskolara, oinez edo bizikletan. Jendea etxera bueltatzen zen eguerdian bazkaltzera.

#### Transkripzioa

-Ze kliente eukitzen zenduen (Sallabenteko bentan), Eibarko jentia edo pasokua edo?

-Pasokua. Sallabenten tabernetan eta pasoko jentia. Bueno, orduan oin beste golferixa ez zuan eitten. Domeketan, domeka illuntzian zaroi afarixoi [...]. Sarbo-eskailluak eta halako zer bat. Pasatzen zuan orduan trafikoa haundixa euala Sallabenten. Sallabenten Ermura, oin Sallabente ta Ermua bat dittuk baiña orduan Ermura etortzeko, jolin!, ba kilometro bat pasau! Ba bizikletan etortzen giñuazen gu. Baiña jente asko biharra eitten ebana Eibarren, oiñezian joaten zuan asko. Etorri be oiñezian, ta orduan ba tragua edo bestia edo. Transportistia ta... Orduan gauza asko ibiltzen zuan. Orduan, buf, Eibarrera trafikoa haundixa jeuan. Ermu guztiak kasi Eibarren eitten juan lana.

-Oiñaz asko, bizikletan eta oiñaz.

-Oiñaz, bai. Ta zer?, Eskola Armerixara ta joaten zienak eta be bazkaittara Ermura, etxera. Ta Alfakuak eta ez, eurak komedora, baiña Carreras-ek [...] erdixan ekanian taillarra ta, akordatzen jatak neri; taillarrera oiñezian edo bizikletan, baiña bazkaittara ba etxera. Orduan ez euan "menú del día"rik eta halako... Oingo, modernuak zittuan.

-Batzuk bai.

-Bai, bai, bai. Asko joaten zuan bere bazkaixa erdi preparauta ta berotu bat edo emon eta jan eta eitten ebenak, bai. Alfara ta be joaten zittuan.

-Ta bidian, etxeruzkuan, tragua jo.

-Bai. Taberna bat jauan eta. Ez jauan (etxauan) hor beste tabernarik. Elorriakua gerra ostian ez juen (etxuen) zabaldu. Ez jakixat (etxakixat) zabaldu euen, igual egongo zuan apurren baten edo baiña. Elorriakua itxitta. Ta berutz ba bapez. Matarifiena be geruao ein juen, Matarifia be gerra ostekua dok, ta. Ba hurrengo tabernia Eibarren Txaltxa izango zuen. Ta Txaltxa be, Isasixa be orduan direkziño doblia, gora ta behera bertatik danak ibiltzen zittuan gora ta behera. Hori Alfa aurreko kamiño hori ta barrixak dittuk.

## 1.2. Motorrean txakurraz eta eskopetaz

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-001/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Sasoi baten inor ez zen joaten astegunean perretxikutara. Txakurra eta eskopeta motorrean hartuta joaten zen Kostan ehizara. Baserritarrek abisatzen zioten oilagorra ikusten zutenean edo perretxiko bolara zegoenean.

### Transkripzioa

-Kazia ta. Orduan perretxikua ta ekarri asko eitten zuan, zegaittik iñor ez zuan joaten perretxikutara astegunian. Oin batuk puente dakala edo, relebuan itten dabela biharra edo, bestiak. Ta gero...

-Egunero dabik jentia mendixan.

-Egunero. Lokomoziñua be haundixa. Jo, harek lelengo oiñezian. Gero motorra hartu [euanian], jolin, ba motorra ba horra Oizera joateko ta baakizu zer zan? Motorra, Lambrettan txakurra kazara be baitta. Han bandejan txakurrori ifiñi, buztana [arrastrian?] eruatzen juan baiña. Eskopetia lepuan eta kazara. Ez jauan (etxauan) automobilik eta. Orduan ez jauan (etxauan). Ta gero, kazan be ona izan zuan Kostan, kazan be ondo eitten juan. Bai ba, orduan basarritarrak eta basuan ibiltzen zittuan iretan edo bestia edo. Ta batuk jaso dabela ta, errekaue segiduan. "Hi, Kostan, oilagorra jaso juat! "A, bai?" Ta trago bat.

-Errekaue bialtzen jotsen Kostaneri basarrikuak Oiztik eta: "Hi, Kostan, oilagorra jaso juat honen lekuta", bestia ta. Holan entzunda nik. Ta hango pastoriak eta lagunak.

-Perretxikuenaeta, perretxikuak horretzek ekartzen juan asko. "hi, ba basuan ibili nok eta perretxikua daok, kantidadia daok". Ubillara akordatzen jatak, perretxikutara joaten zuan, eta harek deittu eitten jotsan, harek telefonoz be bai deitzen jotsan. Telefonua be orduan asko ez jauan (etxauan), baiña deitzen jotsan, eta joaten zuan, eta ikusten ebenian asko euala... Sobra!

## 1.3. Nola ezagutu zuen amamak Iparragirre koplaria

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-002/007
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Amama-eta Durangora erretxinak (kandelak) saltzera zihoazela, Iparragirre bardoa ezagutu zuten bidean.

### Transkripzioa

-Gure amak kontatzen eban, amamak, nere aittan amak hamen etxian eitten zittuan, erretxinak zian. Erretxina zan argizarixakin, kandela moduan eitten zittuen. Eta zapatuetan Durangora faten ei zien, goizian lauretan urten hamen eta hartu zestua buruan eta saltzera. Eta egun baten, esaten eban, ba hamen Ziharko bueltan gora, Aitxixora (Areitio) baiño lehenao bidian topau ebela gizonezko bat holako lepuan zaku haundi batekin eta. Esan otsan: "Nora zoiaz zuek?" "Ba gu azokara erretxinak edo kandelak eitten douz eta haretzek saltzera plazara. Ta zu zein zara ba?" Ta "ba horra Aitxixo gaiñera heldu orduko igartzen botsazu nor nazen, orduantzek esango dotsuet". Ta zan Iparragirre. Iparragirre. Ta harek kontau eitten otsazela ipuin asko, orduko gauzak-eta; eta berakin fan ziala Durangoraiño. Sarri kontatzen eban. Nere amamak hori, amamak.

## 1.4. Zozo-birigarrotan eta eperretan

- **Hizlaria(k):** Iturriagagoitia Mallagarai, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-008/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza  
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Zozo-birigarrotan ibiltzen ziren gehienbat. Eperretan Nafarroan. Oilagorretan Oiz aldean.

### Transkripzioa

-Eta bestela zozotan, zozo-bidigarrotan...  
-Ta eskillarasua ta horixe. Lizentziak hartu arte, nik hamasei, hamazazpi, hamazortzi urtera arte. Eske ni ya hamazortzi-hemeretzi urtekin motua, Vespa zar bat zekan aittak eta harekin Bianara joaten giñan eperretara ya. Bueno, aparte udan eta hola, pare bat bidar urtian. Ostantzian ba hamentxe, Trabakutik Markiñarutz, hortxe kanteretan eta be bai eitten genduan. Baiña beti guk zozo-bidigarrotan. Oilagorretan aittak hamengo Ermuko jentiakin iñoz salida batzuk ein zittuan, Oizera ta. Gaiñera baten zazpi hil zittuen. Gaur asko da, orduan faziltxuao. Zapatu arratsaldian urten bazkalostian eta domeka illuntzian etorri ein eben. Muniozgurenen pentsatzen dot gaua ein ebela, bazkaldu ta bestia; afaldu ta abar, eta lo.  
-Munittibar inguruan edo?  
-Ez, Muniozguren dago hamen Trabakutik, Geria ta honek basarrixok, ta azkena Muniozguren da. Bai, hori dok, pastoriena ta. Abioia eroi zuan ba hamen Oizen. Muniozgureko semia jua zuan lelana hara legau zana. Osea, euren basarrixa baiño bastante goratxuao, baiña hantxe, Oizko punta aldera, bai.

### 1.5. Erreklamoarekin ehizan

- **Hizlaria(k):** Iturriagagoitia Mallagarai, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-008/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Sastraka artean ezkutatuta egiten da erreklamoaz ehizan. Erreklamoak jo eta txoria etorri egiten da. Geldi-geldi egon behar. Azkar tiratu behar, bista ona dutenez berehala ikusten zaituztelako. Eskilarasoa bizkorragoa zozoa baino.

#### Transkripzioa

-Eta reklamuakin zela eitten da kazan?

-Bueno. Reklamuakin guk eitten genduan, lehen esan dotsut hasieran, iñor ez zala ibiltzen hor. Eske peligrasua da ta. [...]. Reklamuakin eitten genduan moruan ba gaur egunian ezin leike ein. Klaro, aintziñan geuk be eitten genduan baiña eze. Eitten da sasi artian norbera. Sasixa edo arbolia behintzat egon dailla, arbola asko, ez deixen txorixak nobera ikusi. Ezkutauta egon bihar zara. Eta puntu askotan zela [dittuzun] ba txabolarik sekula guk ez genduan sekula be ez. Lekuak hartuta tokixak. Honbre, hamentxe hiru edo lau arbola daoak eta tapauta goittik eta ertzetatik be puxkat sasixa edo. Hantxe. Ahuakin aparato bat, halako anilla bat; horrek saldu eitten zien, prohibiduta zeuan baiña saltzia libre zan armerixetan-eta. Ta "txok-txok-txok-txok", harekin jotzen eban reklamua ta zozuak "txok-txok" kontestau eitten dau. Noberak be "txok-txok, txok-txok", osea, dihar eitten euren berbetia. Da, xxxiu!, halakon baten ikusten dozu legau dala adar batera, tak! Bixkor tiratu bihar, osea, bixkor-bixkor, osea, azkar, eze eiten dabe arbolan geratu eta bu!, atzera fuera. Klaro, eske ezkutauta zaoz baiña bistan zaoz. Urreratzen danian bera ba nobera... Iñoz eskillarasua ta oinndiok peligrasua eskillarasua, osea, azkarraua. Etorri ta adarra ikutu orduko fuera atzera. Ta bizixaua da. Ta iñoz ba eskillasua urrin, nobera ikusten urrin txamar, bueno, tirotik fuera. Arbolatik igual lurrera, tak. Kaak! eta kaak!, jotzen gontsan reklamua ta hantxe. Orduan esaten eban aittak, "begirik be ez mobidu, e". Je-je, hauxe begixekin be ez eitteko, "begirik be ez mobidu". Hori bai, txorixak bista haundixa daka eurak. Mobimentuik badao ikusi eitten dau. Geldi bazaoz ba bueno. Pasa. Baiña mobimentu txiki bat ein ezkerro, adios!

### 1.6. Txantxangorria

- **Hizlaria(k):** Iturriagagoitia Mallagarai, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-008/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Txantxangorriak konfiantza handia hartzen du pertsonarekin. Ilobari txorien berri erakusten.

### Transkripzioa

-Txantxagorrixa da txorixa konfiantza haundixa hartzen dabena personiak. Nik hor txabola bat, esan dotsut, txabolatxo bat, ezebez, ez, da terreno puxkat eta lorak eta ipintzen. Lengunian be andriakin han nebilen. Areñeun, exakto, areñeun arratsaldian. Baiña, klaro, nik atxurtu ta berak lorak ipiñi ta bestia ta. Txantxagorrixa metro bira. Edo gutxiao. Ni hamen lanian eta hortxe txantxagorrixa ta harutzatxua andria ta. "Arantxa, horixe da txantxagorrixa, beittuizu zer dan, horixe da". "Hori txikixoi?", ta "bai, horixe da". Loibatxuai-ta esaten dotsa, Aratzek, urte bi dakaz eta: "Hau zozua ta txantxagorrixa", erakutsitta dakadaz. Badakiz, ama ta lengunian beranak estraiñauta: "Hau txantxangorrixa ta hau zozua". Eta esaten dotsa: "Txabolara jungo gaz eta ikusiko douz han txantxagorrixak" eta. Klaro, hori sarri ikusten da, zozua be bai ta txantxagorrixa be bai. Txantxagorrixa bertan kontinuantemente, osea, konfiantza haundixa hartzen dau personiak. Ez bajako molestutzen, bertan jartzen da. Eta, karo, atxurtu edo ein ezkeru pixkat eurak ensegida datoz koko billa edo zeoze billa.

### 1.7. Mikak

- **Hizlaria(k):** Iturriagagoitia Mallagarai, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-008/010
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Mikak bere lurraldeak izaten ditu. Santamaiñak aldean sekula ez du mikarik ikusi. Herritik hurbilago, ostera, Berano aldean eta, bai. Artaldea zegoen leku batera etortzen hasi ziren baina joan den urtetan ez dira agertu.

### Transkripzioa

-Aittatu zostazun lengunian eskillasuak eta mikak eta bakoitzak territorixo bat zekala.

-Bai. Nik ezautu dotena, eta beste batzuk be esan leikek, klaro. Beti izan bihar die ehiztarixak ze kaleko jentia ez da konturatzen. Baiña porrejenplo esan dotena, Elgetatik datorren erreka Aixolara, bueno, Aixola erreka Eitzaraiño. Eskumara behetik gora goiazela Elgetarutz eskumara da Santamaiñako terrenua, Santamaiña aldekoa. Hor sekula, Santamaiña, Urantzu, Santamaiña gaiña, pase lekua, sekula hor mikaik ez neban ikusi. Hor ekin errekatik trenbidetik hor gora. Sekula be ez. Eskillarasuak eta bai. Beste toki bat zan, ni Ermuko estaziño kalia jaixua naz, ta joaten giñan Abeletxe, hor basarri bat dao, ta horren ostian Ultzama esaten jakona. Gero Karia, Eibartik ikusten dan mendixa Karia. Hor sekula mikarik ez

neban ikusi. Sekula be ez. Ta urrian, urrian, zer esango dotsut nik, kanteretatik gora basarrixak, Geria edo zelan dira? Geria ez, ez, harutza... Berano, Berano txiki ta. Hor mikia. Berano Txikittik Trabakura, Trabakutik Hanbrera, hor mikia. Eta esan dotsuten toki bixetan sekula mikaik ez dot ikusi. Bueno, ointxe bost, zelan bizi nazen hortxe anbulatorixo onduan, ba ointxe bost-sei urte agertu zien mikak. Ze ardixak dakaz gizon batek hor, ardixak, ta nik pentsatzen neban hiorraze, haren ingurura desdeluego etortzen ziran, jatera harena zeoze, ardixena. Ta umiak be ein zittuen hortxe. Ze parejatxua ibiltzen zan eta gero agertu zan mordotxua, sei edo. Aurten atzera ez die agertu. Neu bakarrik ez, neure auzokua ta komentarixuak eitten: "Ene!, mikak agertu, mikak" eta. "Sei dabixak, umiak ein jittuk". Ta atzera be ezkutau ein dira.

### 1.8. Ehizarik onena, zailena

- **Hizlaria(k):** Iturriagagoitia Mallagarai, Fedé
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-008/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Zirraragarrienak ehiza zailak ei dira. Errazena: itxoin, eta datozenean tiratu, baina horrek ez du hainbeste grazia. Txakur barik ere egin izan du eperretan. Oilagorretan txakurrekin, berarentzat onena.

### Transkripzioa

-Esan leike kazarixendako kazia zenbat eta zailagua polittaua dala?  
-Nik neuk pentsatzen dot baietz, neutako bai. Neuretako bai, ze erreza, errezena zein dok? Jarri pasian eta eon, itxain. Ein hamarretakua ta datozenian tiratu. Ta zenbat eta eskupeta hobia ta kartutxo hobiak bentaja, punto! Eta hi ba neu be egon nok iñoz. Bale! Baiña ez dok neuretako hainbeste emozionante bestia, oillagorretia edo eperretan edo moruan. Eperretia be ein juat nik txakur barik. Orduan Bianara joaten giñanian motorrian eta txakur barik. Baiña txakurrakin be ein juat. Eta, klaro, txakurra ikasitta egon bihar dok ondo. Baiña txakurrakin asko hobeto, emozionantiaua dok... Klaro, txakurra ikusten dok lanian han makur-makur einda ta bestia ta. Hobiaua dok, ze nobera eperretan dabilleniak dok, noberak ikusten badau bandua, segiru. Ta ostantzian hoiala bu! jaikitzen dokk eta , inesperadamente ta, ba. Joten ba dok bien eta bestela aurrera. Baina ez dok, diferentzia haundixa daok neretako. Oilagorretia dok neuretako onena. Hamen, e, hamen, klaro.

### 1.9. Amama kantazalea

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Narbaiza, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-023/009

- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza  
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Amama kanta zalea zen. Lo-kantak, trikitixak, bertsoak, denetik. Kantapaperak erosten zituen. Gogoan du etxerik etxe saltzen ibiltzen zen gizona . Berezko bertsolaria ei zen amama.

### Transkripzioa

-Eta kantuan eta eitten eben?

-Bai. Gure ama zan kantantia, bai, bai. Ni ointxe be harek kantuak, [lehengo gauzak] zer haundixa emoten dosta.

-Zer kantatzen eban?

-Edpzer. Trikitixok eta zerok hartu ta taka-taka-taka koillaria ta. Benga, panderuan moduan jota.

-Mahigaiñian igual.

-Bai, bai. Gabonetan zerian, "benga amama!" esaten gontsan eta benga.

-Ta ume kanturik, lua hartzeko ta?

-Bai, horrek be bai.

-Eta ze kantatzen eban. Akorduan dakazu?

-[...] baiña ez dakat zerik be.

-Obabatxua edo?

-Hori da! Bai, horrek. Baiña trikitixak eta. Bersuak eta be bai. Ama-zana kantantia. Ni gogoratzen naz umia zanian etorten zan ez dakit nundik, bat kantapapelak saltzen. Ai, gure amak dirurik baekan erosiko otsan. Bai, bai.

-Ta zer eitten zittun, kantau?

-Bai, kantau. Kantapapelak hartu ta berak ikisi kantuak.

-Eta Ermuan saltzen zittuan horrek?

-Kanpotik, ba etortzen zan etxei-etxe, lehengo gauzak, badakizu. Eta etxei-etxe saltzen zittuan. Ointxe be goguan dakat, [...] ikusi eitten dot ha zelan etorten zan.

-Ta euskeraz izaten zan.

-Bai, bai, euskeraz.

-Lehen sasoi baten Urkiolan eta be esaten dabe.

-Ez dakitt, ez dakitt. Ni Urkiolara... Ni Urkiolara ez naz joan neska haundixa ein arte be ez zerian eta ez dakitt. Baiña horren gizon horren zera dakat ointxe be zelan etorten zan. Ez dakit, Bergaratik edo hortik etorten zan. Euskalduna zan, e, euskalduna bera gizona be.

-Eta musikia haren kantapapelana zelan erakusten zotsan amari?

-Ez dakit, ez dakit. Horixe ez dakit, holakorik ez. Danak kantatzen zittuan eta.

-Letria.

-Bai, letria.

-Eta harek zer ingo zotsan, kantau igual zatitxo bat edo?

-Ez dot pentsatzen. Berak etara. Gure ama hortan artistia. Bersolarixa zan ha, bersolarixa zan.

-Zelan bersolarixa?

-Bera be bersuetan eta, bai. Gero loibia be badakat bersolarixa, ta jatorrixak dia gure ama ta.

### 1.10. Txinatik ekarritako saskiaz ikasi

- **Hizlaria(k):** Solozabal Areitio, Alex
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-025/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:06:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** 16 urterekin Coruñara pilotan jokatzeraz. Osabak Txinatik ekarritako zesta handi batez ikasi zuen. Coruñatik Zaragozara, eta Zaragozatik Habanara 18 urterekin.

#### Transkripzioa

-Eta gero ya hamasei urtekin joan nitzan ya Coruñara jokatzeraz.  
-Hamasei urtekin.  
-Hamasei.  
-uri beti gustau jatzu pelotia. Gustau bai, ez?  
-Bai, bai. Lelengo hamen, ikasi hamen, Ermuko plazan.  
-Ermuko plazan ikasi zendun?  
-Bai, ikasi hamar urtekin, bedratzi urtekin, ya hortxe zestuakin. Ta zesto haundi bat ekarri osten neri tiok Txinatik. Ta bera zagerua zan, atzelarixa jokatzen eban, Ta aurrelarixanak ba zestuak txixixauak diaz; ta harek tiok emon ostan zesto itzela, neu baiño haundixaua. Ta haretxeekin ikasi. Ta gero ya Markiñara joaten giñan ensaiuak ya nausixao. Hamalau urtekin, hamabost ya Markiñara. Frontoia haundixa zan. Hoixe.  
-Coruñara esan dozu hamasei urtekin.  
-Hamasei urtekin ya joan nitzan Coruñara. Kontratau nauen sei hillabeterako, han. Dana han amaittu ta gero etorri nitzan, hamazazpi urtekin ya kontratau nauen Zaragozan. Urtebete ein [nauen] Zaragozan. Ta Zaragozan ya, Habanatik etorri zan gizon bat pelotarixak kontratatzeke ta danak, eta ni kontratau nauen Habanara joateke. Hamazortzi urtekin; hamazazpi, hamazortzi eitteko.

### 1.11. Bartzelonan pilotari

- **Hizlaria(k):** Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-033/007
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena:** Hamabost urterekin, 1941ean, joan ziren Bartzelonara pilotan jokatzeraz lagun bat eta biak. Han gosea pasatu zuten. Barrio Txinoan bizi ziren, leku arriskutsua zen eta zaindari batekin ibiltzen ziren.

#### Transkripzioa

- Ta gero, ba, hoixe, hasi nitzan... Eibarrera juaten nitzan ensaiatzera pelotia... pelotakin. Ta juan nitzan Bartzelonara, juan giñan Lidian aitzia gaztiaua ta ni, juan giñan noviembrian 10ian "en el 1941". Hamalau urte —

hamabost eitteko— pentsatzen dot nakazela, ta bestia gaztetxuaua. Bixok juan giñan pelotan jolastera. Kontratauta juan giñan. Ta beste han euazen batzuk —Mallabikua bat—, ba, haren etxe batera juan giñan. Ta han bai pasau genduan gosia, Barzelonan. Bai, ze ez zeuan jatekorik Barzelonan ta.

- "Cuarenta y uno", ezta, esan dozu?

- Bai, gosia hantxe.

- Gerra oste gogorra.

- Gerra oste gogorra. Ta han, ba —gogoratzen naz—, leku baten egon giñan, ba, zera zan, militarra edo — Geronan-edo euan bera, gizona—, ta harek emoten otsen, ba, lenteja, garbanzo... holan ekartzen zittuan. Baiña gero kendu ein otsen. Ta esan oskun: "Ba ezin zeinkeze gurekin egon, ze ez dao jatekorik, ez dotse emoten" ta bueno, beste leku batera. Ta [atzian], beste baten bittartez, danok gebizen han euazen neskak, ba, noraezian moduan, ta eruan [gittuen] zera "la calle Conde del Asalto, Barrio Chino de Barcelona". Entzun dozu daona? Bueno, ba, "Barriro chino"ra. Ta, zera, naparrak zian andra-gizonak, ta geuazen, ba, lau neska pelotan eitten genduanak. Eta halan. Ta zan parajia, ba, izan leikianik txarrena, zerian, Barzelonan. Ta bajatzen genduan, ba, Frontoi Txikin bizi giñan... oi.... jolasten genduan, ta gero, ba, Ramblas-en behera juan ta juaten giñan... Eta zelan gaztiak jokatzen genduan atzenengo kinielak, ba, igual ordu bat eta erdiak gabian eta holan. Ta zerian, hor, zerian, hor ertzian, Calle Conde del Asalton ertzian itxeitzen oskuan bijilantiak. Zeoze emoten otsaun, ta itxeitzen oskun bijilantiak, eta laguntzen oskun etxera arte. Ta etxian atia zabaltzen oskun ta goiko atian golpia emoten otsaunian, orduaintxe aldatzen eban. Berak atia isten eban kanpokua. Haintxe bizi izan giñan.

## 1.12. Raketista

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-033/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:36:48. **Bukatu**: 00:38:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena**: Ermuan eta Eibarren entrenatzen zuten pilotan. Begirale bat ibiltzen zen ikusten eta kontratuak egiten. Zazpi urte Bartzelonan. Non edo nondik atera behar bizimodua.

### Transkripzioa

-Orduan Barzelonara joan ziñan eta zazpi urte egin zenduzen, ez?

-Zazpi urte.

-Lehenengo hemen entrenamentuak eta.

-Bai, Eibarrera, Eibarrera. Eibarrera joaten giñan eta gero frontoia genkan zerian, batzokixa daon lekuan. Hantxe eitten genduan eta. Ibili eitten zian jentia, Eibartik asko joan zan, neska asko. Asko egon dia. Ta bastante entrenamentuak-eta itten genduzen eta gero etortzen zian kontratuak eittera-ta hola. Ein oskuzen kontratuak eta han egon giñan Barzelonan.

-Bateron bat etortzen zan, gizonen bat?

-Bai, begiratzera eta etortzen zan, kontratua eittera ta hola.

-Orduan etxian eta hamalau urteko neskato bati lagatzeko, ezta?

Atrebiduak, ez?

-Ezaupidia be bai, Rosita Mallabikua be baeuan eta. Ba bueno, ze ingo eben? Nun-nundik etara ein bihar zan bizimodua. Aiztak be bixak euazen biharrian. Danok ein dou biharra. Ta ba danen artian.

### 1.13. Dirua jokatzera eta neska ederrak ikustera

- **Hizlaria(k):** Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-033/027
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena:** Hiru egun jai hilekoa zutenean. Jokatzera joaten zen jendea batik bat, baina neska ederrak ikusteagatik ere bai. Zapatila horiak eta galtzerdi zuriak.

### Transkripzioa

-Orduan urtetzia andrak, holako mobimentua-ta, orduan gauza haundixa izango zan.

-Ba, bastante, bastante.

-Prensan eta [...]

-Bai. gero anunziatuta be bai zerian, ointxe hemen etortzen dian moruan. Pelotari, esku-pelotakuak eta etortzen dian bezela. Han be bai etortzen zian.

-Eta gaixotu ezkeru edo perioduakin...

-Ez, periodoko denporan hiru egun eukitzen genduzen jai. Anunziatzen genduan eta hiru egun jai. Hortxe ekarri doten periodiko baten urten eban, Ta harek be ipintzen dau. Gero lagako dotsut ikusteko. Ipintzen dau horixe.

-Orduan zaintzen eben, ez?

-Bai, bai. Ta gaixorik bazenguazen ba ezingo zan jokatu, baina...

-Zu hamahiru urtekin hondiñok titirik, petxurik eta...

-Bai, bai. Ederrak eukezenak be bai. Baiña sotenekin zer?, igual-igual jokatzen zan. Oin be honek tenistak be jolasten dabe, osea ke. Ez da problemia hori.

-Gizonak hara joaten ziran jokua ikustera edo bertako neskak ikustera? Lehen "palomitas" esan dozu.

-Baiña "palomitas" guregaittik esan eben. Kontxitagaittik eta neregaittik. Baiña ikustera, bai, batzuk joango zien, baiña jolastera asko, jokolarixak asko, jokatzia gustatzen jakuenak. Bo, joango zian. Partidetan ba neskak, badakizu, atenziñua gaiñera batzuek lllamatibak be bai ta, pelotia jotetan pixkat mobtzen bajakuen eta iztarrak ikusi, ba bueno. Orduan zeñek ikusten zittuan ba iztarrak? Ze plaiara joaten baziñan be ba igual jentia joaten zan ikustera, jakitzen eben ba pelotan itten genduana ta plaiian be gu normal ibiltzen giñan baiña. Ez. Bizimodua normala eitten zan.

-Bueno, baiña gonak eta ez zian oso luziak izango.

-Ez, holan, holan. Belauna tapauta.

-Inportantia, ezta, belaunak tapatzia.

-Belauna tapauta izaten zan.

-Lehen galdetu dotsut, ze oiñetako erabiltzen zenduen?

-Zapatillak. Lotzekuak, zapatillak. Orix ta gero galtzetiñak zurixak.

### 1.14. Raketa, tenisa baino inportanteagoa

- **Hizlaria(k):** Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-033/032
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena:** 25era edo 30era jokatzen zuten. Palaren araua berdinak erraketa-jokoan. Tenisean jokatzen zuten bi neska frontoira pasatu ziren. Beren lagun Toni eibartarrak orduko gizon tenislari onenari nola irabazi zion. Neska guztiak animatzen. Tonik Pedrin-i sekulako pasada.

### Transkripzioa

-Zenbat tantora eta izaten zan?

-Guk a veinticinco, veinticinco pentsatzen dot. Treinta be bai. Txikixauak veinticinco, gaztiauak, eta bestiak treinta edo.

-Eta arauak zeren antza gehixao dauke, remontiana, esku-pelotiana?

-Ez, paliana. Jotia da ta. Baiña orduan guk pelotan jokatzen genduanian Barzelonan tenisa ixa ezautu be ez zan eitten. Egoten zan "en los clubs, en los grandes clubs" jokatzen eben. Ta euan klub bat parte altan leku onian, eta euazen neska bi ba eruaten ebena el club. Eruaten eben aittak eta amak eta eurak, eta bertan bizi zianak eta, jokatu eitten eban ba tenisian ta pixkat eurak. Eta pentsaizu zelan euan tenisa bajuan, eurak, neska bixak, Nuri eta Carmen etorri zian jolastera frontoira. "Fíjate, era más entonces la pelota, la raqueta que el tenis. Y no había así campeonatos de tenis, nada". Ez euan. "Y había, esto, uno que jugaba muy bien, que le llamaban...", zela zan bera? Lehen mñian euki dot eta oin ez jata (etxata) akordatzen. Bueno, ba gehixen zana. Ta baten akordau jakuen jokatu bihar ebalu Tonin kontra pelotan raketikin. Pedrín zan, Pedrín. Ta jolastu eban palista; jokatzen eben, beste frontoi bat "Barcelona" esaten jakona, ta hara joan giñan neska guztiak Toniri animatzera. Ta Tonik emon otsan paliza bat hareri! Sekulakua emon otsan. Ta klaro, eske tenisa ta ha ba diferentia zan. Baiña berak jolasten eban, "a pala" jokatzen eban. Ze tenisian ez euan orduan bizimodurik. Ipiñi eben hori ba jentiandako, ez dakitzu? Pikia hantxe, Toni ta Pedrin.

Desafixua, ezta?

-Desafixua ipiñi eben eta. Tonik palizia emon otsan bestiari, mutil horri. Ta oin zelan daon tenisa, e! Eta enkanbio pelotia desaparezidu.

### 1.15. Moja bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-033/034
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:02:34. **Bukatu**: 01:03:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena**: Oso bizimodu erretiratua egiten zuten. Egongelan bingoan, frontoian partidua, eta azkar etxera. Inoiz goizez irteten ziren paseatzera. Gaueko ordu batak inguruan amaitzen zuten frontoiko lana eta Rambletan behera joaten ziren etxera.

### Transkripzioa

-Gu zerian konbentu monjan moruan egoten giñan. Hantxe kuarto baten sartuta, ta hantxe bingua edo jolasten genduan loterixia hantxe kuadrillan; tokatzen jakunian urtetzeko jolastera. Ta gero antxiketan etxera ta antxiketan... Eta ez jata (etxata) gogoratzen holan anekdotarik. Egongo ziran, baiña oin momentuan...

-Jokatzen zan denporia izaten zan, entrenauta ez zenduen eitten, ez?

-Bueno, batzuetan eta joaten zian, baiña jeneralmente ez. Jeneralmente partiduetara aurrez urtetzen bazenduan puxkat jotera edo hori bai, baiña ostian ez, partiduora bakarrik. Goizian bai, goizian batzuetan joaten giñan. Akordatzen jakunian goizian. Ze arratsaldia ta gabia izaten zan. Arratsaldia ta gero illuntzixan gabian hamarretan edo, ordu batak, esaten dotsut, ordu bat terdiak igual. Ramblasen behera bajatzen gintzazen.

### 1.16. "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitten moduan..."

- **Hizlaria(k):** Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-036/020
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Aisia » Kultura » Bertsolaritza
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Aita dantzari amorratua. Ez ei zuen erdaraz ikasi. Eibarko estazioan fakturazioak egiten zituen, eta behin batek adar-soinuan galdetu zion: "Vitoriano, qu&eacute; tal con el castellano?", eta aitaren erantzuna: "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitten moduan...". Bertsopaperak irakurtzen zizkion aitari. Drogeten Iturri aldizkaria irakurtzen du. Lazkao Txikiren liburua.

### Transkripzioa

- A, berak esaten ostan, gaiñera. "Aitta, eskolara ta?" "Ni eskolara gitxi joan non, dantzan gehixao gustatzen jatanan eta". "Ze eitten zenduen?". Ba ganauzaiñara bialdutakuan, gaztaiña-zuluak egoten zien haundixak. Gaztaiña-zuluak ba gaztaiñak eta behian lekua haundixa ta. Terreno saillian. Ta gaztaiña-zuluak, berak soiñua jo eta berak dantzan eiñ. Dantzan hantxe be. Dantzari kristona zonan, dantzan nahixao eskolara joatia baiño. Eta horregaittik gero. Periodikua beti hartu bihar izaten eban. Ta irakurten eban ba. Baiña sekula ez eban ikasi erderaz ondo. Danekin aittu, e, erdi erdera erdi kastillano. Amak zoragarri ekixan, baiña harek ez. Pentsaizu, Eibarren Aurrerako almazenian zenbat urtian egon zan eta. Orduan fakturaziñuak eitten zian, "grandia" ta "pequeña" esaten otsen, "facturación grande y facturación pequeña" Eibarko estaziñuan. Faktore bat euan gure aittari ulia hartzen beti.

- Zer zan faktoria?

- Faktoria zan ba zerak eitten zittuena, fakturatzen zittuenak. Ta zelan esan otsan baten? "Vitoriano!" "Qué?" "Qué tal andamos con el castellano?" "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitteten moduan hobe izango litzakek!". "Qué bien le has contestado!", jefiak. Euskeraz tautik be ez ekixan, eta guriak erderaz aitzen eban. Itten zittuan, fakturaziño guztiak berak itten zittuan. Erdi erdera erdi euskera. "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitteten moduan". Ta periodikua be irakurten eban ba. Baiña euskeraz harek, erderaz, e... Gero be nik euskeraz dakitteten edo irakurten doten beste aittagaittik. Gure aitta hankia ebaitta egon zanian, gustatzen jakozen bertsuak eta! Esaten osta ze: "Hi, hik ederto irakurten don eta hamen jakanadaz kantu-papelak eta bertsuenak eta". Euskeraz irakurri bihar izaten notsan dana. Nik usten dot orduan praktikau nitzala puxkat euskeraz irakurten.

- Drogeteniturri irakurtzen dozu?

- Bai. Hasi ta akabau. Baitta... Beste bat dakat euskerazkua Aranberrik erregalautakua, txiste morduakin eta. Eta Asierrek erregalau ostan Lazkao Txikin liburua. Bai-bai. Asier! Ez, hori zeuri erregalatzen dotsut. Ederto. Hango txiste batzuekin nahikua barre eraitten otsen gurasueri. Eske txiste bat da gaiñera barregarrixa batena, e.

### 1.17. Neskek arrimatzen lagatzen ez dantzan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Garro, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-039/026
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:40:37. **Bukatu**: 00:42:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Andrazkoak irteten ziren dantzara lehenengo, eta dantza eske zihoazen mutilak ez bazituzten gustuko, kalabaza ematen zieten. Neskek ez zuten arrimatzen uzten. Gainera, dena konfesatu egin behar gero.

### Transkripzioa

-Nun izaten zan bailia?

-Plazan. Aiuntamentuak ekan aurrian zera bat, bandia jartzeko...

-Aterpetxu bat, ezta?

-Aterpetxo bat ekan eta hantxe. Ta jentia begira. Andrazkuak urtetzen eben alkarrekin, andrazkuak urtetzen eben alkarrekin dantzara. Gero mutillak joan bi ta joan hareana ta bengaeta. Batzutan andrazkuak "fuera!, zuekin ez", eitten eben andrazkuak. Beste bateana joan bihar. Joan beste bateana eta benga zuekin ez, igual eta. Han ibiltzen zan jentia dantzan.

-Harek be gustokua noz etorriko zain igual egongo ziran, ezta?

-Bai ba.

-Hori, esate baterako, konfesatzera eruan bihar izaten zan?

-Larregi animatzen bazara bai. Baiña orduan pixkat arrimatzen, pixkar gogor ein ezkerio, andrazkuak ipintzen eben, hamen (sorbaldan) ipintzen eben eskuori ta atzera bota.

-Orduan ha be konfesatzera. Eta zeñek eruaten eban konfesatzera?

Andrazkuak edo gizonak?

-Bakotxa beria joan bihar zan.

-Baiña hor pekatua zeñek eitten eban, urreratzen zanak ala urreratzen lagatzen ebanak.

-A, hori ez dakitt. Baiña urreratzen batek lagatzen badotsa ta bestiak lagatzen badotsa, bixok joan bihar.

-Doble, orduan. Zelan ez zian ba egongo illarak elixan konfesatzeko. Illara itzelak egon bihar.

-Illarak? Illara bi. Aurretik eta albotik. Albotik andrazkuak eta aurretik gizonezkuak eta mutilak.

### 1.18. Kangrejotan guardaren beldurrez

- **Hizlaria(k):** Izarra Larrea, Fidel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-041/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Mailuki eta sagar lapurretan ibiltzen ziren. Boluetako kunbora joaten ziren bainatzera. Kangrejotan ere egiten zuten. Lehen-lehen ez, baina gerora guardak zaintzen zuen erreka eta ezkutuan ibili behar izaten zuten.

### Transkripzioa

-Gero baserrietan maillukixak edo sagarrak edo holakuak lapurretan, bueno... Hamen inguruko guztiak. Hor San Antonio Txiki, Berano aldian, hor beti horrax. Han zera dago, presa bat. Ez, kunbo bat esaten getsan. Kunbo bat, famosua euan zerian, Bolueta, Bolueta. Hantxe igarira joaten giñan eta kangrejuak hartu ta holakuak. Gero ekin otsen zerak kangrejuak-eta pixkat zertzen. Etortzen zan zer bat, zaintzaille bat errekak-eta, eta bueno! Harek harrapatzen bazittun ba. Horretxek tranpok bai, kangrejuak harrapatzen. Porke lehen lagatzen eben horrek gauzok, baiña gero zan, zer gehixao etortzen zan, más militar o más... Bai, guardia, guardia, errekak zaintzaillia. Eta gero ya kangrejuak, hamen inguruko kangrejuak joan zien. Hamen ez dago berriro, baiña guri asko gustatzen jakun kangrejuak.

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Sallabenteko eskola

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-001/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Ermutik ere asko etortzen ziren Sallabenteko eskolara. 48 lagunentzako lekua egon arren, beti beteta egoten zen. Eitzagan ere bazen eskola. Hara ere joaten ziren batzuk, trenbidez.

#### Transkripzioa

- Eskolia bete-bete eindra. Sallabenteko eskolan...
- Ermutik be joaten zittuan.
- Asko. Asko.
- Nere arrebia ta.
- Lengusiñak be bai, Mari Tere ta. Ermutik jente asko joaten zuan.
- Malekonetik be bai, Malekoneko Mateo Sallabenten ibilittakua dok eskolan, pentsaik. Ta zelako joataldixa euan! Ta Elorretakuak be baitta Sallabentera ta. Bueno, Sallabenteko eskolan guk maistra ona euki giñuan, gaiñera, itxuria, famia jakan eta. Elgobartarra, Maria Concepción Unzueta. Ta hogeta lau pupitre jauazen dobliak, berrogeta zortzi lagun, ta ez zuan lekuik egoten, beti beteta egoten zuan.
- Eitzatik eta Ermutik eta danetik.
- Bai. Eitzaan be bajauan eskolia, e. Ta Eitzaan be, jente mordua bizu zuan orduan Eitzan.
- Joantxo be joaten zuan Eitzara.
- Bai. Eske Ermuan eskolatan lekurik ez. Joantxi eta Ermutik Eitzara joan ein bihar. Trenbidez trenbide, orduan trenbidian ibiltzen zuan asko. Bestela Sallabenteko eskola pasau ta aurrera joan bihar. Buelta haundixa ein bihar. Tomas Larrosia ta be baitta joaten zittuan Eitzara be baitta. Eitzan be beteta. Ermuan eskola faltia. Oin sobra daoak danak. Oin produziñua bajatu dok eta.

### 2.2. "Olixo-azia" eta marraskiloak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-001/032
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:55:43. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Olio-azak tipikoa zen Gabonetan. Olioak hobetuko ei zituen, osterantzean barik jango zirelako. Marraskiloak ere jaten ziren,

bai Gabonetan eta bai bestela. Kastilano jendeak orain urte guztian jaten ei ditu marraskiloak, eta hartu berriak, gainera. Baina orduan aurrez hartuta eta lehortuta jaten ziren.

### Transkripzioa

-Gabonetako hori (intxaur-saltsa). Hori eta karakolak.

-Marraskiloak hemen jaten dira?

-Bai, bai, marraskiloak be jaten dia, bai. Gabonetan bai eta ostientzian be bai. Eta olixo-azia, ni aza zalia ez nok baiña olixo-azia be, beti ifini bihar azak, eta olixua bastante botata. Orduan, klaro, olixua botatzen bajakuan, horregaittik izango zittuan onak. Ostientzian jango zittuan azak olixo barik eta orduan olixuakin.

-Egunero azia olixo barik eta Gabonetan olixuakin.

-Bai, ya mejorauta. "Mejorao".

-Intxaur-saltsia ta azia ta igual izango zittuan karakolak, marraskilluak.

-Bai, marraskilluak be bai. Eske oin marraskilluak, hamen kastillano jentiak bizi guztian jaten dabela, ta gaiñera hartu barrixak, baiña orduan ez. Orduan aurrez hartuta eta sikatuta marraskiluak eta. Orduan ya "hechos al detalle". Oin hamen ixa urte guztian jaten juek jentiak marraskilluak.

### 2.3. Gabon gaueko ogi-koskorra

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-002/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Mahaian jartzerakoan Aitaren egin eta Abemaria bat errezatzen zen. Ogiari gurutzea labanaz. Gabon gauean jaten zen ogiari koskorra kendu, trapu zuri batean gorde eta hurrengo Gabonetan zopa egiten zen harekin.

### Transkripzioa

-Orduan kostunbria genkan, ezkondata, umiak eta, mahixa jartzen zanian beti errezatzen zan, Agur Marixa bat beti errezatzen zan mahixetan. Euskaldun etxe guztietan. Zuek be egingo zenduen gaztetan. Bai. Gurasuak eozen lekuan, mahixan jartzerakuan, aittiaren egin eta agur marixa bat errezau.

-Eta mahixa bedeinkau?

-Bai.

-Eta ogixa be bedeinkatzen zenduen?

-Bai. Beti ogixa, haundixa, hartu eta kutxilluakin kurutzia eitten otsen ogixari ebaten hasi baiño lehenao.

-Beti?

-Beti.

-Eta mun ein?

-Bai. Orduan baserrietan kostunbria zan, ha Gabon Gabian ogixa hartzen zanian koskorra ebagi eitten otsen, eta trapu zuri baten batu eitten eben.

Eta hurrengo Gabonetan haregaz zopia eitten zan. Haregaz koskorragaz.  
-Eta urtebete irauten zeban?  
-Bai.  
-Nun gordetzen zan ba?  
-Trapu zuri baten gordeta.  
-Armarixuan arasan?  
-Bai. Eta haregaz Gabonetan zopia eitten zan. Kostunbria.

## 2.4. Eitzagara eskolara trenbideko tuneletik

- **Hizlaria(k)**: Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-036/002
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:00:45. **Bukatu**: 00:02:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Herrian ibili zen eskolan lehenengo, baina bronkiotatik gaizki zebilenez, medikuak aholkatuta, Eitzagako auzo eskolara joaten hasi zen. Tunela zeharkatu behar zuten. Jantoki ederra. Oso maistra ona izan zuen.

### Transkripzioa

-Ta gero eskolan be Ermuan. Neri akordatzen jata, Doña Maria maistra zaharra. Ez eban erakusten tautik be baiña bueno. Gero akordatzen jata geixorik, geixotu nitzan ni, bronkixuetako fuertia nekan. Bizi guztian segidu dost haretzek, e. Ta ez dakit ba zenbat urte eukiko nittuan, hamar bat urte edo? Bederatzi edo? Ta holan handik lasterrera Ermuan euan mediku bat oso-oso ona, Don Sabino Bengoetxea. Mediku bat zan kategorixakua eta argixa. Eta gure amari esan bihar izan otsan eze: "Hau neskato hau atarako bazendukie holan mendira edo piñadixa daon lekura, bronkixuetarako asko be hobeto. Gure aitta patxaraz, harek ez, baiña gure ama zan argixa. Eta esan eban eze: "Bai? hau eskolara ataratzia onena. Orduan barriadetara jente asko joaten zan, Sallabentera... Eitzara gitxiao urrin eualako. Ta Sallabenten ez euan lekurik eta, bueno ba Eitzara eskolara. Eitten nittuan goixian eta arratsaldian biajiak, e. Orduan trenak be gitxi pasatzen zien eta. Tuneletik joaten giñan. Goizian maistriakin. Ermuan Arkupe Zarretan euan apopillo. Ez dakit zein lekutan. Bera eta Sallabentekua be bai. Ta gero egualdi ona euanian behintzat, egualdi onakin, bazkaittara etortzen giñan. Enkanbio neguan egualdi txarra baeuan, ba sukalde ederra genkan. Diputaziñuak amantalak, ontzixak, esku-trapuak... Baiña ederrak, e. Ta harrikatza be eruatzen eben Ermutik diputaziñuak pagauta, astuakin. Ta bazkaixa eitten genduan eta bertan bazkaldu. Holan ibili nintzan ba urtietan. Ta astian behin edo, ala ez dakit birritan behin edo, joaten jakun Ermuan euana jesuita haundi bat, Aitta Murgoitio, dotriniakin. Ta ibiliko nitzan ba ni eskolan gerriak urten arte, hamalau urtera arte edo. Ikasi nebana hantxe ikasi neban.

## 2.5. Hileta bazkaria

- **Hizlaria(k):** Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-036/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Ermua baserriz beteta zegoen. Lehenago hiletak goizetik izaten ziren eta bazkaria eman behar senideei: entieru-bazkaria. Ahizparena gogoratzen du. Eskerrak hiletak arratsaldera pasatu zirela.

### Transkripzioa

-Lehen hasi zara esaten, eta zelako akorduko Ermua?

-Ba Ermuan dana basarrixa. Herri guztia euan basarrixakin beteta. Baiña oso danok etxeko moruan edo. Ondo konpontzen giñan gaiñera. Orduan badakizu zer euan etxian hiltzen zanian txarra? Nik dakat akorduan neure aitzia. Ixa azkenengo samar haxe izango zan, urte asko da ta. Ha il zanian goixetik entiarrua hamaiketan. Bueno. Bazkaixa emun bihar zan gero. Etxian hildakua falta ta bazkarixa emun bihar. Ta akordatzen jata, Balerionian emon genduan bazkarixa. Ba etorri zien sekula bisittatzen etorri zienak be bai. Hiru edo lau baserri bakotxetik ta mahikara galanta, zigarro-puru galantekin erdi moxkortuta illuntzian etxera. Ta gero graziak ipiñi ebena arratsaldian. Porke aitta ta gero arratsaldetik, baiña nere aitziana goixetik. Ta Balerionian bazkarixa emon genduan. Zelako kostunbriak euazen orduan, e!

-Zelan deitzen jakon horri bazkarixorri?

-Entierruko bazkarixa. Entierruko bazkarixa.

## 2.6. Umea izandako amaren elizan sartzea

- **Hizlaria(k):** Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-036/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Orduan eliza gogorragoa zen. Umea izandako amak "elizan sartu" behar izaten zuen handik egun batzuetara. Berari sekulako zaratak atera zizkion apaizak protokoloa zuzen ez betetzeagatik.

### Transkripzioa

-Orduan gaiñera neri akordatzen jata elixia... Zelan kanbixauta daon oin elixia! Orduan justizieruaua edo gogorraua zan. Oin libertade gehixao dao elixian. Porrejenplo umia eukitzen genduanian bautizau, ezta, ta gero elixan sartu bihar izaten zan andria. Umia hartu bai, eta bakarrik edo

jeneralmente lagunakin. Kandela batekin joan bihar ziñan. Neri akordatzen jata elizpian. Silla bat ataratzan otsuen ta hantxe belaunbiko orañizo batzuk eitten otsazen. Baten ein neban hanka-sartze bat... Ahaztu jatan neri elizpian egon bihar nitzana. Hartu umia ta sartzen naz barrura. Orrua baten, kanpora urten biotela!, elixara ezin nazela joan. Oin akordatzen jata, gure jangoikuak ze, ze pentsatzen ete jua orduan. Ni elixara sartu ta urtetzeko kanpora. Bai ba, umiakin kanpua egon bihar nitzan. Pentsatzen egoten nitzan, nahikua sakrifizio dok ba umia eukitzia. Noberak umia euki ta oinddiok han horrek sakrifiziuk noberak ein bihar. Gizonak danetik daonaz libre beti!

## 2.7. Zelan hil da Kristo?

- **Hizlaria(k):** Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-036/046
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:06:29. **Bukatu:** 01:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Pazkuazkoa egiteko txartel berdea lortu behar zen. Horretarako, dotrinari buruzko galdeketa gainditu behar. Kristo zelan hil zen galdetu zion apaizak bati. Txiste barregarria.

### Transkripzioa

-Txartela zer zan?

-Paskuazkoa eitteko, berdia. Zurixa ez dakit zetarako zan. Neri akordatzen jata txartel berdian gero, paskuakua eitteko txartela bihar zan, dotriñia jakin bihar zan horretarako. Aintxiñan pasau, hor joianaz lagun bat. "Gure etxian tabarra kristona emoten jostek eta banajoiak paskuakua eitteko txarteletara". "Ene, neuk be eingo neukek ba" ta. "Esango dostak ze preguntatzen duen elixan" ta "bai, esango duat". "Ze pasatzen da?" ta, "hamen nator txarteletara, gure etxian bake txarra dakat eta, paskuakua eitteko". "Hi dotriñatik be ondo egongo haiz?" "Bai, pentsatzen jatak baietz, dotriñatik ondo nagola". "Orduan jakingo dok, eztok, Jesukristo zelan hil dan" eta. "Koño, koño, koño, Jesukristo hilda dagola? Ni ez naz enterau Jesukristo hilda dagonik". "Ba zelan hil dan ez badakik, etxera joan eta ikasi dotrinia eta etorri bixar". Lagunak esan dotsa: "Hi, preguntau..." "Ez dakik asko zer preguntau dosten. Jesus dakitteten zelan hil dan" eta. "Nik gaixorik dagonik be ez juat (etxuat) jakin. (Barreak). Txarteletara joanda.

-Zerak emongo otsen hari txartela.

-Bai ba. Gaixorik dagonik be ez juat (etxuat) jakin eta txarteletara joateko.

## 2.8. Eraztuna euskaraz egiteagatik

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Garro, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti

- **Erref:** ERM-039/009
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Ez ei zekiten erdararik. Don Pacok eraztuna ipintzen zion euskaraz egiten harrapatzen zuenari, eta azkena geratzen zenak zigorra izaten zuen.

### Transkripzioa

- Erderaz izaten zan (eskolia)?
- Bai. Orduan euskeraz genkixan, Ermuko euskeria. Erderaz, ez genkixan erderaz, baiña don Pacok-eta erderaz, liburu guztiak erdraz euazen eta erderaz erok erakusteko, ta erderaz ein bihar alkarri. Eta bata ez badau eitten, bestiak eitten badau euskeraz, euskeraz eitten dabenari anillua sartu. Anillua gero: "honek euskeraz ein jok; honek...". Azkenian anilluakin joaten zanak ba zeoze kastigotxo bat eukitzen eban.
- Erderaz ez eitteagaittik.
- Erderaz ez eittiarren.
- No-noz ipiñi otsuen anillo hori? Ekarri zenduan etxera noz edo noz?
- Neuk ez.

## 2.9. Mutiko bat berarekin enamoratu eskolan

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-040/002
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:02:24. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Plazako eskolara joan zen. Neskak eta mutilak aparte zebiltzan, baina mutil bat berarekin enamoratu segika ibiltzen zitzaion. Umeen kontuak.

### Transkripzioa

- Eskolara nora joan ziñan?
- Ermukora.
- Nun euan?
- Plazan. Bueno, oin frontoia ta horrek; hantxe zan.
- Neskak eta mutilak...
- Bai, neskak eta mutillak aparte, baiña nik akordatzen jata parejatxo bat banekan, mutil bat, bera enamorauta euan eta ni lotsatu eitten nitzan eta martxak eta [...]. Holan.
- Umetan ia enamoramentuek.
- Bueno... Enamoramentuak ezebez, lotsatu. Nik burla ein eta haretxi mutillai, bera mutilla lotsatu ta ni lotsatu ta martxa eitten ta juntau ta, bueno. Umien kontuak.....

## 2.10. Bilboko kartzeletara senideak bisitatzera

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-040/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Hamazazpi urterekin edozer egiteko gauza zen. Bilbora joaten zen preso zeuden anaia eta senideak bisitatzera. Anaia barku batean egon zen preso. Bisita batean anaiarekin izandako gorabeherak. Krispinesiak oparia kendu nahi izan zion.

### Transkripzioa

-Eta salbokondukto horri esker zer egin zeinkian? Norako, nun pasatzeko?  
-Nik ez dakit honako bakarrik zan ala geroko bazan, hori ez jata (etxata) akordatzen ondo. Baiña hori halaxik ein neban. Hamasei urtekin ni nitzan kapaz edozetara fateko, edozein. Eitten neban fan Bilbora, lo ein, bisittau karzelakuak; zelan euazen karzela. Eta gero Luki euan barkuan. Goixao-goixao joan, bisittau harek eta gero barkora Lukigana. Ta baten politta pasau jatan ba. Ba Luke euan barkuan, eta barkuan be txarto berba eitteko, porke illaran gelditzen giñan, eta aa!, ta zarataka. Eta ni barkuan noz joango hara. Emon eitten oskuen permisua sartzeko batera. Ta militar bat hasi jatan lorak botatzen. "A mí tonterías no me digas, a mí déjame hablar con mi hermano a solas tranquilamente porque si no no hablo" Nik pentsauko neban ba? Ta harek militarrek zer ein eban, deittu Lukeni, izena ta apellidua hartu ostazen. Lukiri deittu ta joan, ta ni joateko. Ta joan nitzan eta bixok. Nere poza. "Ene!", esan notsan Lukeni "zelako ederto bixok!". "Ederto? Militarregaz zer darabin hik?". Hasarre, hasarre. Militarrea trataturik ez eukitzeko. Pentsaizu berai ein otsan bentajia, neretako zan poza. Ta oindio militarri kaso eitten. Haxezan txarra berandako. "Militarregaz laguntasuna? Militarrekin? Zer darabin hik?". Ni pozarren, berriz. Bestela [...] bisittia militarraz tratatzia baiño. Nere anaiak.  
-Barku bat?  
-Bai, barko bat euan. Gaiñera han euan Ermuako [...], izena eta apellidua ez jat (etxat) akordatzen, famosua zan, artistia zan. Ta beran barkua ein eban berak. Eurak euazen barkuan, hori..., izena [ez jata] etxata akordatzen oin. Eta euazen barkuan, eta harek ein eban barko bat baiña polittaua!, eurak euazena. Ta ni fan nitzanian bisittatzera emun osten barkua entregatzeko beran familixiai. Ta Krispinesiak ikusi. Krispinesia zuk ez dakizu zein zan. Gogoratzen zara? Zan elementua! Ene, ama! Ze zan ha! Ze zan ha! Ta ikusi ninduanian joan zan kuartelera. Pentsaizu. Ene! Baiña ez osten kendu, e. Nik emon notsen familixakuei ta. Eske iñok be ez ekan sabakonduktoik. Neuk be gaztia nitzalako. Nausixei ez otsen emoten. Ta ibiltzen nitzan edozein lekutara. Nere kapazidadia orduan, ez ostan inporta ez militarrik eta ez iñobez neuria eitteko. Zelan izaten dien gauzak, e.

## 2.11. Aste Santu gogorra

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-040/034
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:55:21. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena:** Konfesatzea asko gustatzen zitzaion. Lasaituta sentitzen zen, pozik. Aste Santua gogorra egiten zen, barau egiteko ohitura zuenez makaldu ere egiten baitzen.

### Transkripzioa

-Bai, konfesionarixotik. Pulpittua be bai baiña pulpittuan danak ekitzen otsen baiña konfesionarixuan zan aste guztietan hantxe, benga; baiña pozarren! Halaxe. Hoixe azeptatzen neban nik ba halaxe dala ta. Konforme. Nahi, gaiñera, konfesatzia, trankil geldittu. Pentsaizu. Oin be trankilao nago gitxiauaz. Baiña "épocas distintas". Diferentiak. Bastante historixa kontau dotsut, ezta?

-Aste Santuan eta, ze izaten zan Ermuan. Aste Santua zelan bizi izaten zenduen?

-Aste Santua? Ba bueno, serixo, serixo. Astelehena, martitzena ta gitxiao, baiña Eguen Santua ta barixakua, horrek zian serio. Nik pentsatzen dot kaxkartu izan nitzala, aiuno batzuk eta! Neu nitzan gero larregi igual, e. Bai, Aste Santua. Konparaziño baterako, egun bi, behintzat barixakua "ayuno; ayuno". "Ayuno" zan afari gitxi-gitxi, armozua be gitxi, bazkaldu dezente. Bai. Hori zan, ba Aste Santua gogorra izaten zan. Gogorra. Neretako, e. Oin, danak ez zian izango igualak baiña. Nik neuk hartzen nittuan gauzak ba, pentsatzen neban, bueno, pues ein in bihar zala. Osea ke. Santidaderik ez nekan baiña pixkat nahi.

## 2.12. Migelito mutilzaharra gorputzari kontra egiten

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-040/042
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:08:02. **Bukatu:** 01:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Bazen mutilzahar xeble bat, gorputzari beti aldrebek egin behar zaiola esaten zuena. Behin, errekako kunbo (putzu) batean sartu zen gorputzari kontra egite aldera, eta ia itoan atera zuten.

### Transkripzioa

-Pertsona barregarririk edo xebeberrik edo akordura etortzen jatzu baten bat hola?

-Klaudio Tontua, zuk ezautuko zenduan.

-Erretratuetan ikusi izan dot.

-A bai? Haxe zan popularra. Tontua, Klaudio Tontua baiña; kalia danaz berbetan eta zerian eta holan. Oin ez dakitt. Beste bat famosua zan mutilzar bat bizi zana, eta esaten eban gorputzari... Zelan zan izena, berana. Migelito. Migelitik pentsatzen dot zala. Gorputzari egin bihar jakola aldrebes. Aldrebes. Bero badakazu... Ez, zela zan esaten ebana. Berak nahi ez badau haxe ein bihar da. Eta egun baten, Matxineneko, ez dakit gogoratzen zaran, kunbua (osina, erreka putzua) euan han, eta emon otsan gogua ez baiñatzeko, baiña gorputzai aldrebes zela ein bihar jakon, baiñatzera sartu zan. Berak esaten eban gorputzari aldrebes ein bihar jakola. Izaten bazan hara fateko gogua, "al contrario". Zan mutilzar bat bakarrik bizi zana. Baiña ein eban baten, horixe. Kunbua ikusi ebanian, "ez nok sartuko, ez najoiak sartzera. Ez jakat (etxakat) gogorik. Ez ba, sartu ein bihar nok ba". Sartu zan gorputzai aldrebes eitteko, estuasun baten etara eben. Ixixa itto. Zan mutilzar bat bera bakarrik bizi zana; Maria Txindurrin amak itxi otsazen kuartua ta zer garbitziak eta horrek. Eta bera zelan espeziala zan, aldrebes ein bihar jako gorputzari, eta zer egin eban? Ez ekan gogorik baiñatzeko eta sartu aldrebes eittiarren. Ixixa ittota. Ittota ez baiña estu etara. Migel zan mutilzar raro bat. Famosua zan, famosua. Aldrebes ein bihar jakon gorputzari.

### 2.13. Gabonetako afaria

- **Hizlaria(k):** Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Miren; Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranberri Odriozola, Fernando
- **Erref:** ERM-173/026
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Intxaur-saltsa prestatzerako orduan kantuz aritzen ziren. Familia bati buruzko anekdota kontatzen du. Bixigua etxe guztietan jaten zuten. Gerra garaiko gertakizun bat kontatzen dute. Olio-azak jaten zituzten gabonetan.

### Transkripzioa

- Miren: Ba "bueno ama", bueno, danak dia itxuria zaharrak guk esaten doguzenak eta.. bueno...

- Eta noiz hasten zarete...

- Mi.: Eta "txistiak esan bihar douz" ta "¿Vas a contar los de siempre?", [...].

- Noiz hasten zarete kantuan gabon gauean, adibidez? afaldu ta berehala?

- Maria: Afaldu ta berihala.

- Mi.: Bai! Buenooo! Lehenau ba intxor-saltsia itteko prestatzen.

- Ma.: Goixaldera...

- Mi.: Badakizu, zerak, intxorrak apurtu, apartau ta holan zerekin kirri-karra...

- Ma.: Botilla batekin...

- Mi.: Ta harek itten ba kantuan egoten giñan! kantuan beti! beti kantuan.

- Ma.: Ta esaten dotsut, ba, gure auzokuak ze itten eben. Ba aitta... aittakin bizi zian seme-alaba batzuk; amarik ez eken, hilda gaztetan. Ta aittak intxaurrak eta sagarrak ba zakutxo batzuetan goiko laratzian esegitta eukitzen zittuan. Ta gabon egunian aittak ya subilak-eta preparatzen zittuan, sua eitteko, beheko sua. Ta esaten otsen seme-alaberi: "Bueno, gaur berakatz-saldia bakarrik bazkaltzeko". Ta, ba, zain egoten zian anai-arrebok, aittak noz bajatuko harek intxaurrak eta sagarrak, zuritzeko, konpota eitteko sagarrekin. Bostak aldian-edo bajatzen zittuan eta kutxillotxu bi zorrotz-zorrotz einda emoten otsezen seme-alaberi, azala kentzeko sagarreri. Aittak esaten otsen: "Honek zorrotz-zorrotzak daoz ta kontuz, e! Azala mehe kendu gero sagarrari! Ta Balbina zan, ta Julio zan anaia. Ta Balbinak kontatzen eban: "Gu berakatz-saldia janda bakarrik gosiak egoten gintzazen ta harek sagar-azalak danak jaten giñuzen, Juliok [...]".

- Dena gutxi, ezta?

- Mi.: Jatekua be dana zan diferentia.

- Ma.: Buenooo...!

- Mi.: Bixigua etxe... leku guztietan eoten zan, ez zan oingo moduko karua. Ba ez dakit... Neri akordatzen jata gerra-denporan hamen frentia euan, ezta? Eibartik honutz giñan alde batekuak eta Elgoibartik harutz... Ta gure aitta, zelan hona arraiñik ez zan etortzen -Gabonak pasau genduzen gerratian-, ba Durangora jua zan oiñazian, bixigua ekartzera. Ze hain zan inportantia bixigua jatia! Eta hainbeste bixigukin oiñez etorri zan. Orduan ez eguan [...] gerra-denporan geuzen, ta...

- Eta jokuan egiten ahal duzue?

- Mi.: Buenooo!

- Ma.: Bai, oin be eitten dou ta! Bueno, jokuan...! Ta orixo-azia zan beste gauza bat.

- Mi.: Baitta.

- Ma.: Gure ama hasten zan, Arrate... Nik Kepe nekan aizta bat, Kepe eban izena. Ta... Jatorra zan, e! Bueno..! Jatorra! Ta gure ama hasten zan, ba, sukaldia jaso bazkalonduan ta ontzixak garbittu ta dana ta azak txikitzen. "Ene, amaa! -zenbat bider esaten otsan- Ene, amaa! Gabonak eta... azak jan bihar douz?!". Ba bostetarako hasten zan orixo-aziori ipintzen; ba seiretarako, 8retan edo 9retan jateko, mela-mela. Ene! orixo-aza bako etxerik ez euan! Ez, orixo-aziori...

- Mi.: Ointxe be badaoz, e? Nire lehengosiña batek esaten dau bere seme-alabak derrigor biher izaten dabela: "Ama, hori ez laga ein barik, e?" ta olixo-azia beti jaten ei dabe, ointxe be bai.

- Bai, lehentxoago ere hori esan diguzu, bai.

- Ma.: Bai. Gure... zera, nik alaba bat Vitorixan bizi dot, Maite, ezta? Ta haren gizona, ba esan dotsutena, haxe rubixua, ta harek esaten dotsala beraaz ezkondu zala. Ba harek urtero ipintzen dabe, bai Gabon egunian eta bai Urtebarri egunian, e? Orixo-azia beti-beti-beti.

### 3. Baserria

#### 3.1. Baserri-giroa Ermuan

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-001/017

- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Duela berrogei urte ere baziren ganadudun kale-baserriak Ermuko kalean. Haien lekuan bankuak daude gaur egun.

### Transkripzioa

-Oinndiokan gerra ostian be ezagutu zenduen basarri girua.

-Bai, bai, hoixe, bai. Basarri girua? Otxoanekuan ostatuko aurrian euana, ni ezkondata, berrogei urte dittuk, oin berrogei urte be, garirik ez, baiña behixak eta bai. Urten eta soltautakuan zelaira eruateko ta, Ermuko kale prinzipala haxe zuan, Ostatuko aurria. Ba ointxe udaletxia daona. Zera kalia dok udaletxia, elixia, ta Bilborutz beran bidia, hoixe kaliori, Valdespina. Ganauak soltatzen zittuenian, behixok soltatzen zittuen eta. Ganauak be kanpora urtendakuan segiduan plis-plost, plis-plost, plis-plost, dana tortilla lagata kaliori. Hori ointxe hogeta hamar bat urte arte edo ganauak egon dittuk Ermuako kalia. Ordurako Anton Atxa ya aldeta jauan baiña Motxunian baitta, Motxunian hor ba hiru basarri jeuazan hor bertan. Hortxe kalia. Ta goratxua Torreta. Eske Ermua...

-Eta oin ixa danetan esaten moruan bankua. Motxunekua edo zelan esan dok?

-Bai, han be bankua. Ta bestian be bankua, ostatuan be bankua. Danian. Torreta be Caja de Ahorros.

-Anton Atxxak ez jakixat (etxakixat) berak dakan.

-Anton Atxa be bankua. Banco Vizcaya, lelengo ein ebena. Banco Vizcaya, ta kaja ahorrosa baitta.

-Basarritar guztiak bankero orduan.

-Basarritarrak ez, bankuak harrapau, klaro.

### 3.2. Suegurra eta egurrikatza

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-001/025
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:43:22. **Bukatu:** 00:45:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Egur-saltzaileak Eibarrera. Gerra inguruan agertu ziren ekonomiak. Egur-ikatza ere erabiltzen zen erregai gisa, baina ez sua egiteko, garestia zen eta. Plantxarako, tailerretako sutegietarako eta abar erabiltzen zen. Txondorrek ezagutu dituzte inguruko basoetan.

### Transkripzioa

-Egurretara be, sua eitteko egurretara be basora. Benga!

-Makiña bat buelta ein juan Untzaman Fedek, mekauben diez.

-Bai, danak.  
 -Hamalau edo hamabost urte arte, latigo!  
 -Ermuan egurra saltzailliak be bajauazen, Eusebio Ureta ta. Horrek sutarako egurra preparau ta Eibarrera joan eta saltzen eben harek. Iketza be, iketza be gitxi. Eske egurra zuan ona ekonomikiandako ta. Ekonomia be orduantxe, gerra inguruan hasitta, e. Aurrerao danian su bajua. Eibarrera egur saltzera.  
 -Nere andrian gizonak, Malkorra, hil ein zuan. Ikatza be eitten juan mendixan, "carbón vegetal". Hor Untzaman eta.  
 -Baiña carbon begetala karua urtetzen juan.  
 -Giputxa zuan eta. Mendixan ibilittakua bizi guztian.  
 -Baiña iketza, egur-iketza karua sua eitteko. Ha plantxia eitteko ta. Plantxiandako ta eitteko. Inddarrik be ez jauan (etxauan) ba.  
 -Taillerretarako ta, fraguetarako.  
 -Suteixak, suteixak berotzeko, taillarretarako. Oin soziedaderako bakarirk usatzen dok, txuletak erretzeko ta, baiña...  
 -Ezagutzen zenduen hemengo mendixetan Ermuko jenderik iketza egiten?  
 -Bai. Honen suegrua be baitta, ta asko.  
 -Baiña normalian eitten zan basarrixetan eta?  
 -Hamen Hanbrekuak igual ingo juen.  
 -Gurian aittittak eta be eitten juen. Basarrixetan-eta iketza eitten zuan baiña gitxi. Eske erropia plantxatzeko be jeneralian, zela suakin berotu, iketza ipiñi barruan eta tximinixiak erre bidebatez. Ta hortarako basarrixetan itten zuan, nik asko ezautu juat txendorra eitten, bai.  
 -Hamen Hanbre gaiñian daon basarrixa, saltzen dabena, zelan dittuk horrek?  
 -Mardua.  
 -Harek asko saltzen ebala hori. Seguramente lehenao berak eingo juan mendixan.  
 -Eingo juan.  
 -Gaur egunian ekarri kanpotik, baiña... Lehenao berak eingo juan seguramente.  
 -Bai.  
 -Urte asko dittuk harek gurera be ekartzen ebala, taillerreko sutegirako ta. Asko.  
 -Bai, lehenao asko, baiña garesti urtetzen juan etxietarako. Etxian jentia egurra.

### 3.3. Baba gorria eta morokila oinarrizko janariak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-002/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Eguerdian baba gorria eta gauean artoa eta esnea edo morokila jaten ei zuten egunero. Txerriak ere jaten zen.

#### Transkripzioa

- Amana kontau dozu ta, aitta, aitta be ezauna zan, ez?  
 - Bai!

- Famosua.

- Bai. Aitta estaziñoako mozua zan. Orduan, ez euan..., bueno, jenerua trenian etortzen zan, kajak, txinbuak edo zerak, ta nere aittak astotxo bat ekan karro batekin eta berak partitzen zittuan dendetara-ta horrek gauzok. Ta ondo bizi giñan, bai. Ortu ederra genkan ta, bueno, ba, patatia ta berduria ta ortuko gauzak eukitzen genduzen. Ta nere ama oso andra ordenadia zan. Jeneralien, gabian, morokilla itten zan afaltzeko, ondo egosittako morokilla. Artua eta esnia be bai, e? Bai. Orduan horrek ziran janarixak. Gabian beti... baba gorrixa eguardixan. Kajoi baten egoten zan ta katilluakin hartu ta babiori egosten ipini ta urdaixa edo... etxian euan gauzia zeozter sartzen jakon/sartzeakon/ ta... hazi giñan! ondo!

- Ze izaten zan jatekua orduan? Baba gorrixa?

- Baba gorrixa, ta gero berduria be ipitzen zan, azia edo, berduria be ipintzen zan. Baiña gabian beti artua eta esnia edo morokilla. Bai. Esnia ugari egoten zan, ta haxe izaten zan jatekuori.

- Okelarik eta txarrikirik eta...?

- Bueno, jaixegunerako okelia zapatuetan-ta erosten zan, txarriki gauzia edo hori be jaten zian, bai. Baiña oingo moruko lujorik ez euan, e! ez, gitxiaurik be ez. Oin kapritxo guztietara bizi gara danok, e! Bai, baiña ondo, ondo, ondo ko...

### 3.4. "Lau esku banekaz..."

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-040/019
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:26:44. **Bukatu**: 00:28:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Janariz beteta joaten zen Bilbora. "Lau esku banekaz..." esaten zion bere buruari, gehiago eroan ahal izateko. Kartzelan egondako senideak. Emaztea bisitara joan eta haurdun geratu zeneko istorioa.

#### Transkripzioa

-Esan dozu eruan egiten zenduzela gauzak.

-Jatekua, bai. Akordutzen jata guardazobillak estaziñuan, ya honek kentzen dosten eta. Begiratu osten eta. Esaten neban nik: "lau esku banekaz danendako eruateko..." Nekan jatekotan, eta eruatia. Ta begiratu osten eta, ze ingo ete doste honek. [...]. Eta esan osten: "Hola, dónde son?" "Para los presos" "No comen mal los presos". Nik kasorik be ez. ixil-ixilik, pozarren laga ostenian, kendu ez ostazentian... Baiña esaten neban "lau esku banekaz" Bat bete, bestiai ta danai eruateko. Ez ostan inporta... Zelako gauzia, e . Halako gazterik eta.

-Zenbat jente, senidiak edo?

-Bai. Tia anbrosia be egon zan kartzelan. Tia Ambrosia be egon zan, hareana faten nitzan. Gero mordua, mordua, familixakuak. Zera, Maria Txindurrin gizona. Ta gaiñera polittena izan zan, Maria Txindurri ta, zera, gizona bakizu, ezta, ze pasau zan? Bitorixan euazen, bai, eta lagatzen otsen andriak faten dienian lo eitteko. Eta joan zan lo eittera andra-

gizonak, eta ez zan ba geldittu estaduan; kartzelan euala. Begoñita, Begoñita, azkenengo umia. Karzelan estaduan, kartzelan egun bat edo laga eitten otsen andriaz pasatzen, eta hor nun geldittu zan estaduan kartzelan. Kartzelan gizona eta estaduan bera. Zelako gauzak, e. Maria Txindurrik asko pasau dau, asko.

### 3.5. Gari-jotzen Ermuko kalean

- **Hizlaria(k):** Izarra Larrea, Fidel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-041/034
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:07:45. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Ermuko kaleko baserrietan garia jotzen zen, festa bat bezala izaten zen haurrentzat. Ermuko zein kale-baserrietan jotzen zen garia esaten du.

#### Transkripzioa

- Orduan garixa jotia, garijotia eta orduan festejuak izaten zian, gari-jotia. Hamen Montxunian, gure onduan. Gero Trakenian, Santukuan. Han plaza moduan etxe aurrian ipintzen zittuen gari pilluak eta. Gero, lehen, gaiñera eskuz jotzen zian, baiña gero ez; makinak etortzen zian eta ha basarri-basarri ha makinia ibiltzen zan. Ba oin hau basarrira, gero Patakoniara edo han zerera, baiña... Betiondora; baiña hamen gure inguruan Orozkonekua, Santukua, Trakenekua. Hamen Motxunekuak. Honek herri barrukuak lagundu pixkat zerak kendu. Bai ba. Lastua kendu, gora igo edo. Orduan zeozer traba eitten genduan behintzat han.

## 4. Politika

### 4.1. Jate aldera lan

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Atorrasagasti, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-001/020
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:33:06. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Oso erraza zen garai batean lana topatzea tailerretan. Baserrietan ere zenbaitek tripa-truke egiten zuen.

#### Transkripzioa

-Eske orduan taillarretan eta be izaten zuan faltia. Esku-biharrerako, taladruan edo bestian eta. "Etorri hadi arratsaldian". Goizian joan biharrik daon, eta "etorri hadi arratsaldian". Normala zuan hori orduan. Bajauan

biharra, eitteko gogua ekanak behintzat. Erozeri heldu, honbre, dudarik be ez ba, honek, e...

-Gaiñera hemen jendiak ez eban eukiko dirurik sobra, baiña kanpotik zetozenak oinndiokan gitxiao.

-Gitxiao, klaro. Orduan dirurik ez jauan (etxauan) iñun be. Baiña jatiagaittik, bueno! Baso garbitzera ta, basarrira neri, gurera akordatzen jatak, Ermutik joaten zittuan hiru lagun normalmente, sarrittan. Domeketan joan eta goizetik biharra ein baso garbitzen, eguardixan baba- jan bat edo bazkari bat ein ta atsaldian be biharra. Ta illuntzian berriro afari merixendia ein eta etxera. Dirurik ordaindu barik. Eske tripa betetze alde. Jentia, orduan jatekoa ta ogixa zuan eskasidadeik haundiña.

#### 4.2. Karlistak, bizkaitarrak eta errepublikanoak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-002/033
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:50:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
  - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Karlistak eta bizkaitarrak (nazionalistak) zeuden Ermuan, eta beti borrokan, nahiz eta gero elkarrekin dantzan egin. Eibarren baino lehenago Ermuan ipini ei zen bandera errepublikazalea. Droget izena zuenak jarri ei zuen. Estik kontatzen du bezperan joan zirela Ermutik Eibarrera esanez Madrilen errepublika aldarrikatu zutela.

#### Transkripzioa

-Gerra aurrian be politikia...

-Bai. Eneee!, orduan karlistak eta bizkaitarrak zien Ermuan. Beti burrukan. Baiña gero gabian beti egoten zan plazan, bandia euan Ermuan, ta alkarrekin dantzan be bai, e. Baiña beti burrukan, e, karlistak eta bizkaitarrak.

-Benetan burrukan?

-Benetan burrukan. Benetan burrukan, bai.

-Eta sozialistak bazeren Ermuan?

-Bueno, ez. Karlistak eta bizkaitarrak. Soizialistak Eibarren euezen. Esaten dotsut ba, nik sozialistia euki neban nobixua ta, amak esaten ostan "atrebidu eitten haz sozialista batekin ezkontzen?" Ja-ja.

-Zergaitik? Sozialistak zelan ikusten zien?

-Elizian kontrarixuak zien eta. Horixe eken zeroi. Kontrarixuak.

-Ta republikanorik-eta baeuen?

-Bai, bai. Droget. Ez zenduan ezagutu zuk Droget?

-Ez, ez neban ezautu.

-Republikanua zan. Haretzek lelengo republikako banderia, Eibarren eta baiño lehenao Ermuan ipiñi zan. Haretzek, horretzek, Drogetek.

-Ez esan honi hori; Eibartarrei esan bihar jakue hori, Maria.

-Republikia Eibarren baiño lehenao Ermuan?

-Ermuan.

-Zelan da hori ba?

-Republikako bandera gorrixa Ermuan lehenao etara zan Eibarren baiño.  
 -Eta honek zelan dakarre ba famie? Beti esaten da Eibarren ipini zala...  
 Zeiñek ipini eban ba Ermuan?  
 -Ba horretxek, Droget esaten dotsutenak.  
 -Hor historixa bat kontatzen da Droget eta beste batzuk joan zirala Eibarrera edo. Hori badakizu zuk historixa hori?  
 -Ez, ez. Ez dot sekula entzun.  
 -Nik be entzunda, republikia proklamau zanian hemendik Droget eta beran lagun batzuk Eibarrera joan ziala eta holakoren bat. Baiña ez dakit zela zan.  
 -Ez dakit. Neuk be ez dakit.  
 -Margaritak kontatzen dau. Bai, bezperan, banderak hartu ta Eibarrera joan zien klarinetiaz, klarinetia jotzen eta. Eta gero ba han Madillen eta erregioi edo hondiño Madrilletik joan barik euela urten eban, eta tolostu barriro banderok eta, fi-fi!, isil-isilik danok etxera barrido.

#### 4.3. Gerra hasiera

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-033/002
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:00:45. **Bukatu**: 00:03:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: 11 urte zituelarik, geltokian jolasean zebilela entzun zuen gerra irten zela. Usansolora joan ziren hasieran anai-arrebak senide batzuen etxera. Ermura itzuli. Arrosarioaren istorioa. Bonbardaketak erori bezperan. Ermutik Ibarrangelura.

#### Transkripzioa

-Ta ni gogoratzen naiz, ba, gaztetakuak gauza asko, baiña gerria urten ebanian, ba, egun baten egon nintzan estaziñuan, betiko bezela, jolasian. Ta etorri zan —Eibartik etortzen zan hamabixetan— trena; ba, basarritarrekin ta lanetik eta holan. Ta batek —[Ezkurdia] zan izena ta— esan eban eze, beste bateri esan otsan: "Badakizue gerria gertu dana? Ha estallado la guerra". Ni jua nintzan etxera ta: "Ama, esan dau [Ezkutiak] bateri gerriak urten dabela", "Zer esan dozu?" ta "Bai, horixe esan dau". Ta efektibamente orduaintxe zan gerriari urten ebana. Ta gero, ba, gerratixan, ba, gu alde baten geldittu giñan, ta gero etorri zan "avanzada" bat, ba, Arratera arte. Gure aittak eta amak, zelan erromaretan-ta lanian euazen, ba, aittak esan eban: "Bueno jua...". Ta jua giñan Usansolora. Usansolon ekan amak aizta bat hango jefiakin ezkondata, ta Usansolon egon giñan egun batzuetan. Ta orduan, ba, gertau zian, ba, Arratera arte etorri zian. Ta Arraten geldittu zanian ya zera, gerria edo frontera edo hor, ba etorri giñan atzera Ermura. Ta gero, ba, bueno... ba, ebillen dana zerak, honek, gudarixak eta FAI ta CNT eta horrek, behe aldetik etorri zianak. Baten —akordatzen jata— batek emon ostan errosarixua. Errosarixua ikusgarrixa emon ostan /emostan/ batek, eta esan ostan eze: "Esto ha sido de una señora de Irun, porque resulta que salió de la iglesia y se le cayó. Y yo le quería dar y le decía ;señora, señora! Que es suyo esto , esto es suyo. No me quiso ni oír. Y por fin cogí y ahora para tí" esan ostan. Ba eukiko nittuan orduan nik hamahiru edo hamabi urte edo holan. Ta, bueno, hantxe egon

giñan. Gero gerra... bonbardeuan bildurra ta abar, ta sartzen giñan elizan, kanpantorrera-ta juaten giñan ta bueno, holan. Ta gero, ba, etorri zan zera, abanzadiori; Elgetan apurtu eben frentiori. Ta guk genkan sukaldia-ta behian eta goixan dormitorixuak, kuartuak, ekazen. Ta gaba bat pasau genduan, ba, bapez ona; ze gudarixak ekarri zittuen gure sukaldera ta uluaka ta, badakizu, heriduta-ta ekarri zittuen. Ta aittak esan eban: "Bueno, juan ein bihar dozue hamendik, e", ta juan giñan Ibarrangelura, nere ama, ba, danokin.

#### 4.4. Batzokia "botín de guerra"

- **Hizlaria(k)**: Idigoras Arzuaga, Joseba Gotzon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-038/029
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:49:22. **Bukatu**: 00:50:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera  
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena**: Batzokia "botín de guerra" deklaratu zuten eta Armada eta Guardia Zibila egin ziren haren jabe.

#### Transkripzioa

-Gu ondo bizi gintzazen batzokixan gauazean. Baiña kendu oskuezenian danak, batzokixa ta dana kendu oskuezenian, ein eben, batzokixa ipini eben "como botín de guerra". Txarrixak zer zien, e! Deklarau baeben "esto hemos cogido", bien. "Pero no, como botín de guerra. Y al poner como botín de guerra, ni el ayuntamiento de Ermua ni nadie. Sabes quién? El ejército y la Guardia Civil.

-Jabetu zien?

-Jabetu zien. "Y a joderse".

-Eta zeñek izendatu eban botín de guerra?

-Eurak.

#### 4.5. Errepublikaren aldarrikapena Ermuan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Garro, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-039/011
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:12:14. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Gogoan du eskolara zihoala nola ikusi zuen Droget udaletxeko balkoitik txapligua botatzen errepublika aldarrikatu zen egunean. 1933an eman zieten andrazkoei boto eskubidea. Ermuko emakume baten adierazpenak.

### Transkripzioa

- Eta nik gauzak akordatzen jatazenak, sei urte nekazela proklamau zan Ermuan "La Segunda República, el 14 de abril del año treinta y uno". Ta ointxe be ikusten nago aiuntamentuko balkoittik Drogetek zelan txapliuak botatzen ibili zan. Txapliuak botatzen. Haxe dakat nik; ni eskolarako..., oinddio Eskola Txikixan nebilen, Eskola txikixa esaten gontsan. Hantxe, eta Drogetek aiuntamentuko balkoittik benga txafliuak botatzen.

- Haxe dakazu.

- Txafliuak. Eta gero gorrixak "el año treinta y tres" be, zelan andrazkuei emon otsen botua -andrazkuak ez eken botorik "hasta el año treinta y tres"- . Ta Lukrezia [...]nekua, Eizagirre. "Hamen nago hamen, andrazkuak be hamen gaozak gu", plazan erdi-erdixan jarri ta. "Hamen gaozak andrazkuak be, oin arte ez juau (etxuau) euki baiña oin hamen jakau!".

- Pozik androk.

- Horrek gerra aurrekuak. Gero gerria etorri zan eta ez eskola eta ez prozesiño.

#### 4.6. Karlistak eta bizkaitarrak beti eztabaidan

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi, Agus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-040/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
  - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Karlista familiako laguna zuen eta bera nazionalista zenez, eztabaidan ibiltzen ziren eskolan. Ermuan beti borrokan ei zebiltzan nazionalistak eta karlistak.

### Transkripzioa

-Maixuak, maistrak...

-Maistria Doña Paca. Zela zan? Bai, maistria Eibartik etortzen zan. Nausixa zan eta, neri ule-hartze asko eitten ostan. Porke berak ekan loiba bat beraaz bizi zana politiko, PNV edo ez dakit nik zer giñan, umiak giñan ondiok eta. Baiña karlistak eta bizkaitarrak. Bene zerekua, plazan bizi zana, eta ni lagun haundixak giñan eta harek zien karlistak eta ni bizkaitarrak. Eta ez genduan eitten ezebe ta beti diskusiñuan. Ta egun baten etorri zan esaten, aizta nausixa ekan eta: "jesus, neska, hori zure laguna Agus hori ondo politikoa da!". Nik politikua ze zan be ez nekixan. Ta pentsaizu. Etorri zan esaten eta "kontuz ibili biharko nok ni honegaz", porke aizta nausixak txarto irizten badotsa ba... Osea, umiak baiña geuk, e... Karlistak eta bizkaitarrak, e, karlistak eta bizkaitarrak. Umetatan.

-Bizkaitarrak?

-Bizkaitarra zan "nacionalista". "Bizkaitarras", izena holan zan, baiña "nacionalista" eta harek zien karlistak. Izaten zan burruka bat Ermuan karlistak eta bizkaitarrak, terriblia. Burrukan eitten eben. Botaziñuetan eta, neri akordatzen jata, horrek eskillara batzuk plazara fatekuok, bolarak etortzen zien eta zer eta burrukan karlistak eta bizkaitarrak. Ta ni bizkaitarra nitzan ta laguna karlistia. Ta bueno. Aittu ezebez, baiña...

#### 4.7. Urkoko "funikularra"

- **Hizlaria(k)**: Izarra Larrea, Fidel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-041/018
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:30:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Urko mendira funikularra ipini zuten materiala igotzeko; baina, estreinatu zuten egunean, abioiek bonbardatu eta hautsi egin zuten. Kanoiak zeuden Urkon. "Funikularra" nolakoa izango zen eta "txirrika" zer den.

### Transkripzioa

-Hor Urkora ipini eben funikularra, hortxe zeretik, Malengoneko baiño lehenao, hantxe kantera onduan funikularra. Ba funikularra estreiñau eben egunian etorri zian abioi batzuk eta jota dana apurtu eben zeroi, funikularroi. Bobardeua egon zan, bonba batzuk bota zittuen eta, ya segiduan... Azkenako egunak zian orduan.

-Nun ipiñi eben funikularra?

-Funikularra ipiñi eben, Urko Bekuan. Oin Urko Bekua ez dago, ez da agertzen. Ta hamentxe behian, hor Olkinzuri esaten gentsan guk, Okinzurittik gora ein eben Urkora materixala jasotzeko. Porke han Urko Goixan euan zera, kaiñoiak, Arratera begira. Arratetik euazen hona begira, ezta, baiña hamendik Arratera. Ta hor materixala jasotzeko, porke bestelan hamendik jasotzeko Urko Goikora... Urko Goikora ez, Urkoko puntara, ipini eben funikular bat. Baiña ez dot pentsatzen zertu zanik. Orduan segiduan etorri zian..

-[...]

-Kablia edo, zer bat. Guk funikularra esaten gentsaun baiña itxuria karrete bat edo holan poste batzuk ipiniko zittuen. Porke guk ez genduan.. Bai ba, horretxek obusak, balak eta jasotzeko.

-Muniziñua, ezta?

-Muniziñua, klaro

-Ez zan gutxi kostako orduan denporan holako funikularra...

-Bai ba. Funikularra... Ez, baiña postiak eta kabina batzuk holan zeoze txirrikiakin edo izango zan, baiña ez zan zertu.

-Txirriki zer da?

-Txirriki, oin hamen andamiuak ibiltzen dabe ba. Horrek eukitzen dabe zer bat, errobera bat, "txirriki" esaten gentsaun guk horreri. Orduan txirri eingo eban, ez dakit zeregaittik [esango zan] txirriki. Polea batzuk, baiña burdiñazkuak. Polea kanala einda, kablia joango zan eta.

## 5. Familia eta harremanak

### 5.1. Nobio sozialista Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/002
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:01:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Maria dependienta egon zen Eibarren denda batean, eta nobioa eibartarra izan zuen, sozialista, Bueno familiakoa. Jende ona.

#### Transkripzioa

- Esate eutzut dependienta egon nintzan denda baten urte mordua ta nobixua nekan Eibartarra. Buenonekua, buenotarra, gero horrek taller batekin eh artasixak eta eitten zitxuen ta Logroñora joan zian horreaz fabrika horreaz ta nik (hangotxe) anai bat nobixua nekan ta socialista gogorak zian, ta Neri amak esate oztan " Neska atrebidu itte haiz socialista batekin ezkontzen?" Bai, baiña jente ona zian ta gero, horrek Logroñon dake oin fabrikia, artasixak eta eitten zitxuen, kutxullo txixiak eta...

Buenonekuak eta gazte denboran ba hantxe egon nintzan Eibarren.

### 5.2. 'Txindurri' ezizena

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/004
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:02:35. **Bukatu**: 00:03:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Amama "batzaillia" ei zen, gauzen gordetzailea, horregatik jarri ei zioten Txindurri gatzizena. Eta harrezkero familia osoari Txindurri.

### Transkripzioa

- Baiña zu jendiak ez zaittu ezautuko Bengoetxea izenakin, ez?
- Ez. Maria 'Txindurri'. Nere aittari Txindurri esaten otsen, esan dotsut ba. Ama ei zan, nere aittan ama ei zan batzaillia. Neguan eta, urabarrizan eta, urazkenian eta, beti sagar usteltxuauak bazien be, aunke sea haxe ustel atala kendu ta gorde, gordetzaillia. Eta horretxegaittik esaten otsela 'Txindurrixa'. Txindurrixak be negurako kosetxia eitten ebala ta. Hortixek datorrela esaten eben horren izena.
- Gatzizena amamana zan.
- Amamana.
- Gero zure aittak eta...
- Bai. Geu be ba 'Txindurriñekuak'.
- Ze urtetan jaixo ziñan, Maria?
- Seis? El año seis?
- 1906, ezta?
- 97 egin behar dozuz hamabost egun barru?
- Bai. Eta bueno, trikili-trokoluak asko euki douz munduan. Gerra-denporan guk asko pasau genduan.

### 5.3. Kepe izena ahizpa batek

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/008
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:06:29. **Bukatu**: 00:07:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Familia pobreakoa zen Maria. 13 anai-arreba ziren, orain bera bakarrik bizi da. Ahizpa batek Kepe zuen izena (Petra), izen euskalduna eraman zuen Bizkaiko lehena omen.

### Transkripzioa

- Oin baiño pobriau e... ! Orduan, bueno, pobre geu be familixia. Nere amak hamahiru ume euki zittuan, e! ta neu bizi naz bakarrik. Beste aizta bat neri... Kepe eban izena. Euskal... lehelengo euskal izena haretzek euki eban: Kepe.
- Ermuan?
- Ermuan. Ermuan ta Bizkai guztian, e!
- Bai, e?
- Bai.
- Bai, e? Bizkai guztian, e? Nik [...] pentsatzen neban.
- Kepe, Petra da.
- Bai, Petra. Klaro bai, Petra.
- Petra.

### 5.4. Solozabaldar pilotari asko

- **Hizlaria(k)**: Solozabal Areitio, Alex
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti

- **Erref:** ERM-025/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Aita ere pilotaria zuen, palaria. Osaba bat, aitaren anaia, puntista. Alexek Habanan eta Mexikon jokatu zuen, besteak beste. Ameriketako Solozabal II.a zen, hemen berriz Alex. Anaia Migel Solozabal I.a zen.

### Transkripzioa

-Aita pelotarixa zan?  
 -Bai, palaz jokatzen eban, palaz.  
 -Eta ze ezizenekin edo zelan? Solozabal Primero edo?  
 -Solozabal, Solozabal. "Y tenía un tío que era Solozabal, hermano, que aquel jugaba a cesta".  
 --Zu beti izan zara Solozabal?  
 -Bueno, Ameriketako Alex, ta hamen ya Alexekin jokatzen neban. Habanan eta Mexikon Solozabal. Solozabal Segundo. Beste anai bat nekan han Mexikon jokatzen ta "Primero" zan ha.  
 -Zein zan anai hori?  
 -Migel

## 5.5. Eztabaida gogorak afari orduan

- **Hizlaria(k):** Izagirre Garate, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-029/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:27:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Neskameak ere familiarekin jaten zuen. Anaiek eztabaida handiak izaten zituzten. Aitak ukabilaz mahaia jotzen zuenean, denak isil-isilik.

### Transkripzioa

-Ba etortzen zan (aita) trenian zazpitterdian eta zortzirak arte pare bat txikito hartuko zittuan. Zortzietan "el padre era así, como un coronel", puntual-puntual, hamabi lagun. Gure aittak euki dau..., geunkazen kriadia orduan, ta ez eban, sekula ez dau permitidu gure aittak kriadia ta bestiak aparte zertzerik, jaterik. Geurekin danak jaten eban, beti, hortan demasa izan da. Harek danak igual, etxeak danak igualak gara hamen. Hamen jartzen zan [mahixa] haundi bat, ni eskuman amakin, ezkerrian beran zera, beran arrebía. Ta gero tia Luisa, ha a su cuenta ibiltzen zan ha, ha zerbidu ta bestia ta ibiltzen zan. Bera ibiltzen zan, Tia Luisa ez zan jartzen jeneralian. Jeneral orduan pasatzen zan, ekin otsen, "gaur makinia" ta ez dakit zer eta hau eta bestia. "Keba!, harek ez jok (etxok) euki ta", ez eta..., diskusiñua ta. Gu txiki-txikixak orduan eta billurretan. Ta sarrittan pasatzen zan, berotzen zian eta gure aittak laga eitten otsen diskutitzen, laga eitten

otsen. Baiña legatzen zan momentu bat, eta gure ama, itxuria..., neri hori akordatzen (j)ata zeu ikusten zaittuten moduan ointxe. Holan eitten otsan: "Patxiko -holan eitten otsan aittari, Francisco zan, ta ama Eskolastika-. Ta "Patxiko", holan eitten otsan eta. Raaa, boum! joten eban eta "ala, jarri danok!". Da! Jota sillia be apurtu eitten eben ipurdixakin; jartzen zian, e. Akabo diskusiñua. Amak ikusten ebanian beroeigi..., joten bahaut eta bestia ta; badakizu, sasoa eukiko eben orduan hogetaka urtiak, hogeta hamar edo ta. Mekauben hango..., mekaubenak be igual eta. Gure aittai ez jakon (etxakon) gustatzen hori, maldiziñoka sekula be ez, sekula ez dau bota maldiziño bat harek. Eta, dra!, eta gure amak, edarto, silencio, buu... Ni txikixa orduan eta billurretan anaiak burrukan eingo dabela euren artian eta, ez dakizu? Billurretan eta zerian eta. Bueno. Ni, sarrittan bero-bero einda, eta bueno; "emoten baduat arpegiko bat" ez dakit zer eta. Baten akordatzen naiz Arantxan aitta jaiki ta: "emoidak eta". Ene!, ni estu ta. Joan amari esaten moduan eta. Amak "Patxiko, zer?" Dra! jo eban eta, "jarri hamen, danok". Jarri zian bixak eta. Silencio. Gero ekin etsen pixkat berbetan, baiña...

## 5.6. Ama eta anaien piano eta biolin kontzertuak

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Garate, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-029/013
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:27:52. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Afaldu ondoren, gora igo, amak pianoa jotzen zuen eta anaiek biolina. Kontzertuak ematen zituzten; eta bera, mutiko txikia, lurrean jarrita, entzuten.

### Transkripzioa

-Después [...]. Gero zan obligaziñua danak bazkaldu ta, edo afaldu ta kafiatesnia hartzera, jeneralian, danak kafietasnia hartzera. Honek nausixak igual kafia hartzen eben bakararra, Estebanek eta nere anai nausixak igual kafetxua hartzen eben, bere kopatxo batekin igual eta. Hartzen eben eurak eta bueno. Ha akabatzen zanian, lelengo pixura ez, komedorera, ama jartzen zan pianuan, ta Jemenen aitta eta gure aitta bioliñakin. "Y a tragar todos los Beethovenes y todos los Rigolettos y toda la pesca allí". Ni lurrian jarritta, makiña bat bidar, ene!. Rigoletto eta zenbat bidar neuk bakarrik kantau dittuten. Entzun eta entzun eta entzun hantxe. Klaro. "Y nada, despues ya cuando terminaba, bueno, akabatzen zan eta ya nausixak ya beratzirak, urtetzen eben beste pixkatian eta beste kafetxo bat hartu ta etxera segiduan gero. Goixao jaiki bihar izaten zan eta. Hori izaten zan gure..., jeneralian, jeneralian bizixa.

## 5.7. 'Senarrak emazteari'

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-033/017
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:30:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: "Andria daukat alkate" zatia kantatzen du. Komentarioak. Zarzuelak kantatzen ei zituzten asko etxean. Amagandik etorri zaie zaletasuna. Anaiak-eta habanerak maite.

### Transkripzioa

Andria daukat alkate  
errespetua aparte,  
gizonamorroi  
galtza zarrekin  
andria galai jantzita,  
hau dala diferentzia  
nork hartu pazientzia  
nik daukat penitentzia.

(Barreak). Ahaztu [..], ez [...] akordatzen. Sarrittan pentsatzen dot. Gure Olatzek lenguan etara ostan zera, grabatzekua, eta esan ostan: "ama, kantaizuz", ta bai, ein bihar dot ba aber zelan urtetzen dostazen. Hainbeste kantu, gaiñra, ahaztutzen nao. Oin sosa-sosa, ikusi telebisiño zarrok, urtetzen dabenak ganorabakuak gaiñera ganorabakuak dia batzuk. Ja-ja, ahaztutzen lengo kantak, zerak. Donostiakuak be asko nekixezen nik. Donostiako Gaztelupeko... Eta gero, zera, eta baekezen asko-asko, amak be baekan eta Miren eta nik kantatzen genduan asko holan pelukerixan eta, hasieran ez zan egoten lan asko be ta, kantatzen genduzen honek "zarzuelas".  
-Zartzuelak...  
-Zerana hori, Katuska-na dana, dan-dan-dana, hasi ta akabau kantatzen genduan zarzuelak. Eta, bueno, zeranak, "Caserío"na be bai, eta holako kantuak asko eitten genduzen. Gure etxian ohittura haundixa euan kantuan eitteko. Jokuan edo zera bai, baiña kanturako gehixao. Sobre todo amagandik, aitta ez baiña. Amagandik eta honek anaiak-eta be, bueno, puff! Habanerak-eta kantatzen zittuen kuadrillak, ikusgarri kantatzen eben lehen.

## 6. Lanbideak

### 6.1. Ama inude Madrilen

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/005
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:03:48. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Neskameak

- **Laburpena:** Amak 21 urterekin izan zuen umea hil egin zen, eta gero inude joan zen Madrilerara. Oso emakume ederra ei zen.

### Transkripzioa

-Ermua jaixo ziñanian, zu jaixo ziñanetik hona dana aldatuko zan Ermuan, ez? Zelakua zan Ermua?

-Bueno. Ermuan etxe zarrak asko, gero ein die etxe barrixak eta asko. Ba esaten dosut, bakoitzak bere ortutxua, geuk be geure ortua dakau ta. Orduan ba porru-patatak-eta jan eta. Bizimodu diferentea zan total. Nere ama, oso emakume ikusgarrixa zan, guapia. Ta esaten eban, hemeretzi urtekin ezkondu ta hogeta bat urtekin semia euki ta hil ein jakon. Ta joan zan aiña, iñude Madridera palazio batera. Bai. Hain zan guapia nere ama, etxeandriak esaten ei otsan: "los hombres que estan trabajando en el tejado también se asoman por mirarle a usted", esaten ei otsan. "Se asoman por mirarle a usted". Hantxe egon zan umia hazi artian. Ta gero sarri faten zan Madridera.

-

## 7. Herria, azpiegitura

### 7.1. Ermua kaleko leku-izenak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ERM-002/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** "Trakenekua", "Zerukua", "Antonatxanekua"... kale-baserri asko zegoen Ermuan. Kale izenak: Izelaieta, Erdiko Kalia...

### Transkripzioa

- Eta hasi zara kontatzen kaliak-eta zelakuak ziran eta... Ermua zelakua zan? Zenbat kale zekazen? Hain haundixa ez zan izango.

- Ez, hauxe, bueno, trena beti egon da, hori estaziñua, trenbidia, ta hori gu bizi garan hori barrixuori.

- Irulitxa edo, ezta?

- E?

- Irulitxa.

- Bai. Ta gero basarrixak euazen mordua hamen, basarrixak: Trakenekua, Zerukua ta Antonatxanekua ta herri erdixan basarrixak euazen.

- Bai, hogeita hamairu bat edo.

- Eta kaliak zeintzuk ziran? Hamen hiru kale...?

- Bai, kaliak horretxek zian: hauxe, estaziñotik urten eta hau gure kaliau, hori Erdiko kalia esaten jako, beste kaliau. Lehengo etxe zaharrak horretxek, gero kanpuetan in zittuen Santana eta Saninazio eta... etxiak, bai...

- Eta izena zelan zeken kaliak, oingo izen bardiña, edo...?

- Ez, ez, gure kalia Izelaieta zan lehen be eta oin be atzera ipini dotse. "General Mola" ipini eben gero, baiña atzera be Izelaieta da gure kalia. Atzera lehengo izenak ipinita dauz kalieri. Bai.

- Bai, Erdiko kalie hemen, ezta? Erdiko kalie. Eta Goienkalie, Goiko kalie.

- Bai, Goiko kalia, plazia, frontoi ostia, zuek bizi zaran parajian... Bueno, ba, holatxen.

## 7.2. "Erromaretakua"

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi, Lucia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-033/001
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Aurkezpena. "Erromaretakua" esaten zioten familiari, trenaren barrera zaintzeko ardura zutelako.

### Transkripzioa

- Zeure izena?

- Nere izena Lucia Areitioaurtena Isasi-Isasmendi. Jaixo nitzan diciembre hamarran, hamarran, diez, mil novecientos veinticinco jaixo nintzan da bueno, jaixo nintzan Ermuan ba Erromaretakua esate ozkuen ze gure ama guarda barreria zan, da hantxe jaixo giñan anai-arreba mordua ba hantxe bizi izan giñan, etxia haundixa, sukaldia be ederra da hantxe bizi izan giñan.

## 8. Iritziak

### 8.1. Herriko giroa aldatu kanpotarrak heltzean

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/014
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:18:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Jende jator asko zegoen Ermuan. Biraoak zirela eta, etorkinen izandako eztabaidak. Elkartasun handia ei zegoen herritarren artean, elkarri asko laguntzen ei zitzaion sasoi batean.

### Transkripzioa

- Ondo bizi zan jentia, e? Jente jator asko euan. Euskaldunak, e! Gero hasi zan boladiau kanpotarrok etortzen. Ta hamen jokuan gu egoten garan lekuan kanpotarrak egoten dia ta maldeziñuak "me cago en dios" ta. Nik ez dotset parkatzen: "Iros a vuestra tierra a jurar", "¿Los vascos no juran?", "Oye, si los vascos juran, juran en castellano. En vasco no hay ningún juramento. ¡Ni uno, eh! Y si juran los vascos, juran en castellano, en vasco no. No hay ni un juramento en vasco." esaten dot. Egixa da hori ta!  
- Esan dozu lehengo girua-ta danak, ba, hori, euskaldunak ta danak ezaunak izango ziñazien, ez?  
- Danak ezaunak, bai.

- Zenbat jende biziko zan gerra aurrian Ermuan?  
 - Mila ta piku esaten dabe.  
 - Milla ta gitxi.  
 - E?  
 - Bai, milla ta hamar edo... holakon bat. Milla inguru.  
 - Milla inguru?  
 - Bai.  
 - Bai.  
 - Orduan, danak ezaunak?  
 - Danak ezagunak.  
 - Edo lagunak edo...  
 - Ba iual, ba, familixa bat...  
 - Edo arerixo. Lagun edo arerixo, ezta?  
 - Familixa baten jaio bazan umia, ba, han egoten zan beste auzoko batek berak hazitta umia ta maletxuaori harek hari, hazteko. Holantxe ibiltzen zian erropak-eta umien artien partidutzen.  
 - Bai, bai. Familixa batek bestera pasatzen zian.  
 - Gaixorik-edo baeuan, asko laguntzen zan, gaba pasatzen edo dirua premiña bada... laguntasun haundixa euan, e! Bai.  
 - Familixa haundi baten moduen, ez?  
 - Bai, bai. Horretan bai,  
 - Alkartasun haundixa?  
 - Bai, alkartasun haundixa. Bai.  
 - Gehixen aldatu dana hori izango da zure ustez?  
 - Bai, nere uste bai. Hori alkartasunori, hau hasi zanian kanpoko jente belarrimotz hau etortzen, pfff... kanbixau zan dana. Dana, e?  
 - Jente asko etorri be ein zan.  
 - Jente ona be badao, e! Bai. Erdeldunen artian be jente ona be badao.

## 9. Euskara

### 9.1. Etxean amak haserre, erdaraz eginez gero

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ERM-002/021
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:27:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan dena erdaraz, baina etxean ez zieten uzten. Kanean euskaraz gehienetan, baina erdaraz ere bai inoiz "dotoreago egitearren". Gaia ederki ilustratzen duen kantutxo elebidun interesgarria.

#### Transkripzioa

-Zuk ze rekuerdo daukazu eskoliana, ona?  
 -Bueno, bai. Horixe, erderia dana. Eta gurian etxian ez zan eitten erderarik. Eta deskidatzen bagiñan, e, bueno! Amak hasarre eitten oskuan.  
 -Erderaz ein bihar, kostata. Eta zuek jo edo noz-noz egin zaittue maisuak?  
 -Ez, ez. Et, et.  
 -Erderia ta euskeria ta esan dozula, zeuen artian lagunuen artian-eta zela eitten ziñuen?

-Erderaz.  
-Erderaz lagun artian be bai?  
-Bueno. Euskeraz bagenkixen, ezta, baiña.  
-Eskolatik kanpo be bai erderaz?  
-Ez, euskeraz. Erderaz bagenkixan, e. Puxkat dotorioa edo eittiarren.  
-Baina normalian lagunekin eta...  
-(Kantuan)  
Baserriko alabak gerade  
baiña somos muy listas,  
euskeraz nahi erderaz  
hitz egiten degu alkarrekin.

Miren ustedede  
qué garbo y salero,  
dantzan gaiñera  
iñon bezin ondo

## 9.2. Hika

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Narbaiza, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: ERM-023/007
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:12:24. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Tratamenduak  
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Ahizparekin hika egin izan du. Gurasoekin-eta, zu. Kalean hika emakumeak ere.

### Transkripzioa

-Zenbat anai-arreba izan zarie?  
-Lau. Neu bakarrik nao oin.  
-Eta zuen artian hikan eta zukan eta...  
-Bai, hi, hi. Hi, bai, hi.  
-Zeiñeri eitten dotsazue hikan?  
-Ez dakit ba nik.  
-Zeinekin dakazu ohittura gehixen?  
- Aiztiakin hika eitteko ta. Ostian gitxi. Beti zu.  
-Aittari ta amari?  
-Bai, zu, zu.  
-Eta harek zeuei?  
-Ez dakit ba. Hi, pentsatzen dot. Bai, hi.  
-Kalian-eta erabiltzen zan?  
-Bai, bai, hika bai.  
-Andren artian asko.  
-Andren artian-ta bai. Baiña gero etxian zu.

### 9.3. Xemeikoak eta lamaikoak

- **Hizlaria(k):** Idigoras Arzuaga, Joseba Gotzon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-038/020
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Dirurik txikiena "lamaikua" zen, gero xemeikoa, gero txakur txikia, gero txakur haundia. Intxaurrekin "lamaikora" jokutzen zen.

#### Transkripzioa

-Xemeiko barik orduan.

-Xemeiko barik.

-Xentimorik barik esan nahi da.

-Xemeikua zan... Osea ke, dirurik txikixena zan lamaikua. Lamaikua zan dirurik txikixena antziñakua. Gerora lamaikuan ostian xemeikua; eta xemeikuan ostian txakur haundixa, txakur txikixa, ta txakur txikixan ostian txakur haundixa. Aitzen dozu? Txakur haundixa, txakur txikixa, xemeikua ta lamaikua.

-Lamaikuak eta xemeikuak pezetiakin zerikusirik bai?

-Klaro, harek "centimos, centimos". Osea que la peseta era uno, una fracción única. Pezetian txakur haundixak zekan "veinte céntimos... diez céntimos" txakur haundixak; "cinco céntimos" xemeikuak, ta lamaikuak "una porción [...]". Horrek zian diru antziñako... Gero egoten zian errialekuak...

-Txakur haundixak?

-Txakur haundixak "diez céntimos".

-Txakur txikixak, barkatu...

-Cinco céntimos.

-Eta xemeikuak?

-Xemeikuak ekazen "la fracción de diez" xemeikuari kenduta. Txakur txikixai dibidu hamarrekin eta lamaikua.

-Orduan pezetiakin?

-Pezetiakin lamaikuak asko euazen. Horrek zian antziñako diruak. Ta jokutzen zan lamaikora intxaurrekin eta. Bai-bai, intxaurrekin zuluak eitten zan eta, intxaurrekin botatzen zian eta "pares" edo "nonnes" urtetzen baeben ba haxe. Lamaikora jokutzen zan. Horrek antziñakuak dia.

## 10. Ekonomia eta industria

### 10.1. Tunelean gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Egia Agirrebeitia, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-036/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra denboran, trenbideko tunelean pasatzen zuten eguna. Gerra amaitzean, Eibarren hasi zen lanean. Gero, nobioa topatu zuenean, Ermuko Urretanera joan zen.

### Transkripzioa

-Gero gerra ostian... Klaro, gerra denboran bizi genduan bizimodua "de aupa!". Refujixuak euazen, baiña azkenian akordau jakun Espillako tunelera edo joatia eguna pasatzen. Gure ama bazkarixakin joan eta gu alper galantak hantxe, ixa egun guztian. Abioiak etozenian tunel barrura. Aria-zakuak eta ipinitta euazen parian. Eta han pasatzen genduan eguna. Gero arik eta hamazazpi edo hamazortzi urte..., gerria amaittu zanian ba Eibarera joan nitzan biharrera, bederatzi hillabete-edo gerria amaittu arte. Ta gero handik beste hil batzuek etxian einda, beste tailler batera Eibarrera. Beste, arik eta gero Ermura etorri nitzan. Nobixua Ermuan topau nebanian harek Ermura ekartia nahi. Ta Urretanian ezkondu arte biharrian.

## 10.2. Ermuan egindako pistolak

- **Hizlaria(k):** Idigoras Arzuaga, Joseba Gotzon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ERM-038/030
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:50:36. **Bukatu:** 00:53:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Hainbat ermuar eskuindar kartzelan egon zen pistolak banatu eta saltzeagatik. Pistolak egiten ziren Ermuko hainbat fabrikatan. Hileta batera etorri zen jeneral batek pistola bat lapurtu zien. Pistola-fabriken zerrenda.

### Transkripzioa

- "Esos todos estuvieron en la cárcel. Sabes porqué estuvieron en la cárcel? Estaban preparaos para la guerra, preparando para la guerra. Las pistolas vendían esos."

-Nun?

-Esango dotsut. Horrek pistolak saltzen zittuen. Saldu ez, esango dotsut. Eitten eben pistolak gorde eurak "para la guerra esta, para la guerra aquella", ta ladrillua sartu. Tenían un pedido de París, o de Francia o de Alemania o de lo que fuera. Allí mandaban los ladrillos y ellos se quedaban con las armas. Estos se quedaban con las armas.

-Horrek armok Ermuan eitten zien?

-Bai, Ermuan. Gure etxian eingo zian bastante, Pedro Atxanian. Danak eruan zittuen. Etorri zan jeneral bat ona, "General Pinto" edo ez dakit zein zan, etorri zan Ermura "al entierro de Ignacio Olañeta". Sartu zien gure etxera, Pedro Atxanera, ta pistola bat topau eben. Bere pistola zarra bota bai, ta haxe hartu eta haxe eruan eban. "General Pinto". Haxe eruan eban harek. Harek be lapurretan ein. Danak!

-Nun egiten ziren pistolak?  
-Salaverria, Lomiño, Atxa, Urreta...  
-Bizikletak ez?  
-Bizikleta gehixen Urretak. Bizikleta asuntuan Urreta izan zan gehixen. Baiña pistolak eitten zien lelengo hori. Lomiñon bat, Pedratxanian (Pedro Atxa) bi, este... Eros, Eizagirres; Eizagirre Hermanos ez dakit zer, Eizagirre Hermanos. Droget euan hantxe sartuta; harek be bai. Ta gero separau ein zien eta ipini eben hiruk: Migel Kantabria, Droget eta zerak. Eta horrek, joan zan hara eta handik hona ekarri zittuan. Dirua ekarri eban harek. Dirua, hamar mila pezeta berak ipini bakarrik. Era gero kalera bota. Haundixak ein zittuen horrek!

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Errotak eta indarretxeak Aixola Errekan (ERM-001/002)

12 errota ei zeuden Elgetatik Sallabentera (Aixola Errekan), eta hainbat indarretxe. Elgetakoek kablea lapurtu. Urtegia egin zenean desagertu ziren. Indarretxeez eta kanalez azalpenak. Kanal batek bi kilometrotik gora ei zituen.

### 2. Aixola Erreka, paraje eskasa (ERM-001/003)

Errekazulo beldurgarria zen Aixola Erreka. Oso iluna, biderik ez, harritsu.

### 3. Eitzagarrak Ermurako jokera (ERM-001/004)

Eitzaga auzokoak, nahiz eta Zaldibarkoak izan lurrez, Ermuan egiten zuten bizimodua, Zaldibar oso urrun dagoelako. Tuneleko istorioak. Zaldibarri buruzko xehetasunak. Elizaz Ermukoak dira, kanposantua ere Ermuan.

### 4. Sallabenteko benta (ERM-001/005)

Sei urtetik 16 urtera arte Sallabenteko bentan bizi izan zen. Nolakoa zen lekua. Platano arbola baten gainean mahaia. Gerra aurretixoan bota zuten arbola.

### 5. Kostan, kazari, peskari eta perretxikutari amorratua (ERM-001/010)

Kostan izenekoa, amorratua zen ehizan, arrantzan eta perretxikotan. Kangrejoak izaten zituen askan, eta ez hiltzeko modua asmatu zuen. Perretxikutara joaten zen Vespan Barazarrera. Gero banatu egiten zituen.

### 6. Robilloiak (pinatelak) (ERM-001/011)

Lehen ez zen pinatelarik jaten. Feli Errauskin palankaria izan ei zen lehena. Orduan igandetean joaten zen bakarrik jendea perretxikutara.

### 7. Lambretta (ERM-001/013)

1955ean hasi zen Lambretta fabrika Eibarren. Aurrez ordaindu eta itxoin egin behar eskuratzeko. Gauza handia zen. Errioxara eta San Ferminetara joanda dago motorrean.

## **8. Sallabenteko ostatua (ERM-001/014)**

Ostatuan jantokia, lo-lekuak eta korta. Orain Ermuan batzokia dagoen lokala ere ostatua izan zen sasoi batean.

## **9. Ermuko ostatua (ERM-001/016)**

Ermuko ostatua nolakoa zen. Korta, ardangela, bizilekua... Dantzaldiak ere egiten ziren. Zentroan zegoen. Inguruan zeuden baserrien izenak. Garia jotzen kalean.

## **10. Gailegoak lehen etorkinak (ERM-001/018)**

Gailegoak izan ziren lehen etorkinak. Bera mutikoa zela Sallabentetik Plazentziaraino joaten zen lanera galiziar talde bat. Udako opor bueltan jende gehiagorekin itzultzen ziren. Ondo sartu ziren herrian.

## **11. Ostatuan egun bakarra egin zuen neska galiziarra (ERM-001/019)**

Neska galiziar bat bere burua eskaintzera etorri zen ostatura. Egun bat lan egin eta agur esan ere egin barik joan zen, beste lanen bat aurkitu zuelako.

## **12. Ogi estraperloa (ERM-001/021)**

Hainbat okindegi Ermuan. Baserrietan ere egiten zen. Estraperloan eramaten zen trenez edo mendiz Eibarrera saltzera. Guardia zibilen eta mikeleteen beldurra. Trajedun bihurtu bat poliziatzat hartu eta ateak ixten zituzten hura etortzen zenean. Okinen trikimailuak. Ermutik Uberaraino errotara.

## **13. Ogi klaseak (ERM-001/022)**

"Zurixa" eta "baltza" ziren klaseak. Beltza, normal jaten zena. "Flota", "ritxa"... Jan ezindakoa ei zen beltza. Artoa ere asko jaten zen, bai taloak eta bai morokila.

## **14. Arrazionamendua (ERM-001/024)**

Ogia, urdaia, tabakoa..., dena arrazionamenduan. Burdina eta gasolina ere bai. Kupoak zuten industrietan ere. Entxufea zutenek materiala lortzen zuten. Baserrian hobeto defenditzen ziren kalean baino.

## **15. Karea egiten (ERM-001/026)**

Karea egiten ere ezagutu dute. Eguarbitzako Atxetik ekartzen zuten lehengaia. Beharleku "zelebrea" dela dio karearena. Ona da lurrarentzat.

## **16. Lurra "arenatu" eta argizaria eman (ERM-001/027)**

Arenatzeko area ere egiten zen Areition. Hare-harria atera eta xehetu. Lurra eta mahaia zuritzeko erabiltzen zen harea. Gero argizaria ematen zen. Ikusgarri geratzen ziren zoruak. Argizaria ere etxekoa, erleak egindakoa.

## **17. Ez zen zaborrik sortzen (ERM-001/028)**

Solaskidearen komentarioak. Orduan ez zen basurarik sortzen. Piper poteak ere gorde egiten ziren saltzeko. "Poteruak" dirua egin zuten. Beruna, kobrea eta abar ere batzen zuten.

## **18. Olioa "egiten" zuen andrearen pasadizoa (ERM-001/029)**

Zartaginean erabilitako olio berriz botilara botatzen zuen andrearen pasadizoa. Olio ei zen gerra osteko artikulurik garestiena. Urdaia eta zezina ere asko jaten ziren. Gatz ematea. Orain zezina garestia ei da.

## **19. Intxaur-saltsa (ERM-001/031)**

Intxaur-saltsa nola egiten den kontatzen digu. Intxaurra xehetu, esnea kanelaz egosi...

## **20. Ermutik Eibarrera (ERM-001/033)**

Ermuarrak Eibarrera ("Gipuzkoara") noiznahi joaten ziren, aisialdira, salerosketara zein bankura. Bankuetako diruaz eta kontabilitateaz xehetasunak.

## **21. Eibar, Ermuaren "barrio bajo" (ERM-001/035)**

Euren sasoiak ez zen ikusiezirik edo pikerik ermuarren eta eibartarren artean. Jendea oinez ibiltzen zen gehienbat. Bi tren zeuden bakarrik. Taxian 8 lagun askotan. Jende pila handiak Eibarren pelikula onen bat zegoenean.

## **22. Santurtzitik arraina saltzera Eibarrera (ERM-002/010)**

Santurtzitik etortzen ei ziren sardinak-eta saltzera Eibarrera. "Desde Santurce a Bilbao" kantatzen du.

## **23. Hartzaren ipuina bertsoan (ERM-002/012)**

Tuberkulosiak jota zegoen mutil bati laguntzeko, aitak hartzaren ipuina eta bertsoak asmatu zituen. Aratostietan (Karnabaletan) gizon bat hartzez jantzi eta kalez kale ibili ziren eskean (tradizioak jarraitzen du). Bertsoak kantatzen dizkigu, bertso zinez ederrak. Bertso-paperak idazten zituen aitak.

## **24. Erantzuna euskaraz egiteagatik (ERM-002/016)**

Erdaraz egin behar eskolan. Euskaraz egiten harrapatuz gero erantzuna, eta beste hamabost urtez eraman behar zigor gisa.

## **25. Eskola-kontuak (ERM-002/017)**

Maisu-maistra onak Ermuan. Dirudunek-eta Eibarrera bidaltzen zituzten semeak Armeria Eskolara eta fraideetara. Neskek oso gazterik ikasten zuten "eskuetakua" (puntuak). egiten eskolan.

## **26. Laborda abadeak erakutsitako kanta (ERM-002/019)**

Laborda abizeneko apaiza etortzen zen Donostiatik eta jolas orduan euskarazko kantak erakusten zizkien umeei. Kanta bat kantatzen du.

## **27. Eskola Txikixa (ERM-002/020)**

Plazan zegoen eskola. Eskola Txikixa ere bai. Eskola honetan hiru urtetik aurrerako ume txikiak otoitzak-eta ikasten zituzten.

### **28. Gabonetako jakiak (ERM-002/024)**

Karakolak, olixo-azak, konpota.... Gabonetako jakiak. Kantutxo bat. Intxaur-saltsak alferrik galtzeko arriskua handia ei zuen. Bisigua aberatsen arraina ei zen. "Santa katalina". Bakillaua ere asko jaten zen.

### **29. Aita eta senarra Larrinagan preso (ERM-002/025)**

Aita eta senarra hiru urtez izan zituen preso Larrinagan. Urtea bete arte aitak ez zuen ezagutu ahal izan bere seme txikia. Asko sufritu zuten.

### **30. Txirikiletan (ERM-002/028)**

Nola jokatz den esplikatz du. Garizuman Trabakura joaten zen jendea txirikiletan jokatzera. Neska eta mutil, elkarrekin jokatz zuten.

### **31. Raketistak (ERM-002/029)**

Baziren neska pilotariak: "raketistak". Profesionalak ziren eta Madrilera eta Mexikora joaten ziren. Eibarko Astelenan entrenatzen zuten. Raketisten famaz. Toni, raketista ermuarra.

### **32. Bizikleta alkilerra (ERM-002/031)**

"Toni alkilerrekua" esaten zioten Ermuko raketistari. Familiak bizikleta alkilerra zuen Eibarren. Zenbaitek zatika-zatika muntatzen ei zuen bere bizikleta.

### **33. Oso familia eta herri abertzalea; kanta aberkoiak (ERM-002/034)**

Eurak "bizkaitarrak" izan dira. Ikurrina asko egindakoa da. Askotan ateratzen du balkoira. Umetatik ezagutu ditu militante nazionalistak. Abertzale ezagunen istorioak. "Eusko Gudariak" eta "Nere aberri laztana" kantatzen ditu, besteak beste.

### **34. Erromeriak eta neska-laguntzak (ERM-002/036)**

Orduan trikitiari inportantzia handia ematen zitzaion. Kaleko mutilek ere egiten zuten neska-laguntzen baserrietara. Erromeriak handiak egiten ziren inguruetan.

### **35. Eibartarren eta markinarren txistea (ERM-002/038)**

Markinako kalean belarra. Eibartarren eta markinarren txistea.

### **36. Gazte-gaztetatik ehizan (ERM-008/002)**

Aita nazionalista zenez, ez zioten ehiza-lizentziarik ematen. Horregatik, Aixola Errekara joaten ziren, leku ezkutua zelako. Bera aitarekin joaten zen, kalibre txikiko eskopetarekin (txinbera). Eskopetak non gordetzen zituzten. 17 urterekin atera zuen lizentzia.

### **37. Katamixarrak harrapatzen (ERM-008/003)**

Aitak erreklamoaz ehizatzen zuen; katamixarren erreklamo zuela esaten zuen, brometan. Geldi egotea ei da katamixarrak ikusteko teknika. Eitzaga aldean harrapatzen zituzten.

### **38. Katamixarrak jaten (ERM-008/004)**

Gisatuta jaten ziren katamixarrak. Gozoa eta garbia ei da. Andreak uko egin zion gertatzeari. Lehen jan egiten zen ehiza guztia, orain ez. Lehengo eta oraingo ehizaz iruzkinak. Katamixar ehiztari gutxi.

### **39. Eskilarasoa (ERM-008/007)**

Eskilarasoa polita eta azkarra da, afan handia izaten zuen mutikotatik ehizatzeke. Hazi ere egin daitezke etxean kumeak habiatik hartuta.

### **40. Lehen baino zozo gehiago herri barruetan (ERM-008/008)**

Gaur egun herri barruetako arbola eta parkeetan txori asko ikusten da, zozoak batez ere. Zarauzko adibidea.

### **41. Txori txikiak (ERM-008/011)**

Txepetxa, tximutxak, katanarra, txirixua, sasi-txiuak, paranda, buztanikara, txinbo reala, artatxoria, armatxoria...

### **42. Txori handiak, harrapariak (ERM-008/012)**

Miru txikia eta handia, arruntenak hemen. Santamaiña aldean egiten zituzten umeak. Gabilara. Buztan-urkila (milano real) hemendik pasatu bai, baina ez ei da hemengoa. Miru zuri handi bat ikusi zuen behin. Arranoak (saiak), gutxi hemen.

### **43. Gardantxiloak eta txirriskilak kaiolan (ERM-008/014)**

Kardantxiloak eta txirriskilak izaten zituen aitak kaiolan. Hurbil zeuden habietatik erakartzen zituen

### **44. Baserriko andrak astoaz atzera-aurrera (ERM-008/015)**

Miru handi bat ere izan zuten etxean. Txori txikiak ematen zizkioten jaten. Hari begira geratzen ziren baserriko andrak Eibarko plazatik astoaz itzultzerakoan. Oso tipikotzat du estanpa hura.

### **45. Mirua galdu (ERM-008/016)**

Bilbora joan zen ikastera. Aitak abisatu zion mirua galdu egin zela. Auzoko ehiztari batek ikusten ei zuen.

### **46. Oilagorretan (ERM-008/017)**

Aitarekin egin zuen ehizan 27 urte arte. Ezkonduta gero oilagorretan egin izan du. Oilagortari baten aholkuak: "segidu txakurrari".

### **47. Ehizarik onena: txakurrekin oilagarretan (ERM-008/018)**

Ehiza politak asko daude, baina berari txakurrekin oilagorretan gustatzen zaio. Nahiz eta batere harrapatu ez, poztu egiten du norbera txakurraren lanak. Bi lan batera: norberarena eta txakurrarena.

#### **48. Txakurraren berezko sena (ERM-008/020)**

Txakurrak berezko sena du, baina erakutsi egin behar zaio, eraman egin behar da lekuetara. Txakurren artean ere denetik dago. Oilagorretan ugazabagandik urrun ibili behar du, eperretan eta galeperretan gertu. Txakurrak berehala igartzen dio zein ehiza motaren aurrean dagoen.

#### **49. Lehen ehiztari gehiago (ERM-008/021)**

Sasoi baten orain baino ehiztari gehiago zegoen. Oilagortari, erbitari..., denetik.

#### **50. Ehizarako txakur-klaseak (ERM-008/022)**

Pointerrak, oilagorretan zein eperretan. Seterra hobea oilagorretarako. Txinbo txakurrik ez du sekula izan. Lehen txilina eramaten zuten, eta isiltzen bazen, geratu denaren seinale. Orain geratutakoan txistua ateratzen duen aparatu bat daramate eta errazagoa da lokalizatzea.

#### **51. Espaniela ehizarako? (ERM-008/023)**

Txinbo txakurrik ez du erabili, baina onak direla ei diote hildako txoria ekartzeko eta. Espaniela polita ei da, baina ez ei du emaitza onegirik eman.

#### **52. Ehiza-txakurrek "txilina" eta "tanganilloa" (ERM-008/024)**

Txilina edo arrana esaten zaio ehiza-txakurrek eramaten duten lepoko kanpaitxoari. "Tanganilloa"&nbsp;ehiza ahoan ezin hartu ahal izateko lepoan inoiz jartzen zaion makilari esaten zaio. Ehiza sasotik kanpora erabili izan da batez ere. Traba egiteko. Gutxi ikusi du.

#### **53. Eskopeta klaseak (ERM-008/025)**

Txinbera: "hamabiko txikixa", kanoi bakarrekoa edo bikoa. Hamabiko haundia. Gero bost tirokoak, hirukoak eta abar. Tiro bakarra balitz ere meritu berdina izango lukete ehiztariek, eta hegaztiek irtengo lirateke irabazten.

#### **54. Kalibre kontuak (ERM-008/026)**

Kalibre kontuak: ez daki zergatik deitzen zaien hamabikoa, hamaseikoa eta abar. Hemen hamabiko txikia zen txikiena. Tiro bakarrekoa edo bikotxa.

#### **55. Haizezko karabina (ERM-008/027)**

Haizezkoak dira karabinak. Balinak botatzen dituzte. Kartutxo txiki batzuk ere bai, perdigoi txiki-txikiekin. Ez ei zuten ezertarako balio, baina behin txori bat harrapatu zuen horrela.

#### **56. Ehizan egiteko formak: keixapian eta pikupian (ERM-008/030)**

Keixapian (gerezipean): txabolatxoa egin azpian; txoria gereziak jatera datorrenean tiro. Guardarekin gertatua. Berak ez du sekula egin. Hutsegite handia deritzo, amea hilez gero txorikumeak ez direlako biziko. Pikupean, berriz, egindakoa da.

### **57. Ehiza sistema: "eskeran" (ERM-008/031)**

Beste ehiza sistema bat: zelaiak banatzeko sasizko hesian, "eskeran", zozo-birigarroak egoten dira. Uxatu, irtenarazi eta hil. Mutikotan ere ibiltzen ziren "eskeran".

### **58. Hormatxoriak jan ezin (ERM-009/001)**

Hormatxoriak harrapatu zituen duela gutxi. Lumatu eta prestatu, baina hain gogorra zeudenez ezin jan.

### **59. Haragi fineko hegaztiak (ERM-009/002)**

Badira haragi gogorreko eta fineko hegaztiak, azkenen artean kalandresa, oilagorra... Bera ez da izan ehiza jalea. Txori txikien artean, txinboa zen estimatuena.

### **60. Txinboak (ERM-009/003)**

Txinboak; "pinpina" ere deitzen zaio ugarienari. Sasi-txinboak gutxi izaten dira. Txinboak bandada txikietan ibiltzen dira, ehiztari afizionatuen ehiza mota. Gaur egun debekatuta egongo ei da hori.

### **61. Errekan arrantzan (ERM-009/004)**

Errekan kangrejoak, sargo-ekzailuak eta abar ("peska zeia") harrapatzen zen. Gaur egun ez dago ezer.

### **62. Uroiloa eta urzozoa (ERM-009/005)**

Ur-zozo banaka batzuk harrapatuta dago. Bazen uroilotan ibiltzen zen ermuar bat. Oraintsu ere ikusi dituzte uroiloak Eitzaga aldean.

### **63. Errekako hegaztiak (ERM-009/006)**

Uroiloa, urzozoa, buztanikara, ur-makinista, zertzeta eta ahatea dira hemen ur ondoko hegaztiak. Orain ahateak asko ugaritu dira Deba Ibaian.

### **64. Zertzetak (ERM-009/007)**

Zertzetak sarri ikusten ziren neguan. Hainbat kontu hegazti horri buruz. Gogoan du aitak balkoitik nola hiltzen zituen.

### **65. Ur txakurra (ERM-009/009)**

Mikelete batek urtxakurra (ugaberea) harrapatu ei zuen behin errekan. Baina sekula ez du berak ikusi.

### **66. Txakurrak piztia susmatu Gorbeian (ERM-009/010)**

Ez du katamixarrik, katajinetarik eta horrelakorik harrapatu izan. Gorbeiaiko pagadi batean txakurrak piztiaren bat susmatu zueneko.

### **67. Sareez arrantza egitea bentaja errekaentzat (ERM-009/013)**

Ermuko arrantzale batek esaten zuenez, sareekin errekan arrantza egitea onerako da, harri gaineko goroldioa mugitzen delako. Bat dator bera.

### **68. Arrantza ehiza bezain zirrargarria (ERM-009/015)**

Oso aspergarriztat zuten arrantzan egitea aitak eta biak, baina aita arrantzan hasi zenean iritziz aldatu zen: erreklamoaz ehizan egitea bezain zirrargarria zela arrantza hori esaten zuen.

### **69. Ermuko kalearen aldaketak (ERM-009/019)**

Kalean hainbat kale-baserri zegoen: Infrañu, Santuko, Patagonia... Eta hortik gorakoa dena zelai eta soro zen. 1960 aldera hasi ziren etxeak egiten, batez ere Santa Ana aldean.

### **70. Gerra osteko Ermua (ERM-009/022)**

Hiru ertzen (Malengo, Estaziño Kalea eta Katxango) erdian zegoena zen Ermua. Izenak eta xehetasunak. Patagonia, Zerukua... Oso kasko txikia zuen.

### **71. Denak euskaldunak (ERM-009/024)**

1.500-2.000 biztanle inguru izango zituen gerra ostean Ermuak, denak euskaldunak, guardia zibilak edo kenduta. Eskolan dena erdaraz, baina elkarrekin euskaraz egiten zuten. Durango eta Bergarak

### **72. Eibar, kategoria handiko herria (ERM-009/025)**

Durango eta bergararrak harro fama zuten. Eibar, berriz, kategoria handiko herria izan da munduan. Herri jatorra. Ez da ikusiezirik egon eibartarren eta ermuarren artean.

### **73. Aita behiarekin errekadista (ERM-023/001)**

Datu pertsonalak. Probalekuan jaio zen. Pena handia du kendu zutelako. "Txotxin" gatzizena du familiak, eta harro daramate. Aita Ureta baserrikoa zen; ama, berriz, Eibarko Elus baserrikoa. Aita gazterik hil zen. Errekadista lana egiten zuen, Ermua eta Eibar artean, behiak tiratutako gurdiaz.

### **74. Garbiketak eta bainuak (ERM-023/003)**

Goialdean ura eta behealdean ere bai, baina etxean falta. Horregatik omen izena Urbitarte. Inguruaren xehetasunak. Erretenetik hartzen zuten etxerako ura. Katilu edo palanganan hartutako uraz egiten ziren gorputz-garbiketak. Drogeten Iturrian bainatzen ziren kulerok eta kamisetarekin

### **75. Barruko arropak (ERM-023/004)**

Amak ez zuen sujetadorerik erabiltzen berandura arte. Ama emakume dotorea ei zen. Barruko arropaz xehetasunak.

### **76. Ezti gozoaren oroimena (ERM-023/006)**

Ermua polita ei zen. Baina eurak baserritarrak ziren. Kalea bukatu eta baserriak non hasten ziren esaten digu. Karobira joaten ziren, hango gizonak ezta ematen zietelako. Kea du gogoan.

### **77. Sakamantekasa (ERM-023/011)**

"Azurtzara bialduko zaittut kriada" izaten zen amaren mehatxua. Sakamantekasa ere aipatzen zieten beldurra sartzeko.

### **78. Berak eramandako makilaz jo maistrak (ERM-023/013)**

Oso oroimen ona du eskolaz eta maistrak, nahiz eta ikasle txarra izan. Berak eramandako makilaz jo zuen maistrak. Eskola-lagun bati buruzkoak.

### **79. Anai-arrebak sakabanatuta jate aldera (ERM-023/014)**

13 urterako amaitu zituen eskolak. Nahiago baserriko lanetan jardun eskolara joan baino. Anai-arreba guztiak batean bestean banatu ziren ogia jan ahal izateko.

### **80. Umezain janariaren truke (ERM-023/015)**

Umezain egon zen Okarizenean "tripa truke". Ogia eta txokolatea ematen zioten eta pozik. Behin lizundutako txokolatea saldu zioten denda batean.

### **81. Ermuko dendak (ERM-023/017)**

Ermuko dendak izendatzen ditu banan-banan. Denetik saltzen zuten. "Ave maria purisima!", "Sin pecado, ointxe nator". "Apuntera" erosten zen, kantitate txikitan. Aldamenera ere joaten zen gauzen eske.

### **82. Don Crispulo, abade okerra (ERM-023/018)**

Ez zuten don Crispulorekin konfesatu nahi izaten, baina honek kaparekin hartu eta berarengana erakartzen zituen. Oso zaratatsua eta beldur-sartzailea ei zen.

### **83. Aste Santua, ez hain tristea (ERM-023/020)**

Ez du Aste Santua garai triste bezala oroitzen. Arropa estreinatu, prozesioak..., jaiak bezala gogoratzen ditu. Piku-pasa bat nola jan zuen elizan, bekatu egin barik.

### **84. Gernikako bonbardaketa, moroak eta "Viva Cristo Rey" (ERM-023/022)**

Kobazulo baten egon ziren Gernikako bonbardaketaren egunean. Eztrandak entzuten zituzten. Herrira itzultzean, "Viva Cristo Rey!" esan behar moroak ikustean.

### **85. Hildako asturiarra; bonbardaketak (ERM-023/023)**

Soldadu asturiar bat hilda ikusi zuten etxetik hurbil. Nora bota ote zuten, ardura hori geratu zaio. Non ezkutatzen ziren bonbardaketak zirenean.

### **86. Elizan gerrako intendentzia (ERM-023/024)**

Eliza trastez beteta zegoen, milizianoen intendentzia zegoelako. Txikia zen orduan Ermua.

### **87. Dolores Ibarruri "Pasionaria" Ermuan (ERM-023/025)**

Gorroto handia zegoen gerra ostean. Gerra denboran, Dolores Ibarruri Ermura etorri zen, eta eurak makur-makur eginda pasatzen ziren ondotik, beldurrez. Bizkaitarrak eta Karlistak ziren gerra aurreko bi bandoak Ermuan.

## **88. Gose denborako jakiak (ERM-023/026)**

Garia tostatu, eta hura zen kafea. Morokila, esnea... Behi bat zuten eta errebero epel-epela (esne jaitsi berria) edaten zuten. Arrazionamentu kartila. Baleak diruaren orde.

## **89. Udaletxean baserriko gauzak entregatu behar (ERM-023/027)**

Baserritarrak zirenez, gauzak entregatu beharra zuten udaletxean, eta behin ama protestatzera joan zen. Herri-jantokia ere bazen baina eurek ez zuten sarbiderik nazionalistak zirelako. "Tiramotxuak" (tirabirak) izaten ziren.

## **90. Erromeriak (ERM-023/028)**

Mallabian eta Erronean erromeriak. "Mesedez", zen dantzarako gonbita. Mutilek ordaindu egin behar zuten. Neska-laguntza.

## **91. Nobio kontuak (ERM-023/029)**

Herrerronean dantzan egin zuen bere gizona izango zenarekin Karnabal Egunez. Zortzi (hamar) urte egin zituen gizonak soldadu edo kartzelan.

## **92. Karnabaletako hartza; dantzan (ERM-023/030)**

Gerra aurretik hartzarekin-eta egiten ziren Karnabalak Ermuan. Gerra ostean galdu zen. Dantza kontura itzulita, ukabila ipintzen zen tartean mutila ez arrimatzeke. Baina hobeto egiten ei da arrimatuta. Bera "trokotxa" izan ei da dantzan, moldakaitza.

## **93. Senarrak hamar urte gerran, soldadutzan eta behartutako lanetan (ERM-023/032)**

Nobioak ilunetan zigarroa pizten zuen etorri zela jakinarazteko. Hamar urte egin zituen gerran, kartzelan eta "Trabajadorietan". Pena du haren kontuei ez zielako arreta handiegirik jartzen. "Valle de los Caidos"en ere egin zuen lan.

## **94. Komedianteak (ERM-023/034)**

Udan etortzen ziren komedianteak; aulki bana hartu eta herri guztia plazara. Amari ere gustatzen zitzaizkion.

## **95. Ermuko tabernak (ERM-023/036)**

Amak ez zuen nahi izaten aitarekin tabernara joaterik. Ez zegoen ondo ikusita emakumeak tabernara joatea. Orduan ere jendea mozkortzen ei zen, eta borrokak ere izaten ziren. Ermuko tabernak.

## **96. Pilotan eta proban (ERM-023/038)**

Pilotari asko zen Ermuan. Proban ere egiten zen, aita zalea zen. Berriz ere bere kexua agertzen du probalekua zementuz estali zelako. Badu itxaropena egunen baten agirira aterako dutena.

## **97. Tortoloska (ERM-023/039)**

Sokasaltoan, potxilika, tortoloska... Tortoloskako kantua. Tortolosak garbi eta distiratsu izaten zituzten, esmaltea emanda ere bai. Izenak eta joko-arauak. Gaurko gazteek ez ei dute jolaserako astirik.

### **98. Umeen okerrak (ERM-023/040)**

Okerkeriak egindakoa da: tinbreak eta aldabak jo, eta horrelakoak. Sagar-lapurretan ere ibilia da, baina premiagatik.

### **99. Eibarko plazara tratuarekin (ERM-023/042)**

Eibarrera joaten ziren astoaz plazara. Elkarrizketatzailearen amama ere bai. Eibar plaza inportantea zen. Zaldibartik ere joaten ziren. Kontu-kontari geratzen ziren etxe paretik pasatzean. Ogiak komentarioak.

### **100. Txartela (ERM-023/044)**

Pazkoazkoa egiteko txartela lortu behar zen. Komulgatu eta txartela botatzen zen. Amari gertatutako kasua: txartela bota beharrean, sakarina bota zuen. Ba ei ziren Ermuan gizonak Mallabira-eta joaten zirenak konfesatzera, bekatuak Ermuan ez esatearren.

### **101. Coruña eta Zaragozako frontoiak (ERM-025/005)**

Zaragozako frontoia oso ona ei zen. Coruñakoa, kasino bat bezalakoa, kinielak jokatzen ziren.

### **102. Gosea pasatzea, ona (ERM-025/007)**

Gosea pasatutakoa izatea ona ei da pilotan ondo egiteko. Orduan ez zen manager eta horrelakorik, dena pilotariak egiten zuen.

### **103. Fueraka (ERM-025/008)**

"Fueraka" jokatzen zuten mutikotan, denak batera hasi, tantoa galtzen duena kanpora, eta bi gelditu arte. Erderaz "a barrus" esan ohi dena.

### **104. Desafioak (ERM-025/010)**

Desafioak izaten ziren. Behin berak "txintxurrian", hanka bakarrean, jokatu zion beste bati. Besteak normal. Galdu egin zuen. Beste batek sudurretik garbantzua eskegita jokatu zuen; ez ei da ondo ikusten. Beste batzuek aulkiarekin. Merienda edo horrelako zerbait jokatzen zen.

### **105. Ermuan pilotari onak (ERM-025/014)**

Futbola eta pilota ziren kirol nagusiak. Ermuar bat txapeldun izan zen eskuz eta palaz aste berean. Pilotari oso onak egon dira herrian. Izenak. Gurasoengandik semeetara pasatu da zaletasuna.

### **106. Pilotariak golfo fama (ERM-025/015)**

Golfo fama izan dute pilotariak, "golfos sanos" dio Alexek. Diru asko irabazten zuten eta gastatu ere erraz. Miamin neska mordoak izaten zuten zain partidu ostean.

### **107. Egunero partidua Ameriketara (ERM-025/017)**

Egunero jokatzen zuten partidua, domeketan jai. Ez zuten entrenatu beharrik.

### **108. Saskiak (ERM-025/018)**

Bakoitzak bere gustuko saskiak izaten zituen. Alde handia batetik bestera. Neurria egiten zizkieten saskiak. Denboraldirako 12 eramaten zituen. Zahartzen zirenean ez zuen pilotak bizi irteten.

### **109. Munduko txapeldun (ERM-025/019)**

Munduko txapeldun irten zen 1963an. Gordeta du orduko saskia. Berak eta Txikurik Ondarres eta Larrañagari irabazi zieten 35-31, Durangon.

### **110. Ia bi mila partidu jokatuta. (ERM-025/020)**

Apuntatuta ditu jokaturako partiduak. Ia 2.000. Erdiak baino gehiago irabazi zituen.

### **111. Lesioak (ERM-025/022)**

Lesio asko izan du, lau operazio egin dizkiote, besoan, bizepsean eta belaunetan. Belaunetatik ondo errekuperatu zen. Bizepseko lesio txarra izan zuen.

### **112. 48 urterekin erretiratu (ERM-025/023)**

48 urterekin erretiratu zen, 32 urte aktiboan. Futbolistei buruzko komentarioak. Bizimodu normala egiten zuten, edan ere apur bat bai. Gero kantxan botatzen zituzten toxinak.

### **113. Beti irabaztera (ERM-025/024)**

Miamin prima egoten zen, irabaztera irteten zen beti. Arerioak lagunak ziren. Artistak bezala kontsideratuta zeuden.

### **114. Begiraleak eta enpresak (ERM-025/025)**

Begirale batek Zaragozan ikusi eta Ameriketara eraman zuen. Enpresa baten egoten ziren, beste enpresa batek gehiago eskaini eta hara joaten ziren arte.

### **115. Nerbioa eta arintasuna (ERM-025/026)**

Nerbio askokoa eta arina izan da bera. Bista ona ere bai kontrarioari igartzeko eta abar. Dejadari buruzkoak

### **116. Partiduak eta kinielak (ERM-025/028)**

35era ziren partiduak, binaka. Kinielak banaka eta binaka.

### **117. Frontoiak (ERM-025/030)**

Coru&ntilde;a, Zaragoza, Habana, Mexiko, Caracas, Durango, Gernika, Markina, Donibane Lohizune, Akixe, Biarritz... Habanako oso luzea zen, 64 metro; Durangokoak 52. Habanan ondo jokatzeko eta Durangoko politena.

### **118. Adinarekin dohaiak galdu (ERM-025/033)**

48 urterekin jokatzeko jarrai daiteke, baina txarto. Indarra, erreflexuak, bista... dena galtzen da.

### **119. Berogailu zentraldun etxea (ERM-029/002)**

Ostatua izandakoa ei zen beren jaiotetxea. Ateak nolakoak ziren. Armairu baten ikatz klase diferenteak egoten ziren. Berogailu zentrala zuten 1931rako, hori zuen inguruko etxe bakarra.

### **120. Jangelako armairua eta ezkaratza (ERM-029/003)**

Jangelan armairu handi bat zegoen mahaiko gauzekin. Sukaldean ekonomika eta abar. Trastetegiaren deskripzioa.

### **121. Trastegia kortan (ERM-029/004)**

Ate aurrean zegoen leku batean udako afalosteetan-eta tertulia egiten zuten. Peoran, "korta" esaten zioten lekuan, trasteak egoten ziren.

### **122. Urreztatutako ezkurra eskilaraburuan (ERM-029/005)**

Eskaileraburuan urreztatutako ezkur metaliko ikusgarri bat zegoen. Salan musikari famatuaren estatua txikiak. Ilargiaren egoera ere markatzen zuen erlojua. Josteko lekua.

### **123. Sala handia (ERM-029/006)**

Plazara ematen zuen sala handiak. Aitak esperimentuak egiten zituen elektrizitatearekin eta abar. Ikusgarria ei zen saloia.

### **124. Aitak izebari esandako esaldi barregarria (ERM-029/012)**

Oso barregarria ei zen aita. "Hi monja izan bahitzan, hi priora, eta mojak goseak, eta hi sabela beteta" esan zion behin aitak izebari.

### **125. Aitak sekula berba txarrik ez amari (ERM-029/014)**

Harrigarria egiten zaio oraindik ere konturatzea aitak ez ziola sekula ahotsik jasotzen edo berba txarrik esaten amari. Egundoko errespetua. Oso barregarria ei zen, gainera, eta gauean zeharo aldatzen ei zen.

### **126. Ama hilzorian pulmoniaz (ERM-029/015)**

Amak pulmonia harrapatu zuen berak hiru urte zituenean. Don Sabino medikuak iragarri zuen hiltzeko arriskuan zegoela. Orduan Bilboko mediku famatu batengana jotzea erabaki zuten.

### **127. Bilbotik medikua ekarri (ERM-029/016)**

Diaz Esperanza zen medikua. Bilboko Casinoan aurkitu zuten eta taxian ekarri zuten Ermura.

### **128. Ama osatu (ERM-029/017)**

Etxean urduri zeuden zain. Gizonkote bigoteduna, errespetua sartzen ei zuen. Medikuak agindu eta esandakoak. Osatu egin zen ama. Bazkari handi batez ospatu zuten.

### **129. Aitak egindako txabola ortuan (ERM-029/019)**

Aitak ez zeukan bizitza sozialik, beti etxean bere esperimentuekin. Ortua zuten. Txabola egin zion aitak berari estudiantzeko. "Arposuetatik" pasatzen zuten erreka.

### **130. Ureztatzeko sistema automatikoa (ERM-029/021)**

Ortua zuten eta denetik hartzen zuten. "Ortulauek", ('hortelanos') zaintzen zuten, andre-gizon batzuk. Ureztatzeko sistema automatikoa ipintzen lehena izan zen aita.

### **131. Aitak egindako erlojua (ERM-029/023)**

Hamabost urterekin aitak egindako erlojua. Zilarrezko ogerlekoekin egindako engranajeak.

### **132. 'Radio París' entzuten (ERM-029/024)**

Galenazko irratia egin zuen aitak. Mendian zuen antena. Radio Par&iacute;s entzuten lehena estatuan. Gutun bidezko harremana irratia zuzendariarekin eta abarrekin.

### **133. Valentziako artzobispoa etxean (ERM-029/025)**

Valentziako artzobispoa Urberuaga etortzen zen urak hartzera, eta jakin zuenean familiak biolina jotzen zuela, etxera etorri zitzairen. eskaileraburutik entzun zuen kontzertua.

### **134. 17 urterekin gudari (ERM-029/027)**

Frankistek irratia errequisatu zietenean, pena handia hartu zuten. 17 urterekin soldadu gudariekin. Aita trenbideetako kargu altua zen, errepublikarekin kolaboratu zuen. Bera familia despeditzera Ermura frankistak sartzeaz zeudenean.

### **135. Aitak ihesi egin nahi ez (ERM-029/028)**

Aitak ez zuen ihesi egin nahi izan frankistak herrira sartu zirenean. Zortea izan zuen, trenbideko langileak militarizatu egin zituztelako. Bestela garbitu egingo ei zuten. El Liberal eta beste egunkari batzuk irakurtzen zituen. Gizon aurrerakoia.

### **136. Aita Ermuko alkate (ERM-029/029)**

Ermuko alkate izan zen aita. Urak ekarri zituen herrira. Boikota egin nahi izan zioten terreno kontuengatik. Eibarko herriak lagundu zion. Banda nola etorri zen. Asko maite zuen Eibar.

### **137. Errepublikako lehen udal hauteskundeak (ERM-029/030)**

Sei botogatik irabazi zituzten nazionalistek udal hauteskundeak. Hautestontziak zaintzen egon behar izan zuten piketeek. Egun horretako gorabeherak.

### **138. Frankisten manifestazioetara, behartuta (ERM-029/033)**

Olañetari buruzko komentarioak. Haren jarraitzaileak jende eskasa. Frankistek hiriburu bat hartzen zutenean, manifestazioa antolatzen zuten eta denak joatera behartuta zeuden, aita ere bai. Saihesten ahalegintzen ziren arren, joan egin behar. Lur jota etxeratzen zen.

### **139. Ama, emakume zoragarria (ERM-029/035)**

Ama tenple handikoa eta argia zen. Sekula berba txar bat ez elkarri. Oso barregarria zen aita, pailazokeriak egiten zizkion amari. Berak zorte handia izan du, etxeko txikia izan delako. Etxean ikusten duzuna ikasten duzu, ez esaten dutena.

### **140. Anaiari pilotaria izateko ideia uxatzeko, aitaren "trikimailuak" (ERM-029/037)**

Anaiak pilotari izan nahi zuen, baina aitak ez zion utzi nahi, eta aitak "kokoarena" egin zion gau batez beldurra sartu nahirik, baina semeak igarri. Barreak.

### **141. Gernikako bonbardaketa (ERM-033/003)**

Ibarrangelutik, Gernika bonbardatzera zihoazen abioiak ikusi zituzten. Italiarrak (Francoren laguntzaileak) sartu zirenean, Ermura itzuli ziren.

### **142. Gerra osteko kontuak (ERM-033/004)**

Euskaraz egiten ez zieten uzten. Berak Luke zuen izenean, baina Lucia esaten hasi zitzaien, politagoa zela eta. Goserik ez, beren etxea "herriko etxea" ei zen. Baserritarrak aldatzen ziren lekua zenez, beti ekartzen zuten jeneroa. Egurretara basora.

### **143. Zigortuta bizikletan ibiltzeagatik (ERM-033/005)**

Mutilek utzitako bizikletan ibiltzen ziren, eta horregatik zigortuta egonda dago elizan. Altura jauzia egitea ere debekatu egin zien apaizak.

### **144. Bartzelonatik Ermura, ile-apaintzaile (ERM-033/008)**

"Palomitas perdidas" omen norbaitentzat, eta horregatik. aberats-etxe batera eraman zituzten gero. Ez zuen pilotan asko aurreratzen, eta pelukeria ikasten hasi zeni

### **145. Alazne ahizpa txikiaren heriotza (ERM-033/011)**

Alazne ahizpa gaztearen heriotza tragikoa. Arropak su hartu eta erreta hil zen.

### **146. Erromarak, andren lekua (ERM-033/013)**

Erromaretan (trenaren barrerak) emakumeak ezagutu ditu. Amak sarri laguntzen zien erdaraz ez zekiten baserritarrei Bilbora, medikuetara eta.

### **147. Trenbideko kargua egunero etxera komunera (ERM-033/014)**

Trenbideko kargudun bat, egunero, beti ordu berean, etxera etortzen zen komuneko lanak egitera.

### **148. Kantuak ikasten babak urkulduz (ERM-033/015)**

Anaiaren lagunak etxera etortzen ziren, eta amak euskal kantuak eta ipuinak erakusten zizkien babak urkultzen (aletzen) zituzten bitartean. Hartzaren kantua.

### **149. Eskolak eta maisuak (ERM-033/019)**

Diputazioaren eskolak egon ziren. Bera Eitzagara joaten zen. Bazkaldu ere han. Potes-etik Ermura etorri zen maisuaren istorioa. Oso maisu ona. Gero Bartzelonara joan zen.

### **150. Eskolan tratu txarrik ez (ERM-033/020)**

Anaia-eta asko jotzen zuten irakasleek, baina beraren denboran ez du horrelakorik ezagutu.

### **151. Pilotariak, jende formala (ERM-033/022)**

Emakume pilotaria jende formala izan da. Tentazio handiak izaten zituzten, baina eusten jakiten zuten ia denek. Pilotari asko oso ondo ezkondu ziren. Adibideak.

### **152. Lau frontoi Bartzelonan. (ERM-033/023)**

Diru asko jokatzeko zen. Lau frontoi zeuden Bartzelonan eta bostak beteta. Samaranch bera ere joaten zen eta jokatzeko ikusten zuen. Kinielak: 5ek jokatzeko zuten, eta lehenak eta bigarrenak saria jasotzeko zuten. Kiniela irabazten zutenean (2 pezeta) lau platano jan eta ohera.

### **153. Pilotari uniformeak (ERM-033/025)**

Zuriz jantzita jokatzeko zuten, gona, alkandora eta gerrikoa (urdira edo gorria). Ez du orduko argazkirik.

### **154. Raketisten urteroko batzarra (ERM-033/026)**

Itziarren bildu izan dira sasoi bateko raketistak, leku askotatik etorritakoak. Donostiako taberna batean hainbat pilota modalitateko tresnak ikusi zituen, baina raketa falta. Mutrikuko Zumalabek egiten ei zituen.

### **155. Frontoiak alde guztietan (ERM-033/028)**

Bartzelona, Madril, Sevilla, Valladolid, Valentzia, Salamanca, Logroño, Zaragoza, Sabadell, Mexiko, Buenos Aires, Las Palmas, Tenerife... raketisten frontoiak. Euren berrogei pilotaritiko gora zeuden. 5 frontoi Bartzelonan. Euskal Herrian, bakarrik egon zen, Donostian, gerra aurrean. Matxismoagatik edo gizonen pilota zegoelako izan ei zitekeen.

### **156. Pilota bizibide (ERM-033/029)**

Bizibidea zen eurentzat pilota. Bera ez zen puntara heldu baina batzuek oso ondo irabazten zuten. Frontoiz aldatzen zituzten giroa berritzeko. Valentzian jokatu zuen bi hilabetez.

### **157. Bartzelonan hil zen pilotari ermuarra (ERM-033/030)**

Pisua taldean hartuta, familian eta abar bizi ziren pilotariak. Bartzelonan gaixotasun batez hildako ermuarraren kasua.

### **158. Lesioak (ERM-033/031)**

Behin lagun batek pilotakada bat hartu zuen buruan eta izotzaz sendatu zuten. Pilota kolpeak ziren arrisku nagusia.

### **159. Pretendientea (ERM-033/035)**

Taberna bateko zerbitzari batek ogibitartekoak bidaltzen zizkion frontoira. Atzetik ibili zitzaion, baina Aliziak ez zion kasurik egin. Behin, gerora, Ramblasetan aurkitu zuen ume txiki batekin. Biona izan zitekeela esan zion, bera "vizcaina burra" izan ez balitz.

### **160. Euskaraz, katalanek ez ulertzeko (ERM-033/037)**

Berehala ikasi zuten katalanez. Euskaraz egiten zuten besteek ez ulertzea nahi zutenean. 4 edo 5 pilotari katalan ei zeuden bakarrik. Esku-pilotaren eraginez egongo ei zen hainbeste euskal pilotari.

### **161. Dirua bidaltzeko paperak betetzean, komeriak abizenarengatik (ERM-033/039)**

Dirua postaz bidaltzen zuten etxera. Komeriak zituen paperak betetzerakoan, bere abizenak ez zirelako kabitzen: Areitioaurtena Isasi-Isasmendi.

### **162. Oihalgintzako eta estraperloko dirua barra-barra (ERM-033/041)**

Kotoiaren negozioa indartsu zegoen. Oihal-fabrikak eta estraperloa. Samaranch auto deportibo gorri batez etortzen zen; kotxe bat baino gehiago zuen.

### **163. Miren, esku-pilotaria (ERM-033/043)**

Bazen neska ermuar bat, Miren, eskuz oso ondo jokatzen zuena. Pilotaria izan zen gero.

### **164. Pilotariak, guapak eta indartsuak (ERM-033/044)**

Jokatzeko gogoia, inportanteena. Gorpuzkera oneko neskak ziren bere garaikoak. Eibartarrak oso guapak (ondo eginak) zirela dio.

### **165. Inbidiak (ERM-033/045)**

Izaten ziren inbidiak beren artean. Lehenengo irabazitako diruekin etxean dutxa ipini zuenez, kritikatu egin zuen auzoko andre batek.

### **166. Zelotxoak pilotarien artean (ERM-033/047)**

Intendenteak bere kutunei partidu hobek jartzen bazizkien, beti izaten zen komentarioa: "Ikusi norekin jarri duten, ba ez da hain ona". Baina hau bizitzako leku guztietan gertatzen ei da.

### **167. Primeran segundako billetearekin (ERM-033/048)**

Abuztua hartzen zuten oporretarako. Bueltan, amak laguntzen zien Bilbora trenera. Nola joan ziren Bartzelonara primeran, segundako billetearekin.

### **168. Nobioa deklaratu zitzaion eguna (ERM-033/049)**

Senarra ermuarra, kale berekoa, betiko ezaguna. Abuztuaren 26a, Bilboko jaiak, deklaratu zitzaion eguna. Egun horretan gertatua.

### **169. Kantuak (ERM-033/051)**

Bakarrean kantatzen du inoiz. "Goazen guztiok Ziarreko bueltan behera"; " Ez detsut irikiko gau illunian aterik...".

### **170. Irakurtzen ona, idazten ez (ERM-036/003)**

Kapitalak-eta (Geografia) buruz zekizkien. Irakurtzea ere gustatzen zitzaion, baina idazterakoan, nahiz eta letra ona izan, ortografia akats asko egiten zuen.

### **171. Ermuko dendak (ERM-036/006)**

Paulatxoneko dendan denetik egoten zen, ardo-zahagia ere bai. Abilanak (kakahueteak) tostatzeko makina. Mantianeko dendan (Denda Barrixa) oso jenero ona. Herreronean eguenetan txerri bi hiltzen ziren. Gibela erosten. Plazako estankoa. Zigarro-puruak hiru txakur haundi Bruna-nean.

### **172. Tabernak eta tailerrak (ERM-036/007)**

Ostatuan batzokia eta taberna zegoen. Pedro Marirena, Okarizena, Ezkerrarena... Ermua tabernaz ondo hornituta egon ei da. Leon Txikixanekua, Mattin Txiki&ntilde;ekua, Salabarrianekuak... lantegien izenak. esaten ditu.

### **173. Nahikoa ogi gerra denboran (ERM-036/009)**

Ama eta biek okindegian egin zuten lan. Udaletxera joaten zen ogia eramatera. Soldaduekin zituen solasak. Ez zuten goserik pasatu, ogia, baba, oilategia... izaten zutelako. Oiloak baserrira eraman zituzten eta horri eskerrak salbatu ziren. Ardoa ez edateagatik argaldu ei zen jendea orduan. Santixaupe iturriko ura, ona.

### **174. Gonbidautza eta idi-probak (ERM-036/011)**

Santiago hurrengo domekan egiten zuten gonbidautza etxean, idi-probak egiten ziren egunean. Orduko pasadizo bat gogoratzen du.

### **175. Ermita izandakoa egurtegi (ERM-036/013)**

San Antonio, ermita izandakoa, egurtegia zen bere denboran, oso leku freskoa udan ere. Kaminoan erromeria eta jolasa, ez zen kotxerik pasatzen eta. Erreterera bainatzera.

### **176. Afaria ordaintzeko dirurik ez (ERM-036/014)**

Nagusitu zirenean, Aizixora (Areitiora) joaten ziren dantzara. Trabakura bazkaltzera. Behin, kuadrillak bazkaldu zuen; eta, ordaintzeko orduan, dirua falta. Aldameneko mahaian zegoen ezagun batek utzi zien. Handik Mallabira jaisten ziren dantzara.

### **177. Kantuan (ERM-036/015)**

Bere lagun Mirenek kantu asko zekizkien, kantuan egiten zuten taldean. Elizan ere kantatzen zuten.

### **178. "Tres Navios"ka (ERM-036/017)**

Nola jolasten zuten "Tres Navios"ka, aldi berean aldabak jo eta okerrak eginez. Kanposantura ere joaten ziren jolasera. Arbia hustu eta kalabera baten itxura nola ematen zioten.

### **179. Plazan dabolinareen soinura dantzan (ERM-036/019)**

Jaian danbolinean dantzan egiten zuten. Hasieran ez zekien ondo eta kontzejupean jardun zuen trebatzen. Dantzari amorratua izan da bere denboran. Dantzan leku txikian egin behar ei da. "Tarrañuelak" kastañuelen euskarazko izena.

### **180. Pertsonaiak: Tomas Kuku, Itturbe, Kalekua, Droget (ERM-036/021)**

Tomas Kuku txabola batean bizi zen. Itturbe-k emakume bati esanikoa. Etxe onekoa zen "Kalekua" (Luis Marzana); bertsolaria; ama hil zenean narrastu egin zen. Droget gizon dotorea.

### **181. Parterak (ERM-036/022)**

Segunda, Esperanza eta Eladia, Ermuko parterak. Ez zen uste den beste ume hiltzen erditzean. Tuberkulosia zen orduko gaitz nagusia.

### **182. Kinkilleroa beren produktuak euskaraz iragartzen (ERM-036/023)**

Gerra denbora ondo igaro zuten. Kinkilleroa etortzen zen, eta kalez kale joaten bere jeneroa euskaraz iragartzen. Eibarko komertzioez. Asko aldatu da mundua harrezkero.

### **183. Garbigailua, aurrerapenik onena (ERM-036/024)**

Garbigailua aurrerapenik onena. Lehen aste osoa pasatzen zuten arropa garbitzen. Beratzen ipini, astindu... Estazio kalean zegoen garbitokia eta arropak astintzera joaten ziren hara. Asko gustatzen zitzaion hara joatea.

### **184. Sutako hautsik ez, lejia bai (ERM-036/025)**

Sutako hautsik ez zuten erabiltzen, lejia bai, "El Conejo". Arropari kolorea emateko xaboi ugari behar.

### **185. Markanoren kantua (ERM-036/026)**

Apaizaren gertakizuna edo txistea. Angel Markanok abioi itxuran ipini zuen bizikleta. Hari buruzko kantua. Karrerak pasatzen zirenean tailer guztiak ixten ziren.

### **186. Goikoetxea ingeniaria (ERM-036/027)**

Goikoetxea ingeniari elorriarrak egin zuen "Osteko Kamiñua", errepide nagusia. Trenbideko zubia ere bai. Goikoetxea horrek gero nazionalistei traizio egin zien. Talgoaren asmatzailea.

### **187. Amak eskua "lijerra" (ERM-036/028)**

Ezin ziren amarengana kexatzera joan, bestela berak astintzen zituelako. Diru guztia "sorpresak" erosten gastatu zuenekoak. Esku lijerra zuen amak. Aitak, osterak, ez. Hala ere umeak estimatzen zuten, dena ondo gobernatzen zuelako. Anaiari gertatutakoa. Berak ere amaren aldera irten ei du.

### **188. Kantu zaletasuna (ERM-036/030)**

Kanturako zaletasun handia berak eta bere lagunak. Trabakuko tabernan kantatzen zuten sarri. Behin Berrizko mutilekin gertatua: leiho baten harrapatutako loreontziak oparitu zizkieten.

### **189. Santixauak (ERM-036/032)**

Bezperan etxeari distira ateratzen. Ez alperrik, hurrengo egunean lehen baino zikinago geratzen baitzen. Festa handiak Santixauak. Ez zegoen oporrik. Gainerako festa egunetan bazkaria eta afaria prestatzen jardun behar. Dantzan. Bandak jotzen zuenean ere batzuek dantzan egiten zuten.

### **190. Erromeriak (ERM-036/033)**

San Pelaixoko erromeria, Sallabentekoa... Azken honetakoa kaminoan egiten zen. Sallabenteko ostatuan, arbola baten gainean mahaia zegoen. Erromeria ederra egiten zen.

### **191. Erroska-saltzaileak (ERM-036/034)**

Karamelero edo erroskera bi zeuden Ermuan. "Foterianekoa" bat, "ritxak" (ogi luzea) eta "fotak" (otxo formakoak) ekartzen zituen Durangotik goizeko trenean. Txindurrineko peorara joaten zen jendea erostera.

### **192. Adarra apurtu eta sasira (ERM-036/036)**

Behin, lagunekin jolasean, arbola baten adarretik zintzilikatzen ari zela, adarra hautsi eta sasira jausi zen.

### **193. Azpikogonarekin bainatzen (ERM-036/038)**

Erretenean (kanalean) bainatzen ziren. Kulero, kamisa, azpikogona eta guzti.

### **194. Ezkion Ama Birjina eta sorginak Aixola errekan (ERM-036/039)**

Behin Ezkioko Ama Birjina ikustera joan ziren. Bidean (?) Debako hondartzan olatuak harrapatu eta zapatak busti. Ez zuen Ama Birjinarik ikusi. Mariatxok, ostera, bai. Komentario barregarriak. Aspaldi Aixola errekan bai ei ziren sorginak, baina eskopetak galdu zituen.

### **195. Komendiantek (ERM-036/041)**

Plazan egoten ziren. Amak ez zien amaitu arte lagatzen, eta onenean joan behar etxera.

### **196. Koko janzteagatik, anaiak salatu (ERM-036/042)**

Erronera joaten ziren domeka arratsaldeetan dantza egitera. Apaizak errieta. Behin koko jantzita joan zen, pilotari, eta anaiak amari esan zion. Ez zituzten estuegi hartzen mutilekin ibiltzeagatik eta.

### **197. Primera, segunda eta tertzerako hiletak (ERM-036/044)**

Elizatik zarataka nola atera zuten (Ik. 9. pasartea). Hiletak ere hiru klasetakoak zeuden, prezioaren arabera. Jaungoikoa lehengoa egongo ei da, baina elizako gauzak zeharo aldatu dira.

### **198. Don Crispulo eta Don Facundo (ERM-036/045)**

Bi abade zeuden gerra aurrean, anaiak, Don Crispulo (Txanpontxo) eta Don Facundo. Gaiztoa lehena, ona bigarrena. Denek don Facundorekin konfesatu nahi eta komeriak. Benanzia zuten kriada.

### **199. Titiño Zarraren ipuinak (ERM-036/047)**

Titiño Zarraren ipuinak. Zorrak nola ezabatu zituen. Nola egon behar den hiltzeko. Katua prestatu zueneko.

### **200. "Nabua" (arbia) jaten (ERM-036/049)**

Arbia jaten hasi zirenean (gailegoek ekarri zuten ohitura), zenbait asko harritu zen. Odolosteak sarri. Porru-patatak egunero. Paella domeketan.

### **201. Gabonetako jakiak (ERM-036/050)**

Olixo-azia, Gabonetako jakia. Eta bisigua, konpota, intxaur-saltsa. Aitak barruan sugea zuten kaxa bana ekartzen zieten (mazapana).

### **202. Erregenak (ERM-036/051)**

Behin Erregenetan guardasola oparitu zioten, baina euririk egiten ez zuenez, egun eguzkitsu baten estreinatu zuen.

### **203. Arropa estreinatzen (ERM-036/052)**

Kontzezinotan abrigoa eta Santixauetan soinekoa estreinatzen zuten, beti egun seinalatuetan. Jostunek egiten zituzten arropa gehienak. Etxe batzuetan gehiago beste batzuetan baino.

### **204. Denetariko jeneroa arrautzen truke (ERM-036/053)**

Iturrira joatea eta arropak garbitzea nesken lanak ziren. Mutilek kolperik ez. Anaiak arrautza gordinak zurrut egiten zituen. Arrautza asko izaten zuten, Eibarko denda batera eraman eta trukean denetariko jeneroa ekartzen zuten. Ikasketak mutilei, neskei batere ez.

### **205. Bandera desagertu gerra denboran (ERM-038/002)**

Ermuko udaletxean bandera bat zegoen, dantzariak-eta erabiltzen zutena. Gerra denboran desagertu egin zen.

### **206. Ermuko bost eskuindar hil (ERM-038/004)**

Bandera erre edo ez daki zer egingo zuten. Gorroto handia zieten francozaleek nazionalistei. Ermuko bost eskuindar hil zituzten: horietako hiru Larrinagako kartzelako asaltoan; Olañtilde; eta eta beste bat Ermuan, gerra irten zenean. Olañtilde; etaren hilketaren azalpenak.

### **207. `Droget´ (ERM-038/006)**

`Droget´ gizon ona, nahiz eta andrearentzako txarra. Bohemia. Pilotaria, Logroñtilde; ora joan zen partidua jokatzera eta handik hamar urtera agertu zen Ermuan. Mexikon ibili zen Pancho Villarekin. `Droget´ en historia.

### **208. Droget "El Vasquito" (ERM-038/008)**

`Droget&acute; berriz itzuli zen Mexikora. "Balientea" eta "salaua". Gizon ona, mundu guztiari laguntzen ziona. Ez daki nola egin zituen diruak. Droget "El Vasquito" esaten zioten.

### **209. Gerra osteko alkateak (ERM-038/012)**

Datuak bidali zituen Diputaziora, baina bueltan oker etorri ziren. Gerra osteko alkate eta zinegotzi batzuen izenak.

### **210. Pianoa kendu batzokitik (ERM-038/013)**

Bizente Olañeta falangeko buruzagiak batzokiko pianoa kendu eta Don Teodororen etxeko saloira eraman zuen. Handik urte askora itzultzeko ahalegintxo bat egin zen; baina ahalegina ez zen gauzatu.

### **211. "Baserriko alaba zera baina eres muy lista" (ERM-038/015)**

Antzerkiak alaitzeko erabiltzen ziren pianoak. Kantu elebidun bat kantatzen digu. Antzerki asko egiten zen orduan, karlistek ere bazuten taldea. Teatroa non zegoen.

### **212. Karlistak zein nazionalistak antzezle onak (ERM-038/016)**

Antzerki asko egiten zen. Nazionalistek eta karlistek bakoitzak bere taldea zuten. Antzezle onen izenak. Maria "Txindurri"ri egin zioten bihurrikeria. Mutikoak ziren artean eta ikusteko gogo biziz egoten ziren.

### **213. Ermuko batzoki berria (ERM-038/017)**

Lehenengo batzokia Ostatuan egon zen. 1935. urtean batzoki berria egin zen. 75.000 pezeta kostatu zen. Santos Matxinek prestatu zuen dirua. Pilotari ona, Habanan ibili zen. Hilean 18.000 pezeta irabazten ei zituen 19-20 urterekin.

### **214. Akzioak batzokian (ERM-038/019)**

Duro bat balio zuen akzio bakoitzak eta berak eta beren familiak ere erosi zituzten batzuk. Geroago, zeharo arruinatuta geratu zen familia, dena ostu zieten eta.

### **215. Berak asmatutako kukuaren kanta (ERM-038/022)**

"Kuku, tararai, kuku", berak asmatutako kukuaren kanta kantatzen du. Hiru estrofa eder.

### **216. Kukua eta txantxangorria (ERM-038/023)**

Kukuak txantxangorriaren habian egiten du arrautza eta honek berotzen du eta umea eragiten dio. Azalpenak. Nola bururatu zitzaion kantua. Amilotxari buruzkoak.

### **217. Mutiko "etsikorra" (ERM-038/024)**

Ez da ehiza eta txori zalea izan. Izaera "etsikorra", 'indómito'. Kartzelan sartu zuten 9 urterekin, trenari harrika egiteagatik. Bidaiari bat jo zuten sudurrean.

### **218. Dena harrapatu gerra denboran (ERM-038/026)**

Dena harrapatu zieten gerra denboran: gutunak, altzariak, mantak... Eskerrak berak zilarrezko diruak gordeta zituela. Horrek salbatu zuen familia.

### **219. Arrantxoa ukatu Ermuan (ERM-038/027)**

Gose denboran hiru anai-arreba joan ziren Ermura arrantxoa ematen zuten lekura eta ukatu egin zieten.

### **220. Arrazionamentua (ERM-038/028)**

Ogia, olioia, tabakoa... arrazionatuta zeuden. Pertsonako honenbeste ematen zuten, ordainduta, jakina.

### **221. Batzokia gerrako harrapakina (ERM-038/032)**

"Botín de guerra" deklaratu izan ez balute batzokia, berreskuratu ahal izango zuten. Franco hil zenean, indarrez hartu zuten. Hondatuta zegoen dena. Diru mordoia gastatu zuten batzokia konpontzen.

### **222. Ermuko erreketan arrantzan (ERM-038/034)**

Ermuko erreketan putzua putzuaren ondoren zegoen, eta sargo-ekzailu eta kangrejo ugari harrapatzen zuten. Guardia zibilei nola egiten zien ihesi lagun pilotariak. Sareaz arrantzan.

### **223. Aita, gizon zuzena (ERM-038/038)**

Aita gizon ona eta zuzena ei zen. Ermuko alkate zelarik, Santiagoetan kanpotik banda ekartzen zen urtero. Baina urte baten ez zegoen dirurik ordaintzeko. Eibarko musikari lagun batekin izandako harremana. Herriko pobreei ardoa eta jeneroa banatzen.

### **224. Mozkor asko Ermuan (ERM-038/040)**

Jendeak asko edaten zuen. 14 baso handi edan zituen baserritarraren kasua.

### **225. Titiño Zarra (ERM-038/042)**

Pertsonaia zelebrea Titiño Zarra. "Epetan" ordaintzen zuen, zorretan. Nola ezabatu zituen zorrak. Pasadizo barregarria.

### **226. Ermuarra Bartzelonan (ERM-038/043)**

Ameriketara zihoan anaia despeditzera joan zen behin Bartzelonara, eta han Ermuar batengana joan. Hark emandako opariak ekarri zituen bueltan.

### **227. Mardarastarrak (ERM-038/045)**

Mardaras anaiak zelebreak ziren. Bata trenak harrapatuta hil zen. Besteak ipurdiaz apurtzen zituen intxaurrak.

### **228. Unamunoren istorioak (ERM-038/047)**

Unamuno; antzerkilari ona baina kantari txarra zen ermuar baten istorioak.

### **229. Errementariak (ERM-038/049)**

Errementaritza bakarra zegoen Ermuan. Laborantza tresnak egin eta konpotzen zituzten. Mallabian baziren gehiago. Gero Berdingillon ipini zuten, Zaldibarren.

### **230. Karea (ERM-038/050)**

Karea Ultzaman egiten zen. Oraindik ere urtero egiten dute Satamaiñan, Zaldibarren.

### **231. Ermuko zaharrenen zerrenda (ERM-039/002)**

Ermuan bizirik dauden pertsona zaharrenen zerrenda.

### **232. Amak neska nahi (ERM-039/004)**

Bera 1925ean jaio zen. Jaiotegunari buruzko anekdota bat: Uste baino egun bat lehenago jaio zen. Amak esan zion neska bat nahi zuela, baina hala ere pozik zegoela, zatarra jaio zenez neska baino hobeto defendituko zelako.

### **233. Eskola Txikixa (ERM-039/007)**

Sei urte arte Eskola Txikixan ibili zen. Handik aurrera herri-eskolan. Hemen, neskak eta mutilak aparte. Maisu arabar bat, Don Paco, irakasle ona izan zen.

### **234. Droget. "Si supieran los curas y frailes..." (ERM-039/012)**

Droget errepublikanoa zen. Gizon handia eta sendoa. Maiatzaren 1eko anekdota: errepublikazaleak "Si supieran los curas y frailes..." kantatzen entzun zituen eurak dotrinara zihoazenean.

### **235. Seigarren mandamendua nagusi (ERM-039/013)**

Bera akolitoa izan zen (monagiloa). Gutxienez bost apaiz zeuden Ermuan. Konfesatzen lan handia ei zuten. Seigarren mandamenduko bekatuak ziren inportanteenak. Andrazkoek denbora asko egiten zuten konfesatzen.

### **236. Armeria Eskolara 1938an (ERM-039/015)**

1938an hasi zen Armeria Eskolan, oraindik gerra amaitu gabe zegoela. 18 ikasle ziren bakarrik. Bigarren urtean 40. Irakasleen izenak.

### **237. Aitaren pistola fabrika (ERM-039/016)**

Aitak tailerra zuen. Gerra aurrean pistolak egiten zituzten, gero erremintak: mailuak, alikateak eta abar. Gerra denboran obusendako piezak ere bai.

### **238. Aita bandako zuzendari (ERM-039/017)**

Lantegi jabeaz gain, bandako zuzendaria zen aita. Errepublikazaleek kartzelara sartu zuten eta han musika-pieza ezagun bat konposatu zuen. Elizako koruaz.

### **239. "Re-si" (ERM-039/018)**

Aitak konposatutako biribilketari "re-si" deitzen dio, lehen bi notak direlako. Solfeatu egiten digu. Aitak klarinetea jotzen zuen. Ermuko banda zuzendarien izenak.

#### **240. Saxofonista bandan (ERM-039/019)**

Saxofoia (si bemol) jotzen zuen berak. Komentarioak. Ermuko bandaren osaera: Musika tresnak eta jotzaileak.

#### **241. Zergatik galdu zen Ermuko banda (ERM-039/023)**

1972ean desagertu zen Ermuko Banda, diru arazoengatik, batik bat. Zinegotzi eta alkateekin izandako elkarrizketak.

#### **242. Bandaren ekitaldiak (ERM-039/025)**

Udan dantza-soinuak jotzen zituzten domekero plazan. Jai handietan prozesio guztietan. Pasakalleak jaietan.

#### **243. Orduko txanpon txikiak (ERM-039/028)**

Ordaindu egin behar dantza egiteagatik. Jostorratza ipintzen zuten papertxo batekin. Orduko txanponak: pezeta, errialbikoa, erriala, txakur haundia eta xemeikoa (txakur txikia).

#### **244. Jazban-taldean subasta (ERM-039/030)**

Bandak jotzen zuenean doan izaten zen. Jazbana subastara irteten zen eta musika-talde askok pujatzen zuten jaietan jo ahal izateko. Gero gizonezkoei kobratzen zieten dantzan egiteagatik. Eguraldi txarra bazen, suspenditu egiten zen.

#### **245. Ermuko tabernak (ERM-039/032)**

Ermuko tabernak zerrendatzen ditu. Dozena bat taberna egongo ei ziren. Mozkor asko, bi edo hiru zeuden beti mozkortzen zirenak. Eitzagako tabernan sortu zen eztabaida.

#### **246. Elizan eta txikiteoan kantuak (ERM-039/034)**

Elizan asko kantatzen zen eta txikiteoan ere bai. "Goiko Mendian" kantatzen digu.

#### **247. Zarzuelak (ERM-039/036)**

40. urtean egin ziren lehenengo zarzuelak Ermuan: La del manojo de rosas eta Katuska. Zeintzuk parte hartu zuten.

#### **248. Ermuarren asmazio jolasa (ERM-039/039)**

Ermua osoa ezagutzen zuten. Lagunarteko jolasa: Ermuko pertsona bat pentsatu eta besteak asmatu egin behar zuen galderak eginez, "hotz" edo "bero" erantzuten zitzaizalarik.

#### **249. Arbitroa izandakoa (ERM-039/040)**

Mallabira eta Trabakuara joaten ziren dantzara. Ez da kirolaria izan. Pilotan ez zen ona, futboleant ez zain ipini zuten, baina hartan ere ez zen ona, eta gerora arbitroa izaten zuen. Ermuko futbol-zelaia inauguratu zutenean arbitratu zuten.

### **250. Oinez leku guztietara (ERM-039/043)**

Erroneko taberna jatetxe famatua zen. Dantzan ere egiten zen. Bertako jendea bezero. Lau auto zeuden gerra aurrean Ermuan. Oinez mugitzen ziren inguruko herrietara.

### **251. Familia handiak Mallabian (ERM-039/045)**

Mallabiak Ermuak beste biztanle zituen gerra aurrean. Baserrietan "esku-bihar" behar zen.

### **252. Kontuz 80 urtera heltzean (ERM-039/048)**

Behin lagun batek esan zion 80 urtera iristean alde guztietan izaten direla ajeak, eta berak ere bere larruan frogatu du hori. Makinei ere berdina gertatzen ei zaie. Zuka berak lagunari, lagunak, berriz, hika.

### **253. Euskaraz egiteagatik zigorra (ERM-040/004)**

Doña Victoria zen maistra. Lau erregelak baino askoz gehiago ez zuten ikasi. Zigortu egiten zituen haurrak euskaraz egiteagatik.

### **254. Zaldarraren istorioa (ERM-040/006)**

Gertakizun barregarria: lagun bat negarrez zegoen zaldarra lehertu zitzaiolako. "Se le ha reventado el pescuezo" abisatu zion Agusek maistrari, "divieso" hitzarekin nahastu zuelako. Lotsa-lotsa eginda geratu zen.

### **255. Medikuari "merito" (ERM-040/008)**

Erdaraz ez zekien. Behin, erdaldun bat zegoen etxean, eta Agusek kontatu zuen zeintzuk egon ziren ikasturte bukaerako ekitaldian, tartean "el mérito", "el médico" esan beharrean.

### **256. Ahizparen heriotza (ERM-040/010)**

Hamazortzi urterekin hil zen bere ahizpa nagusia gaitz ez oso larri batek jota. Trauma handia izan zen familiarentzat eta senargaiarentzat. Ume bat hil zitzaion berari. Medikuntza oso atzeratuta zegoen. Oso ederra ei zen ahizpa.

### **257. Gatzizen asko Ermuan (ERM-040/011)**

Gatzizen asko dago Ermuan. Batzuk aipatzen ditu. "Lomiñonekuak" dira eurak. Orain etxe dotorea da, baina lehen txerrikorta bat ei zen.

### **258. Lagun karlisten jarrera-aldaketa gerra ostean (ERM-040/013)**

Lagun karlistak eta nazionalistak elkarrekin ibiltzen ziren. Eurek (nazionalistek) agintzen zuten sasoiari, Errepublikaren denboran, denak lagunak ziren, baina gerra ostean karlistak agintzera pasatu zirenean, neska karlistak karlistekin joan ziren eta mespretxuz tratatzen zituzten lagun nazionalistak.

### **259. Emakume Abertzale Batza (ERM-040/015)**

Emakume Abertzale Batza zen euren taldea. Gerra bukatu eta ihes egindakoak etxera bueltatzen zirenean, geltokian zain egoten ziren karlista batzuk eta kartzelara eramaten zituzten.

### **260. Aita gaixoaren bila (ERM-040/016)**

Aita ihesi joan zen gerra denboran, eta gaixorik zegoen Bizkaiko herri batean. Agus joan zen joan zen hura etxera ekartzera. Salbakonduktoa Eibarko militar batek eman zion. Auto bat gelditu eta aitaren bila joan zen. Gertatutako gorabeherak.

### **261. Anaia itsasontzi-espetsuan preso (ERM-040/018)**

Anaia preso egon zen: lehendabizi kartzelan, eta gero barkuan. Gogorra ei zen. Abertzaleak zirelako eduki zituzten.

### **262. Tia Ambrosia, emakume barriketalaria (ERM-040/021)**

Tia Ambrosia abertzale gogorra ei zen. Kartzelan egon zen bere txerriari "Karlos" ipintzeagatik. Oso saltzaile ona ei zen, oso hiztuna ere bai; gizona, berriz, isil-isila. Hain nekatuta ei zeukan, "bai" esan beharrean "fai" erantzuten ei zuen.

### **263. "Sartzen zaittuenean kartzelara heuk be ikasikon eitten" (ERM-040/022)**

Kartzelan egindako saski batekin kanean zihoala, karlista batekin izandako solasa. Tia Ambrosia sekulako elementua ei zen. Bi alaba ihesi eginda zituen, eta Agus joaten zen hari laguntzera.

### **264. Elantxobeko itsasoa nahiago lbarrangeluko artaburuak baino (ERM-040/025)**

Tailerra zigilatu zieten. Mutilak gudari zeuden; familia Elantxobera joan zen lehenengo, eta lbarrangelura gero. Elantxobe gustatzen zitzaion, baina aldapa handiak zeuden; eta, gurasoak zaharrak zirenez, lbarrangelura aldatu ziren. Itsaso ederra ikustetik artaburuak ikustera pasatu zen, penaz.

### **265. Karlistak eta bizkaitarrak borrokan (ERM-040/026)**

Karlistak eta bizkaitarrak borrokan egiten zuten sarri. Karlisten burua hil egin zuten gerra hasi zenean. Nazionalistek babesa eskaini ei zien, baina ez ei zuen nahi izan. Agusek lagun karlista asko zuen.

### **266. Egunero mezetara Gerian (ERM-040/028)**

Gaztetan Geriara joaten zen egunak pasatzera, esne-bezeroen baserrira. Bera zen astegunean mezara joaten zen bakarra. Trabakuan egoten zen dantza, baina ez zitzaion gustatzen hango jira.

### **267. Guztiz "pura" izan nahi (ERM-040/029)**

Besotik heltzen ere ez zion uzten nobioari. Ez laztan, ez ikutu eta ez ezer. Oso enamorata zegoelako aguantatu ei zuen. Barruraino sartuta zuen garbia, "pura", izan behar zuela. Orain ez luke hori egingo. Oso elizkoia zen.

### **268. Barre egitea ona da eta egin hurrengo be (ERM-040/032)**

Egunero komulgatzen zuen eta astero konfesatu. Larregikoa zela onartzen du baina hala ere zoriontsu sentitzen zen. Behin konfesionarioan apaizak erantzundakoa: hurrengo be dibertitu, barre egitea ona da eta.

### **269. Ihiak prozesio bidean (ERM-040/035)**

Ez zen prozesio zalea, baina joaten zen. Ihiak botatzen ziren lurrean prozesio pasatzen zen tokian. Bera larregikoa izan da erlijio kontuetan baina ez du damurik.

### **270. Gogo-jardunak (ERM-040/037)**

Aste Santuan predikatzailleak etortzen ziren. Gogo-jardunak (ejerzizioak ) egiten ziren. Kanpoan ere egiten zituen Agusek: Bilbon, Loiolan eta abar. Berari gustatu egiten zitzaizkion.

### **271. Ezin mutilekin dantzan egin (ERM-040/039)**

'Acción Católica'-koak zirenez ezin zuten mutilekin dantzan egin. Behin Bandako zuzendariak adarra jo zieten, dantza soltean ari zirela poliki-poliki jotzen hasi baitzen pieza, eta ezin dantzatu. Oso tontak ei ziren. Baina orduan halaxe ziren gauzak.

### **272. Ezin esan nobioari komunera zihoala (ERM-040/044)**

Lehengusina bat nobioa kalean utzi eta etxera etortzen zen txixa egitera. Ez zion esaten nobioari zertara zihoan, hainbestearainokoa zen errepresioa. Komun gutxi orduan.

### **273. Gudari maisu ilehoriarekin ezkondu (ERM-040/046)**

Nobioa gerra denboran ezagutu zuen; gudaria zen, maisua lanbidez. "Hori zuretzako modukoa da" esaten zion lagun bati. Itsasontzi-kartzelako bisita batean hasi zen harremana. Gutunak eta harrezkeroko gorabeherak.

### **274. Senarra maisu Zaldibarren (ERM-040/047)**

Senarrak ez zuen nahi bizi zen herrian lana egitea. Zaldibarren egon zen maisu. Oso estimatu eduki zuten. Etxea eskaini zieten Zaldibarren baina ez zuten joan nahi izan.

### **275. Gabon eskean (ERM-040/049)**

Aldabak jo eta horrelako okerrak egiten zituzten. Gabonetan, eskera irteten ziren. Jauregian bizi zen laguna nola lotsatu zuten etxe batean. Gabon kantu bat kantatzen digu: "Agillando, agillando, bizkaitarrak Durangon..."

### **276. Akolito mutikotan (ERM-041/003)**

Bi urtez akolito (monagilo) egon zen. Don Crispulok oso txukun izaten zuen sakristia. Bere monagilo propioa ez beste guztiak oso estu hartzen zituen. Erreronera joaten ziren ikatz isiotuaren bila intsentsu ontzia sutzeko.

### **277. Aitaren txabola (ERM-041/005)**

Lursailtxo bat zuten eta baratzea, konejuak eta abar izaten zituzten. Ur korrontea zuen barrika eta eguzki-erloju berezia.

### **278. Konpas = txukun (ERM-041/007)**

Sasoi hartan "konpas" berba asko erabiltzen ei zen txukun, ordenatu, zentzuan. Don Crispulogatik dio "konpas" izaten zuela sakristia.

### **279. Elizakoak eta errogatibak auzo eta baserrietan (ERM-041/009)**

Hiletetan 3 edo lau akolitok hartzen zuten parte. Auzoetara ere joan izan zen inoiz elizakoak eroatera eta errogatibak egitera. Armozua eta gailletak ematen zizkieten zenbait etxetan

### **280. Artamendiren sastrerian beharrean (ERM-041/011)**

Eibarko Artamendiren jostundegian hasi zen lanean ikaste aldera. Lanetik irtendakoan eskolara joaten zen. Bost urte egin zituen lanean baina ez zuen ofizioa ikasi. Gero etxeko tailerrean sartu zen lanean.

### **281. Mutil formala, nahiz eta "drogia" apur bat gustatu (ERM-041/012)**

Mutiko formala izan da eskolan, nahiz eta "drogia" apur bat gustatu, lagunekin isilpean berrikerian ibiltzea eta horrela. Diktaketak, gramatika, zatikiak eta horrelakoak ikasten zituzten.

### **282. Eibarko euskaraz zarraparra gehiago (ERM-041/013)**

Eskola eta liburuak erdaraz txikitari. Sallabentzen euskaraz ematen zen eskola. Etxean eta lagunartean beti euskaraz, Ermuko euskaraz. Euskara batuari eta Eibarko euskarari buruzko komentarioak. Bakioko "aittu" (aditu) batek kargu hartzen zien euskara txarra egiten ei zutelako.

### **283. Txintxurrian eta sokasaltuan (ERM-041/015)**

Txintxurrian (marra batzuk lurrean egin eta hankaz harri bat bultzatzen) eta sokasaltoan ibiltzen ziren jolasean. Bera txikia eta argala zenez, oso ajila eta bizkorra zen.

### **284. Gerra denboran txandak zaintzen (ERM-041/016)**

Gerra denbora garai txarra izan zen, beti txandatan janaria lortzeko. Frontea oso hurbil zegoen eta elizan intendentzia. Meza beste leku batean ematen zen. Estankoko emakumeak laguntzen zion Durangora gauzak ekartzen.

### **285. Anaiak bando bietan soldadu (ERM-041/017)**

Gorriek alde egin zutenean, euren eman zizkieten udaletxeko giltzak. Lau edo bost anaia zituen soldadu, batzuk alde batean eta besteak bestean. Ongarai baserrian egon ziren gerra denboran.

### **286. Jana lortzeko komeriak gerra denboran eta ostean (ERM-041/019)**

Armadako sukaldari batzuk giputzak ziren, ezagunak zituzten; eta, mutikoak joaten zitzaizkienean, jana ematen zieten: paella, normalean. Beti ilaran janari zain. Urte gogorak, baina zelan edo halan irten zuten aurrera.

### **287. Gazte denbora elizaren inguruan (ERM-041/020)**

Gazte denbora elizaren inguruan eman zuen: luistarrak, 'Acci&oacute;n Cat&oacute;lica'... 'Acci&oacute;n Cat&oacute;lica'k lokal bat zuen kafetegia eta areto batekin, eta txandaka tokatzen zitzairen haren ardura.

### **288. Erromeriak (ERM-041/021)**

Gaztetan inguruko erromerietara joaten ziren asko: Areitio, Trabakua, Geria... Geroago hasi ziren Eibarrera-eta joaten.

### **289. Gose denborako bihurrikeriak (ERM-041/022)**

Gaztetan nahiko basatiak ziren: mailuki edo madari lapurretan sarri ibiltzen ziren. Goseagatik ere bai apur bat. Patatak ere harrapatu izan zituzten. Morokila egin izan zuten, nahiz eta berari gustatu ez.

### **290. Egurrezko eskailera batekin "eskiatzen" (ERM-041/023)**

Lagun batzuek egurrezko eskailera bat aldapa handi baten gorenera eroaten zuten, lau edo bost mutiko gainean jarri, eta abiada batean jaisten ziren. Lekuari buruzko azalpenak.

### **291. Errekara bainatzera (ERM-041/024)**

Euren koadrilla Bolueta eta Berano aldera joaten zen udan errekan bainatzera. Oso hotza egoten zen ura. Ez du gogoan bainujantzia erabiltzen zutenik. Etxean egindako zerbait izango zen, beharbada. Galtzontziloak ere gutxi erabiltzen zituzten.

### **292. Kangrejotan (ERM-041/025)**

Inguruko erreketan kangrejo asko harrapatzen zuten. Sargu-ekzailuak ere bai presan-eta zakuz egindako sarek.

### **293. Kantuan (ERM-041/027)**

Asko kantatu izan dute. Oraindik ere bai. Trabakuan egindako kantu-saioa aipatzen du. "Ez detsut irigiko" eta "En mi viejo San Juan" abesten ditu. 19 lagun elkartu ziren, denak 80 urtetik gorakoak.

### **294. Hanbreko Josefa, tabernari berezia (ERM-041/029)**

Hanbre tabernako Josefa beti jokoan ibiltzen zen. Bezeroak prestatu behar zuen janaria. Kontuak egiterakoan gorabehera barregarriak. "Arraixua".

### **295. Komedianteak eta antzerkilariak (ERM-041/030)**

Komedianteak etortzen zirenean bizkor asko joaten zen ikustera. Malabarismoak, ahuntzaren numeroa, eta antzerkitxoak ere bai. Behin gizon bat lurperatu zuten eta ordu laurden baino gehiago egon zen irten barik. Gero nagusiagoak etortzen ei ziren Probalekura, "más fulanitas", beste estilo batekoak. Ermuarrek ere antzezten zuten, zarzuelak eta horrelakoak. Horiek ikustera ere bera lehena.

### **296. Peora bakoitzean tailerra (ERM-041/031)**

Bere kalean tailerrak zeuden atari guztietan. Lima-lana egiten zen asko. Jertseak-eta egiteko lantegitxo bat ere jarri zuten andre batzuek. Gerra aurrean pistolak eta eskopetak egiten ziren asko.

### **297. Habiak ikusten aitarekin (ERM-041/032)**

Gerra aurretik ez zegoen eskopeten kontrolik, baina gero dokumentazioa behar zen. Ehiztari asko familian. Aitak habiak ikustera eramaten zuten,

txepetxarena, esaterako. Txoriek inguruan jendea nabaritzen badute "gorrotau", zapuztu, egin dezakete beren habia. Txori izenak.

### **298. Etxeko tailerreko lanak. (ERM-041/036)**

Ebanisteriako gauzak, autoentzako piezak, forja eta horrelakoak egiten zituzten etxeko lantegian. Burdina gogortzeko tenpleaz xeheetasunak.

### **299. Burdina gogortzeko prozesua (ERM-041/038)**

Burdina altzairu bihurtzeko prozesuaz azalpen teknikoak. Gatz klase diferenteak erabiltzen ziren saldara botatzeko eman nahi zen gogortasunaren arabera.

### **300. Pedro Kaskillo beti ardangelan sartuta (ERM-041/041)**

Pedro Kaskillok ipurdiarekin intxaurrak apurtzen zituen. Popularra ei zen oso. Pedro Kaskillo beti ostatuan "ardangelia" esaten zioten lekuan sartuta egoten zen. Eurentzat "cuarto oscuro" da ardangela, ardoa ilunetan egoten zelako. Sotoa, azken batean.

### **301. Txindurri (ERM-041/043)**

Txindurri oso pertsonaia famosoak izan zen. Geltokiko langilea zen. Mutikoekin demandan. ibiltzen zen. Jeneroa garraiatzen zuen dendetara eta. Bertsolaria ere bazen.

### **302. Tailerretik elizara kanpaiak jotzera (ERM-041/045)**

Tailerretik kanpaiak jotzera irteten ziren lagun bat edo bi, edo Aste Santuan santuak ateratzera. Konfiantza handia zegoen orduan, normala zen beste tailer batera joan eta norberarentzat zenbait lan egitea.

### **303. Ermuko arkitektoa (ERM-046/003)**

Umetako Ermua. Ermuko arkitektoak planoak eginak zituen herria zela eraiki adierazten zutenak, baina ez zieten jarraitu. Gerra garaian fusilatu egin zuten.

### **304. Ermuko tabernak (ERM-046/004)**

Ermua urte batzuetan erabat aldatu dela dio. Ermuko taberna batzuk izendatzen ditu.

### **305. Txikiteoan denak (ERM-046/005)**

Txikiteoan denek egiten zuten. Arratsaldez bai baina eguardian ez zuten egiten. Ardoa edaten zuten. Basoerdia eta txikitoa gauza bera ziren. Bere lagunartean berba gehiago egiten zuten kantatu baino.

### **306. Ermuan euskara zergatik galdu zen (ERM-046/006)**

Gaztetan politikaz hitz egitea libre zen. Euskara zergatik galdu zen Ermuan azaltzen du.

### **307. Ermuko eskolan eta armeria eskolan (ERM-046/008)**

Gerra ostean armeria eskolan ibili zen baina utzi egin zuen, lan eskaintza batengatik. Bi urte han lan egin ostean, soldadutzara joan zen. Aurretik, Ermuan plazako eskolan ibili zen. Zelakoa zen kontatzen du.

### **308. Kanpaiak jotakoan babeslekura (ERM-046/009)**

Gerra garaian kalean ibiltzen ziren, eskola itxita zegoelako. Kanpaiak jotzen zituztenean, ezkutatu egiten ziren. Hegazkinak ikusten zituztenean, mendian etxapliroak botatzen zituzten eta ondoren kanpaia jotzen zuten.

### **309. Kanpai txikia eta txilina (ERM-046/010)**

Mezetarako deia kanpai txikiarekin jotzen zuten. Txilina barruko kanpaiari esaten zioten.

### **310. Ermuko babeslekuak (ERM-046/011)**

Hegazkinen abisua zetorreanean, babeslekuetara joaten ziren herritarrak. Ohitu ere egin ziren hegazkinak ikustera. Babeslekuak non zeuden azaltzen du: kanpandorrean, zubi berrian... Burdinezko zubia bonbardatu egin zuten.

### **311. Dendetarako materiala trenez (ERM-046/014)**

Treanean zetozen materialak Txindurrik banatzen zituen dendetara, astoarekin eta gurdiaekin. Orduko dendak aipatzen ditu.

### **312. Garai bateko egunkariak (ERM-046/015)**

Albisteak egunkarien bitartez jakiten zituzten. Orduko egunkariak izendatzen ditu eta non saltzen zituzten azaltzen du.

### **313. Aita grabatzailea (ERM-046/016)**

Aitak grabatzaileentzat eskumuturrekoak egiten zituen, damaskinatuarentzat oinarria egiten zuen. Gerra garaian laguntzen aritzen zen baina ez zen bere gustuko lana. Kalean edo basoan ibiltzea nahiago zuen.

### **314. Grabatzaileak eta marrazkilariak (ERM-046/017)**

Juanen emaztea grabatzailea izan zen. Eibarko batentzat lan egiten zuen. Eibarko grabatzaile eta marrazkilariak aipatzen dituzte.

### **315. Dantzarako lekuak (ERM-046/018)**

Erromeriara Trabakura joaten ziren. Berriatura eta Ondarroara joaten ziren bizikletaz. Eibarko Astelena frontoira joaten ziren dantzara. Eibarko Rialto antzokian ere dantzalekua zegoen.

### **316. Balazorroak batu eta saldu (ERM-046/020)**

Fusilen balazorroak batzen zituzten gaztetan, saldu eta diru pixka bat eskuratzeko. Nori saltzen zizkioten azaltzen du.

### **317. Komertzializazioaren garrantzia (ERM-046/022)**

Komertzializaziorako gaitasunik ez zeukaten lantegian. Egin eta saltzen jakin behar zen. Bi aparatu patentatu zituen.

### **318. Etxeko lantegia (ERM-046/023)**

"Hermanos Urreta" izena zeukan lantegiak. Lan asko egiten zuten; ez zeukaten egutegi eta ordutegi zehatzik urte askoan.

### **319. Lantegiko makinak (ERM-046/024)**

Makina gutxi zituzten. Eibarko Azitainen erosi zuen behar zuena. Bere tresnak erakusketetan erabiltzen dituzte.

### **320. Ermuko lantegietan egiten zutena (ERM-046/026)**

Ermuko lantegietan zer egiten zuten kontatzen du.

### **321. Forjako lanak (ERM-046/027)**

Forjako lanak azaltzen ditu; norik egiten zituen ere bai.

### **322. Forjako piezak (ERM-046/028)**

Forjarekin piezak ateratzeko egin beharreko lan-prozesuak azaltzen ditu.

### **323. Nikelatzea, akabatzea, trokelatzea (ERM-046/029)**

Lantegietan egiten zituzten prozesuak azaltzen ditu; nikelatzea eta akabatzea zer diren, trokelean ateratzea zer den...

### **324. Grabatua eta damaskinatua (ERM-046/030)**

Lantegian egiten zituzten prozesuak azaltzen ditu. Metala eta alpaka erabiltzen zituzten. Damaskinatuan nola lan egiten zuten azaltzen du.

### **325. Edateko ura (ERM-046/032)**

Elizapean zeuden iturrietatik edaten zuten Ermuan. Etxean San Palaixoko ura edaten zuten.

### **326. Lantegi txikiak (ERM-046/033)**

Atari bakoitzean lantegi txiki bat zegoela dio. Hainbat izendatzen ditu. Orain baino gutxiago behar zela bizitzeko dio.

### **327. Terrailak eta ardatz-etxeak (ERM-046/034)**

Terrailak eta ardatz-etxeak zer ziren azaltzen du.

### **328. Senideak armaginak (ERM-146/002)**

Bere anaia arma kontrabandoan harrapatu zutenean, lantegia itxi behar izan zuten. Aita, aitona eta birraitona armaginak izan ditu.

### **329. Ermua armagina (ERM-146/003)**

Erakusketan izan zituzten hainbat pistola baina guardia zibilek gerra aurrean apurtu egin zizkieten armak, debekatu egin zituztelako. Ermuarrak armagintzatik bizi zirela dio, eibartarren moduan. Pistola automatikoak egiten zituzten. Materiala eta makinak Eibartik ekartzen zituzten.

### **330. Garai bateko Ermua eta orduko baserriak (ERM-146/005)**

Mila eta ehun lagun inguru ziren. Betiondo etxearen izena nondik datorren kontatzen du. Lominokua jauregia dela etxerik zaharrena dio. Beste batzuk aipatzen ditu. Ermuko baserri batzuen izenen jatorria aipatzen du.

### **331. San Martin ermita (ERM-146/007)**

San Martin ermitaren arrastoa ezagutu izan du. Beste San Martin bat Mallabirekin mugan zegoen. Untzama izena nondik datorren ez daki.

### **332. Piztien ehiza (ERM-146/010)**

Gogoan du aititari entzunda piztiren bat hil zutela etxe inguruan. Ehizarako zaletasuna zegoen eta gerra garaian asko ehizatzen zituzten basurdeak. Erbiak, azeriak eta basurdeak ehizatzen zituzten. Anekdota bat kontatzen du.

### **333. Arrantzan errekan (ERM-146/011)**

Arrantzan egiten zuten Ermuan eta Eibartik pasiaran etortzen ziren nagusiek erosten zizkieten arrainak. Eskailuak, sarbuak, karramarroak eta beste harrapatzen zuten. Amuarrainak Eitzan egoten ziren.

### **334. Ermutik Eibarrera bitarteko errotak (ERM-146/012)**

Ermutik Eibarrera zeuden errotak izendatzen ditu. Ola eta errota gauza bera direla dio.

### **335. Droget nor zen (ERM-146/013)**

Droget bere senidea zen, Laureano Aranburu. Pilotan ondo egiten zuen. Arma lantegia zeukan.

### **336. Astelehenetan lanik ez, pilotan bai (ERM-146/014)**

Pilotan asko egiten zen. Astelehenetan ez zen lanik egiten.

### **337. Txomin Mallabiren ipuina (ERM-146/017)**

Sorginen ipuin bat kontatzen du, Txomin Mallabirena. Mozorrota eta edozein izan zitekeen sorgina, bestea beldurtzeko.

### **338. Sorginei buruz kontatzen zieten (ERM-146/018)**

Umeak beldurtzeko erabiltzen ziren sorginak; kobetan bizi zirela esaten zieten. Lezea non dagoen kontatzen du. Pasarte bat kontatzen du. Anbotoko sorginarena zaharrek esaten zituzten ipuinak direla dio.

### **339. Karlisten kantua (ERM-146/019)**

Herrian bertsolaririk ez dela izan dio. Lehen hizkeragatik zein herritakoa zen erraz jakitzen zela dio. Kanturako zaletasuna egon izan da; gehienetan politikari lotutako kantuak izaten ziren. Karlisten kantu bat abesten du.

### **340. Bonbardaketak (ERM-146/021)**

Ermuko bombardaketak. Bonbak nora bota zituzten kontatzen du.

### **341. Errebarri etxea (ERM-146/022)**

Errebarri dela Arrabal dio, erretako harriengatik zelako. Baserria zen eta non zegoen esaten du.

### **342. Leku izenak eta baserriak (ERM-146/023)**

Ermuko erreka Ego da. Eibar beharrean, Ibar omen zen lehen. Elgoibar Egoibar zela dio, erreka izenetik. Zaldibar, zaldien ibarra zela dio. Urkoko baserriak

aipatzen ditu, baita bertako bizilagunak ere. Elorretako baserriak aipatzen ditu, baita bizilagunak ere.

### **343. Errementaria (ERM-146/029)**

Ermuan ardirik ez da egon izan apenas. Errementaria non zegoen esaten du.

### **344. Dirudunak: Orbetarrak, Murga... (ERM-147/002)**

Andres de Orberi buruz hitz egiten du. Markesa zen eta Ermuan jaio zen. Orbetarrei buruzkoak aipatzen ditu. Teresa Murgak etxeak , baserriak eta lurrak zituen baina Markinan bizi omen zen.

### **345. Aita teilagilea (ERM-147/004)**

Aita teilagilea zuen. Elgetara bidean buztina hartzen zuten, moldeak egin eta erre egiten zituzten. Antoniok ere erabili izan ditu.

### **346. Ikazkinak Ermuan (ERM-147/005)**

Ikatza egurrarekin egiten zuten. Prozesua kontatzen du. Lantegietan eta etxeetan erabiltzen zen ikatza. Herriz herri saltzen zuten ikatza zakuetan.

### **347. Argindarra ekarri zutenekoa (ERM-147/006)**

Bera jaio aurretik dago argindarra. Lehenengo zeinek eduki zuen argia kontatzen du. Errotarekin sortzen zuten indarra.

### **348. Irratiari beldurra (ERM-147/007)**

Irratia berrikuntza handia izan zen. Baziren irratiarekin beldurtzen zirenak ere. Telebistak berehala zabaldu ziren.

### **349. Serenoaren zereginak (ERM-147/008)**

Serenoa zegoen Ermuan. Eraso ziotelako, arma eskatu zuen eta harekin ibiltzen zen. Batari eta besteari abisuak ematen aritzen zen. Foralak ere bazeuden eta ertzainen funtzioa betetzen zuten.

### **350. Abarketagile azkoitiarra (ERM-147/009)**

Abarketagilea bazegoen, azkoitiarra, baina gero akabatzaile ikasi zuen eta abarketak egiteari laga zion. Sokekin kopetak egiteko kale osoan zehar jartzen ziren. Konpetentziagatik utziko zuela uste du Antoniok.

### **351. Komedianteak eta euskarazko antzerkia (ERM-147/010)**

Zorroztaileak pasatzen ziren Ermutik, baita komedianteak ere. Batzuk hiru edo lau egunean egoten ziren. Ez ziren euskaldunak izaten. Baina antzerkia bai, euskarazkoa izaten zen. Zeintzuk aritzen ziren kontatzen du. "Anai biak" zen obra baten izena.

### **352. Santiago jaiak (ERM-147/011)**

Santiago bezperan, ardoa debalde ematen zuen udalak. jaietan zehar musika bandak jotzen zuen, adari jokoak izaten ziren...

### **353. Pilotariak eta apustuak (ERM-147/012)**

Pilota partidetan apustuak egiten zituzten. Pilotari batzuei buruzko kontuak kontatzen ditu. Kubara joan zirenak aipatzen ditu. Palaz ere ibiltzen ziren eta jokalaria ezagunenak izendatzen ditu.

### **354. Jainkoari egindako promesak (ERM-147/015)**

Promesak egiten zituzten, kristautasunari lotuta, gaixotasuna baretzeko edo bestelako eskariak egiteko. Jainkoarengan sinesten duela azaltzen du.

### **355. Harria, harea eta karea (ERM-147/017)**

Ermuan harrobia zegoen, Ezpillakoa; harriak atera eta gurdian eramaten zituzten. Harea eta karea nahasten zituzten harrien arteko bitarteak betetzeko.

### **356. Idi-demak eta apustuak (ERM-147/018)**

Idi-proben inguruko kontuak. Bere aitita zela ibiltzen zen kontatzen du. Idi-proben jatorria azaltzen du: habeak eramateko zeinek abere hobeak izan, hori omen zen jatorrizko lehia. Apustuetako estrategiak aipatzen ditu. Esaera zaharra: dirua ez dok errenta, hobe dok oilaskua erreta.

### **357. Oilar-borroketa jardundakoa (ERM-147/019)**

Oilar-borroketa aritzen zen Antonio. Zela entrenatzen zituzten eta non egiten zituzten borrokak kontatzen du. Bere oilarra Musolini izena ipini zion; onena omen zen.

### **358. Borrokarako oilarren sena (ERM-147/020)**

Oilarrek ez omen daukate ezer erakutsi beharrik, bestea hil arte jarraitzen omen dute borrokan. Bere oilarrari buruzkoak kontatzen ditu.

### **359. Inauterietan oilar harrapatzea (ERM-147/021)**

Inauterietan oilar harrapatzea egiten zuten, Eguen Zuri egunean. Zelako saioak izaten ziren kontatzen du.

### **360. Olentzeroren ohituraren jatorria (ERM-147/023)**

Karlistaden garaian, mugaz beste aldera joan ziren Ermuko adineko batzuk eta han izan omen zuten Olentzeroren entzutea. Gregorio Ormaetxeari ikasi zizkioten kantuak. Olentzerori buruzko kantua abesten du.

### **361. Santa Agedatako kanta (ERM-147/025)**

Santa Ageda batzeko kantuak abesten ditu.

### **362. Santa Agedatako salbea (ERM-147/026)**

Salbea abesten du. Apaizen eta hildakoen etxeetan abesten zuten, Santa Ageda bezperan.

### **363. Santa Agedatako kanta makilarekin (ERM-147/027)**

Santa Ageda eskeko kantuak abesten ditu. Makilarekin ibiltzen ziren, lurrari joka erritmoz.

### **364. Salbea zeini abesten zitzaion (ERM-147/028)**

Salbea Santa Ageda eskean abesten zuten, apaizen eta hildakoen etxeetan.

### **365. "Aingeruak gara", gabonetako kanta (ERM-147/030)**

"Aingeruak gara" kantua abesten du, gabonetakoa. Umetan ez omen dira kantuen berbak ondo ulertzen. Anekdota bat kontatzen du. Ia inork ez zekien Ermuan erdaraz.

### **366. San Juanak (ERM-147/031)**

San Juanetan sua pizten zuten plazan. Txorimaloak erretzen zituzten. Arkakusuari eta tximeletari Ermuan zela esaten dioten azaltzen du. San Juanetan gehienak Eibarrera joaten zirela dio. Mallabiar bat bazen filarmonika jotzen zuena, Pedro Arzamendi, Inazio Arzamendi pilotariaren anaia.

### **367. Gaztainak batzera basora (ERM-147/032)**

Gaztañerre ez zen Ermuan ospatzen, bakoitzak bere etxeetan ez bazen. Gaztainak batzera joaten zen eta familiakoen artean banatzen zuten.

### **368. Ardinarrukua izenaren jatorria (ERM-147/033)**

Inauteriak ospatzen ziren, Antonioren garaian baino lehen. Kanpotik ere etortzen omen ziren Ermura. Ardinarrukua etxearen izena Kajeronekoa zen; hango gizona ardinarruarekin janzen zen inauterietan, eta etxeak ere izen hori hartu zuen.

### **369. Etxe-erre batzea eta ermandadeak (ERM-147/039)**

Etxe-erre batzea egiten zuten. Tarteka gertatzen zen eta jendeak borondatea ematen zuen. Etxeko bizilagunek egiten zuten eskea. Abereen ermandadeak ere bazeuden Ermuan.

### **370. Abereak solte kaleetan (ERM-152/002)**

Okindegia dagoen lekuan, Santukua baserria zegoen, Gregoriorena. Abereak solte erabiltzen zituzten Ermuko kaleetan. Soroak zituzten inguruetan. Bizimodu tristea zeukaten, lan handia egin behar izaten zen.

### **371. Ermuko baserriak (ERM-152/003)**

Batak besteari laguntzen zioten auzokoek; pinuak landatzen eta bestelakoetan. Bere gazte garaian asko baina gerora hogeita hamabi baserri egon izan dira Ermuan. Asko izendatzen ditu.

### **372. Lursailen izenak (ERM-152/004)**

Lursailak beren izena izaten dute. Batzuk izendatzen ditu eta non dauden azaldu.

### **373. Mantxibar inguruak (ERM-152/006)**

Mantxibar eta inguruak izendatzen ditu.

### **374. Idiekin eta gurdiaekin egurra ekartzen (ERM-152/008)**

Gurdizain moduan lan egiten zuen. Idiak zituzten baserrian eta pinuak eta egurrak haiekin ekartzen zituzten basotik. Batzuei diru truke eta besteei

dohainik egiten zieten lana. Ugaldenera eramaten zituzten pinuak, zerrategira.

### **375. Komedianteak ikustera (ERM-152/012)**

Komedianteak kalerik kale ibiltzen ziren, klarinetea jo eta komeriak egiten. Baserrietako bizilagunek aulkiak hartzen zituzten eta plazara joaten ziren ikustera. Herritar gutxi eta denak ezagunak izaten ziren.

### **376. Taloa, morokila eta perretxikoak (ERM-152/013)**

Taloa eta morokila jaten zituzten, artoa esnearekin ere bai. Perretxiko asko ekarriz gero, olio asko behar zutela eta kezka sortzen zitzairen. Untzama inguruan pagoak, haritzak eta urkiak zeuden eta onddoak egoten ziren. Lehen segarekin ira batzen aritzen ziren.

### **377. Errota barria bonbek apurtuta (ERM-152/015)**

Errota Barria zegoen etxea gerra garaian apurtu zuten, hegazkinetatik bonbak jaurtita, trenbidearen ondoan zegoelako. Bertako bizilaguna, Roman, azpian hartu zuen etxeak, bonbekin apurtu zutenean. Gregoriorien emaztea Mallabitik Soraluzeraino, Mendaroraino eta Mendataraino joanda dago errotara, oinez astoarekin.

### **378. Janaria eta errotak (ERM-152/016)**

Astero labeko sua egiten zuten ogia egiteko. Okela eta arrautza ez zituzten asko jaten. Errotak izendatzen ditu.

### **379. San Juanetan Sallabentera (ERM-152/018)**

San Juanetan Sallabentera joaten ziren. Arto landareak, gereziak, loreak... eramaten zituzten bedeinkatzeko. Ermitetarako joaten ziren letaniak entzunez.

### **380. Idiekin probalekura (ERM-152/019)**

San Inazio eguna eta hurrengo domekan idi-demak egoten ziren eta Gregoriok parte hartzen zuen. Sarrera kobratu egiten zuten eta itzain aritzearen afaria ematen zieten. Probalekua zegoen. Oraingo kontuak. Lehen beti abereak egoten ziren baserrietan.

### **381. Anai-arrebei dotea (ERM-152/020)**

Aita Santukua baserrikoa eta ama mallabitarra zen. Bi anaiak akabatzaile izan ziren eta arreba ere bai. Gregorio geratu zen etxean amarekin. Etxea zela eskuratu zuten kontatzen du. Etxetik alde egin beharra zuten seme-alabek dotea eskuratzen zuten maiorazgoarengandik.

### **382. Murgaren jabetza (ERM-152/021)**

Teresa Murga Markinakoa zen eta baserri askoren jabe zen. Errrenta zaharra zutenez, saldu egin zituzten baserri asko. Lursailak ere bazituen.

### **383. Sallabenteko jaiak (ERM-154/002)**

Sallabenteko jaietan etxean gonbidatuak izaten zituzten. Meza izaten zen eta zuhaizpean udaletxeko agintariek bazkaria egiten zuten. Bolatokia zegoen eta erromeria ere izaten zen. Jende asko joaten zen Eibartik ere. Egun bakarreko jai izaten zen.

### **384. Bekoerrotako lantegia (ERM-154/004)**

Bekoerrotan lantegia zegoen eta pistolak egiten zituzten. Bizarra kentzeko aitzurrak egin zituzten ondoren.

### **385. Bekoerrotako argindarra (ERM-154/005)**

Bekoerrotan ez zuen errotarik martxan ezagutu, lantegia bakarrik. Argindarrarentzat izaten zen errota, lantegiarentzat.

### **386. Lapurrak ohepean (ERM-154/008)**

Lapurritturri entzun izan du baina ez du ezagutzen. Garai batean lapurrak asko ibiltzen zirela dio. Pasarte bat kontaktzen du. Ateak ez ziren giltzez ixten.

### **387. Erretxina eta xaboia lantegietarako (ERM-154/009)**

Lantegietarako xaboia etxean egiten zen. Erretxina argia egiteko izaten zen, etxean egina, eta lantegietan erabiltzen zuten. Xaboia zela egiten zuten azaltzen du pixka bat.

### **388. Txakurra erosketetara (ERM-154/010)**

Lehenago bost pezetako txanponarekin otarra bete gauza erosten zuten. Hilean behin ordaintzen zuten hilabeteko ogia eta 100 pezeta izaten zen. Erosketak egitera Ermura joaten ziren baina Sallabenten bertan ere dendatxoak egon zen eta hara joaten ziren. Txakurrak ekartzen zizkien gosaltzeko opilak eta olioak dendatik.

### **389. Eitzako jaiak (ERM-154/016)**

Eitzako jaietan ez zen ezer askorik egoten: udaletxeko agintariak jan eta edan egiten zuten, eta ezer askorik ez. Hango tabernari benta esaten zioten.

### **390. Bekoerrotan arrantzan (ERM-154/017)**

Bekoerrotan amuarrainak harrapatzen zituzten, baita aingirak ere. Zakuekin harrapatzen zituzten. Zela prestatzen diren kontaktzen du. Ufala zetorreanean, ezkailuak harrapatzen zituzten. "Peska xehia" esaten dio. Sallabenten arrantzan aritzen ziren.

### **391. Inauterietan hartzez jantzita (ERM-154/018)**

Inauterietan, asteartean, hartzez jantzita ibiltzen ziren, ardinarruz jantzita. Hartza lotuta erabiltzen zuten, begiak bistan zituela, eta dantzari aritzen ziren. Dantzaldia egoten zen eta jende asko ibiltzen zen. Lagunarteak kantuz ibiltzen ziren.

### **392. Inauterietan oilar harrapatzea eta koko jantzita (ERM-154/019)**

Inauterietan, Eguen Zuri egunean, oilar harrapatzea egiten zen. Zela izaten zen kontaktzen du. Koko jantzita ibiltzen ziren. Umeentzako eguna izaten zen osteguna. Asteartean garoa praktetan sartuta ibiltzen ziren mozorrotuta. Hartzarekin dirua batzen ibiltzen ziren.

### **393. Umetako jolasak: txirikiletan, poteka, afariketan... (ERM-154/020)**

Aste Santuan txirikiletan ibiltzen ziren Mallabian neskak, baita Sallabenten ere. Lehen lasaiago bizi ziren, gutxirekin. Olgetan afariketan, dendetan, panpinekin, soka saltoan... ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Harrapaketan, ezkutaketan, poteka... ibiltzen ziren.

### **394. Komedianteak, aterki konpontzaileak, laban zorroztaileak (ERM-154/022)**

Komedianteak Sallabentera joaten ziren. Bakoitzak bere aulkia eraman eta begira egoten ziren. Akrobaziak, dantzak... egiten zituzten. Aterki-konpontzaileak eta laban zorroztaileak ere ibiltzen ziren batetik bestera. Galizia herri pobrea izan dela dio.

### **395. Bekoerrotan lixiba egiten (ERM-154/024)**

Bekoerrotan labaderoa zegoen eta harrira etortzen ziren auzotarrak. Arropa egosi egiten zen eta tinan lixiba egiten zuten. Xaboa eta sutako hautsa erabiltzen zituzten. Etxean egiten zuten xaboa eta erosi ere egiten zuten.

### **396. Gerragatik Frantziara (ERM-154/025)**

Gerra ostean, estraperloan erosten ziren gauza asko. Mallabitik janari asko lortzen zuten ermuarrek. Frantziara joan zen gerra garaian; han ogi ederra jaten zuten. Itsasontziz joan zen aitarekin eta ilobarekin.

### **397. Frantziako egonaldia eta Ermuko bonbak (ERM-154/026)**

Frantzian konbentu batean egon ziren gerratik ihesi. Janaria kotxe batean ekartzen zuten eta dirua ere ematen zieten. Gerrako bonbekin beldurtu egiten zen Ermuan; goizean goiz beti agertzen omen zen hegazkinen bat. Gaur eguneko kontuak.

### **398. Sardinak leihoan (ERM-154/028)**

Lehenago sardinak erositakoan, leihoan ipintzen zituzten lehortzen. Euliz betetzen baziren, garbitu egin behar izaten zituzten. Okelarekin eta azekin garbantzuak jaten zituzten igandetan.

### **399. Ikatza zela egiten zuten (ERM-156/001)**

Ikatza zela egiten zuten azaltzen du. Egurra trontzatu egiten zuten eta zoiarekin estali egiten zen. 1942an ere egin zuten ikatz asko. Basoak garbi ez egoteak pena ematen dio.

### **400. Pagoa, haritza eta gaztainondoa (ERM-156/002)**

Jesus gaztetxoa zenean, pagoa, haritza eta gaztainondoa zegoen denean. Pagadi asko bota ziren, egurretarako bereziki. Okindegietan asko erabiltzen zuten.

### **401. Karea zela egiten zuten (ERM-156/005)**

Karea zela egiten zen kontatzen du. Zaila zela dio. Harri ona zegoen inguruetan; harriak zulo batean erre egiten zituzten.

#### **402. Idi-probak astero (ERM-156/006)**

San Inazio hurrengo domekan, idi-probak izaten ziren. Gonbidatu eguna esaten zitzaion. Ermuko probalekua inguruko zaharrena dela dio. Gerra aurretxoan astelehenero jokua egoten zela kontatzen du. Tolosatik eta leku askotatik etortzen omen ziren.

#### **403. Idi-demetako harriak (ERM-156/007)**

Hasieran harri pisutsuak erabiltzen zituzten, idiak ere handiagoak izaten ziren. San Pelaixon omen dago probetarako erabilitako harri zaharretako bat. Tranpak beti egin izan dituzte.

#### **404. Baserri guztietan idiak lanerako (ERM-156/008)**

Lehenago entrenatu beharrean, lanerako erabiltzen zituzten eta ez zegoen prestaketa berezirik egin beharrik. Baserri guztietan idiak egoten ziren; errepassoa egiten du. Eitzan ere egiten ziren probak.

#### **405. Uztarriak egiten (ERM-156/009)**

Uztarriak egiten ikusi izan du; pago bota berriarekin edo uretan edukitakoarekin egiten zuten. Egun bateko lana izaten zen. Uztarrigileak baserrian bertan egiten zuen uztarria. Erabiliaz, uztarriak apurtu egiten dira.

#### **406. Adari jokia, oilar-borroka eta beste (ERM-156/010)**

Ahari-topeak ikusi izan ditu asko. Ermuan zeinek edukitzen dituen adariak kontatzen du. Azpeitia aldean dagoela afizioa dio. Oilar-borroka asko egoten ziren gerra aurrean Ermuan. Lehen herri-kirol gehienak desafio moduan egiten ziren, ez zegoen dirulaguntzarik.

#### **407. Abarkak, zestoak eta aulkiak (ERM-156/012)**

Jesusen aititik abarkak egiten omen zituen. Zestoak egiten ikusi izan du mallabiar bat. Gaztainondoarekin egiten zituen. Eguarbitzakoak aulkiak egin izan dituela dio.

#### **408. Sorginak, kukua eta San Juan sua (ERM-156/013)**

Sorginen konturik ez du entzun izan askorik. Umeak beldurtzeko erabiltzen zituzten kontuok. Kukua entzutean poztu egiten omen ziren nagusiak, eguraldi hobearen iragarle zelako. San Juan bezperan beti sua pizten zuten baserrian eta kantuz aritzen ziren.

#### **409. Bizimodu hobearen bila (ERM-156/015)**

Bere amabitxia eta aitabitxia Argentinara joan ziren Ermutik, bizimodu hobea egiteko asmoz. Artzain joaten zirenak Ipar Amerikara joaten ziren. Bizimodu txarra izaten omen zuten.

#### **410. Ogia eta artoa etxeko labean (ERM-156/018)**

Ogia egiteko labea astero pizten zen, eta artoa (opila) ere egiten zuten. Irina Kondearenean egiten zuten, Eitzan. Sagardoa Ermuan eta Mallabian ere egiten omen zen. Azoka handirik ez da egon izan Ermuan.

#### **411. Gerra ostean langileen lana oso merke (ERM-156/019)**

Eskopeta asko egiten zituzten Ermuan. Baserrian txispak egiten zituzten, eskopetendako. 1943an oso merke kostatzen zen langile onenaren dirua ere.

#### **412. Ermandadeak (ERM-156/022)**

Ermandadeak ezagutu ditu, Eitzan eta Ermuan. Zela funtzionatzen zuten kontaktzen du. Txerria izaten zuten etxean. Gabon aurretxoan hiltzen zuten.

#### **413. Tenporak eta ilargiaren eragina (ERM-156/024)**

Tenporak zer diren azaltzen du; eguraldiari antz emateko modu bat. Urtean lau aldiz izaten dira. Ilargiak landareak sartzeko, egurra mozteko, animaliak hiltzeko eragina daukala dio.

#### **414. Ermua eta inguruko errotak (ERM-157/002)**

Garia eta artoa zeukaten baserria. Barazkiak eta animaliak ere. Eibarren saltzen zituzten produktuak. Eitzan errota bat zegoen eta Errotabarri baserriaren ondoan Askasibar izeneko beste bat ere, tren geralekuaren ondoan.

#### **415. Errotak mugatuta gerraostean (ERM-157/003)**

Gerra garaian errotak kontrolatuta zeuden eta negozioa egin zen irinarekin. 1940-1949 artean gosea egon zen eta baserrietan ere ogi falta.

#### **416. Gerrako babeslekua etxe ondoan (ERM-157/004)**

Gerra hasi zenean hamasei urte zituen. Ogi beltza jaten zen. Bonbardeoak ugariak ziren eta ezkutatuta ibiltzen ziren. Etxe ondoan zulo bat eginda zeukaten babesleku bezala.

#### **417. Baserriko garaiko produktuak (ERM-157/005)**

Garai batean dena zen haritza eta pagoa. Gero dena bota erta pinua jarri zen. Gaztainaondoa ere asko zegoen. Zoroan egiten ziren lanak aipatzen ditu. Animaliak erabiltzen zituzten ere.

#### **418. San Andres azoka eta Gaztainerre (ERM-157/007)**

San Andres eguneko azoka beti ospatu da Eibarren. Astero zegoen azoka handi bat Eibarren. Garai batean gaztainerre baserrietan eta etxeetan ospatzen zen. Ermuan ez zen kantatzen.

#### **419. Gabonetan eta Santa Agedan kantatu egiten zen (ERM-157/008)**

Gabonetan, morroi zeuden senideak baserrira ziren. Asko kantatzen zen orduan. Santa Ageda ere ospatzen zen eta kantuan egiten zuten.

#### **420. Sallabenteko jaiak (ERM-157/009)**

Garai bateko Sallabenteko jaiak nolakoak ziren kontaktzen du. Eitzan San Pedroak ospatzen ziren. Eibartik eta Ermuatik jendea hurbiltzen zen. Egitaraua. Okindegia egon zen lekuan taberna egon zen.

#### **421. Sallabenteko okindegia (ERM-157/010)**

Gerra aurretik Sallabenteko okindegiko etxean mikeleteak zeuden Gipuzkoako aldean eta zeladoreak Bizkaia aldean. Gerra ostean okindegia zabaldu zen eta gabetan lan egiten zuten. Ogi asko egiten zuten eta Eibarrera ere eramaten zen Amañatik.

#### **422. Sallabente inguruan harrobiak eta kunbua (ERM-157/011)**

Bergaretxe inguruan eta Sallabente parean harrobiak zeuden. Harea ateratzen zen asko, Eibarren eraikitzen ziren etxeentzat. Errastiren kunbotik ura hartzen zuen harrobiak. Errekak ura indarrez eramaten zuen.

#### **423. Sallabenten karramarroak harrapatzen (ERM-157/013)**

Garai batean erreka garbi zegoen eta bertan arrantzatzen zuten. Karramarroak hartzen zituzten. Errekako beste puntu batzuetan beste arrain batzuk hartzen ziren.

#### **424. Garai batean ganadu gehiago zegoen (ERM-157/015)**

Garai batean ganadu gehiago izaten zuten baserriek, garia ere ereiten zelako. Artzainak ere gehiago zeuden. 50 ardi inguruko artaldeak izaten zituzten.

#### **425. Garai bateko ehiza (ERM-157/016)**

Garai batean ehiza asko egiten zen, gehienbat erbia eta usoa. Santamañe inguruan gerra garaian tiroak botatzen zituzten.

#### **426. Armagintza Ermuan (ERM-157/017)**

Ermuan eskopetagintzako industria zegoen. Sallabenten, Mugerzak baskulak egin eta Eibarren saltzen zituen. Ermuan, eskopeta baino gehiago pistola egiten zen.

#### **427. Garai batean elur asko egiten zuen (ERM-157/019)**

Gaur egun baserriko jendeak kanpoan lan egiten du. Animaliak mantentzen dira. Pinua. Garai batean elur asko egiten zuen.

#### **428. Gerraostean ogi zuri falta (ERM-157/021)**

Amak ogia egiten zuen lapikoa gerra garaian. Gerra ostean ogi zuria zen gehien faltan botatzen zutena.

#### **429. Ermuako garai bateko Santixauak eta Karnabalak (ERM-157/025)**

Garai bateko Ermuako Santixau jaiak nolakoak ziren kontatzen du. Ardoa asko edaten zen. Karnabaletan hartza ateratzen zuten. Gaur egun inauterietan jendea dotoreago jazten da. Eguen zuria.

#### **430. Herri-kirolak (ERM-157/027)**

Idi-probak maiz egiten ziren eta inguruko jende asko joaten zen ikustera. Herri-kirolak. Oilarren borrokak.

### **431. Sallabenten labaderoa gertu (ERM-157/029)**

Garbitokia baseritik gertu zeukaten.

### **432. Sallabenteko euskara, eibartarra (ERM-157/030)**

Sallabenten ez dute Ermuko euskera erabiltzen, ezta Zaldibarkoa ere. Eibarko euskarari gehiago hurbiltzen zaio.

### **433. Maltzagan otsoak eta basurdeak (ERM-157/031)**

Ez ditu inguruan ez otsoak ezta basurdeak ezagutu. Maltzagan ikusi izan ditu. Zozoa. Ehiza.

### **434. Sallabente auzoko etxe berriak (ERM-157/034)**

Sallabenteko etxeak eraiki eta beste batzuk eraldatu egin zituzten.

### **435. San Juanetako suak (ERM-157/035)**

San Juanetan, Sallabenten suak pizten ziren baserrietan. Su txikiak izaten ziren.

### **436. Sallabenteko eskola; dena euskaraz (ERM-157/037)**

Sallabenteko eskolan ikasi zuen Joxe Marik. Hogei ikasle inguru zeuden eta Ermuatik ere joaten ziren haurrak. Jaunartzea egin zuenerarte (11 urte) ikasi zuen eskolan. Klean ikasi zuen gaztelaniaz egiten.

### **437. Sallabenteko etxeak (ERM-157/038)**

Sallabenteko etxeak: zein den zaharrena, gerran zein apurtu zen...

### **438. Ijitoak Ermuan (ERM-157/046)**

Garai batean Ermura ijito asko heltzen ziren. Gurdiekin heltzen ziren eta eliza azpian egun batzuk pasatzen zituzten. ijitoek euskaraz zekiten.

### **439. Garai bateko ezkontzak eta dotea (ERM-157/048)**

Garai bate ezkontzak nolakoak ziren kontatzen du. Dotea gurdian sartuta eramaten zen. Haur bat jaiotzen zenean, egun bira bizitza normala egiten zen.

### **440. Armagintza Sallabenten (ERM-157/051)**

Sallabenten Mugerzak egiten zituen eskopeten baskulak eta gero Eibarrera eramaten zituen.

### **441. "Intxaurra nuez" kanta (ERM-158/001)**

"Intxaurra nuez" kanta abesten dute.

### **442. "Guazen guztiok" kanta (ERM-158/002)**

"Guazen guztiok" kanta abesten dute.

### **443. Santiago jaietan (ERM-158/003)**

Santiago jaietan eibartarrak joaten ziren Ermura. Baserritarrek sagarrak eta madariak saltzen zituzten plazan. "Hau dek umoria" abesten dute.

#### **444. Hartzaren eguneko kanta (ERM-158/004)**

Hartzaren eguna izaten zen Ermuan. Kanta abesten dute.

#### **445. Hartzaren eguna Ermuan (ERM-158/005)**

Hartza eguna karnabaletan ospatzen zen. Animalien larruarekin, hartzez janzten zen Jose Txatua. Kateak ere jartzen zituen. Kanta abesten dute. Jesusak poxpolinen liburuxka bat zeukan, umeentzako kantuak biltzen zituena, Ondarroako irakasle batek emandakoa.

#### **446. Gabonetako kantuak eta "nere etxea" (ERM-158/008)**

Gabonetan kantuan aritzen ziren. "Hator hator" abesten du Jesusak. Etxerik etxe joaten ziren diru-batzen. "Urtebarri eguna" abesten dute, zatika. "Nere etxea" kanta abesten dute.

#### **447. Garai bateko ezkontzak (ERM-158/009)**

Ezkontzetan arrea gurdiarekin eramaten zuten. Ikusitakoak dira. Arrea baserri batetik bestera eramaten zen. Ezkontza bateko oroitzapena dauka Jesusak, eta postrea arroz-esnea zen. Lapurrিত্তurri eta aguanekoak.

#### **448. Sallobenteko zuhaitz gaineko bazkaria (ERM-158/011)**

Sallobenten zuhaitz baten gainera zubia jartzen zuten eta Zaldibarko eta Ermuko agintari politikoei jatordua egiten omen zuten urtero. Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan zegoen.

#### **449. Sallobenteko jaiak eta inguruko dantzaldiak (ERM-158/012)**

Sallobenteko jaiak oso politak zirela diote. Ermuko banda joaten omen zen eta jende asko. Festa egunez egiten zen lehen. Eibarren Untzagan eta Astelena frontoian musika egoten zen. Ermuan Herreroarenean dantzaldia egoten zen. Ostatukoan ere egoten zen.

#### **450. Mikeleteak, zeladoreak eta foralak (ERM-158/014)**

Mikeleteak zela janzten ziren kontatzen du Jesusak. Non egoten ziren azaltzen dute. Zeladoreek diru-kontuak kontrolatzen zituzten. Foralak ere egoten ziren, zaintzak egiten.

#### **451. Oilar harrapatzea eta umeendako jolasak (ERM-158/015)**

Pilotarako zaletasuna zegoen. Eguen Zuri egunean, oilar harrapatzea non eta noiz egiten zuten kontatzen dute. Leopoldo txokolateri buruzkoak kontatzen dituzte.

#### **452. Txirikiletan (ERM-158/016)**

Txirikiletan zela egiten zuten kontatzen du Jesusak.

#### **453. Pote joka (ERM-158/017)**

Pote joka jolasten zuten. Nola aritzen ziren kontatzen dute.

#### **454. Dirua lortzeko zailtasunak (ERM-158/018)**

Untzagara dantzara joateko, katiuskak behar izaten zituzten. Amak eta etxeke apopiloetako batek eman zioten dirua katiuska parean erosteko. Krisiak lehen ere izaten zirela diote. Diru gutxiagorekin erosten omen ziren beharrezko gauzak. Jatordu on batek bi pezeta eta erdi balio zituen.

#### **455. "Urkoko Patxi" kanta (ERM-160/002)**

Karnabaletan ardi larruarekin jantzita ibiltzen ziren. Urkoko Patxi abesten zuten.

#### **456. "Pepito" kanta (ERM-160/003)**

Pepitoren kantatzen du. Gehiena erdaraz da, bukaera kenduta.

#### **457. "Salamankara" eta "Aita semeak tabernan daude" kanta (ERM-160/005)**

"Salamankara" kantaren hasiera abesten du. "Aita-semeak tabernan daude" kantatzen du. Atorra eta kakoa zer ziren kontatzen du.

#### **458. "Dicen que viene reina" eta Bizkaiko koplak (ERM-160/006)**

"Dicen que viene reina" kantatzen du. "Pagorik pago usua" abesten du. Bizkaiko koplak batzuk abesten ditu.

#### **459. "Atxetxo Forukua" kanta (ERM-160/007)**

"Atxetxo Forukua" kantaren zati bat abesten du. Lamaikua bost xentimokoa zen.

#### **460. "Gure aitak amari" kanta (ERM-160/008)**

"Gure aitak amari" kanta abesten du.

#### **461. "Kanta kantari" eta "Hasi goiko kaletik" kantak (ERM-160/010)**

Eibartik lanetik zetozela abesten zuten "kanta kantari". "Hasi goiko kaletik" abesten du.

#### **462. "Intxaurra nuez" kantari buruzkoak (ERM-160/012)**

"Intxaurra nuez" kantari buruzkoak. Gabonetan Hator-hator abesten zuten.

#### **463. "Erregen errege" kanta (ERM-160/015)**

"Erregen errege" kanta abesten du.

#### **464. "Kanta kantari" abestia (ERM-160/016)**

"Kanta kantari" abesten du.

#### **465. Euskara erabiltzearen zigorra (ERM-160/023)**

Eskolan euskara debekatzen zuten eta zigorra jartzen zioten, 10 zentimokoa. Horregatik ez zien seme-alabei euskara transmititu.

**466. "Konsejura etorri naiz" kanta (ERM-160/026)**

"Konsejura etorri naiz" kanta abesten du.

**467. "Uste al dezu lagun maitia" bertsoa (ERM-160/028)**

"Uste al dezu lagun maitia" bertso zatia abesten du.

**468. "Urtebarri barri" kanta (ERM-160/031)**

"Urtebarri barri" kanta abesten du.

**469. "Aingeruak gara" kanta (ERM-160/034)**

"Aingeruak gara" kantatzen du.

**470. "Habanara jua nitzan" kanta (ERM-160/035)**

"Habanara jua nitzan" kanta abesten du.

**471. "Santa Katalinako dendari kojua" abestia (ERM-160/039)**

"Santa Katalinako dendari kojua" abesten du.

**472. "Lotxo maitia" kanta (ERM-160/042)**

"Lotxo maitia" abesten du.

**473. Santa Agedako koplak (ERM-160/045)**

Santa Agedako koplak bat abesten du.

**474. "Turrurutukutuna neri ez ukutu" koplak (ERM-160/047)**

"Turrurutukutuna neri ez ukutu" koplak abesten du.

**475. "Mendirik mendi" koplak (ERM-160/049)**

"Mendirik mendi" koplak abesten du.

**476. "Bart arratsian berandua" kanta (ERM-160/050)**

"Bart arratsian berandua" kanta abesten du.

**477. "Hartzen badinat ilintzia" kanta (ERM-160/052)**

"Hartzen badinat ilintzia" kantaren zati bat abesten du.

**478. "Agure zaharrak ditu" koplak (ERM-160/054)**

"Agure zaharrak ditu" koplak botatzen du.

**479. "Atzo, atzo, atzo" kanta (ERM-160/056)**

"Atzo, atzo, atzo" kanta abesten du.

**480. "Matxalen Busturiko" koplak (ERM-160/058)**

"Matxalen Busturiko" koplak abesten du.

#### **481. Peio Errotarena (ERM-160/060)**

Peio Errotaren bertsoa kantatzen du.

#### **482. "Markesaren alaba" kanta (ERM-160/062)**

"Markesaren alaba" abesten du.

#### **483. "Erreka bazterreko" koplak (ERM-160/064)**

"Erreka bazterreko" koplak abesten du.

#### **484. "Andre Madalen" eta "Una mujer en Arrate" kantak (ERM-160/066)**

"Andre Madalen" kantaren zati bat abesten du. "Una mujer en Arrate" koplak abesten du.

#### **485. "Herriko festak" kanta (ERM-160/068)**

"Herriko festak" kanta abesten du.

#### **486. Berorika hizketan (ERM-163/001)**

Berorika zela hitz egiten zuten antzezten du. Alkatearekin hika aritzen da.

#### **487. Betiondo eta inguruak (ERM-163/004)**

Markinan jaioa da. 1935ean urte birekin heldu zen Ermura. Betiondo herritik urrun zegoen baina gero ia herritik bertan geratu zen. Inguruan lautadak zeudela dio.

#### **488. Betiondo baserriaren izenaren jatorria (ERM-163/005)**

Betiondo izenaren jatorria azaltzen du. Manuel Asensio Arrietak eskatu omen zion markesari bertan etxea egiteko, han beti ondo biziko litzatekeela esanez.

#### **489. Betiondora Ongaraitik zehar (ERM-163/007)**

Betiondotik Ermura Ongarai baserritik zehar joaten zen. Ongarai konbentua izana zen. Handik Errebalera eta Ermura joaten omen zen. Gurdiak bide zaharretan apurtu egiten ziren. Lehengo bide zaharraren ondotik doa errepidea.

#### **490. Esnea astoz etxez etxe (ERM-163/008)**

Esnearen eskabide handia izan zen garai batean. Astoz eramaten zuten lehen eta etxe berriak egin zituztenean, bezero berriak sortu zitzaizkien.

#### **491. Errekazabaletako eta San Pelaixoko ura (ERM-163/009)**

Betiondon teilatuko ura batzen zuten. Iturburu txiki bat zeukaten eta ondoren, 1969an, Errekazabaletako ura bideratu zuten etxerako. Ondoren, San Pelaixoko ura jarri zuten Betiondora. San Pelaixoko ura sendagarria zela entzun izan du.

#### **492. Idi-probak eta ahari jokoak (ERM-163/010)**

Ermuko jaiak Santiagoak izan dira beti. San Inazioaren ondorengo domeka gonbidatuen eguna izaten zen; idi-probak eta apustuak izaten ziren. Idi-probak

eta ahari jokoak izaten ziren Ermuan gehien egiten zirenak. Zeintzuk ziren onenak kontatzen du.

#### **493. Desafioak eta apustuak (ERM-163/012)**

Umetan basoan ibiltzen ziren perretxikoak batzen. Igandeetan zinemara joaten ziren. Desafioak egiten zituzten tarteka. Batzuk kontatzen ditu.

#### **494. Zaldi lasterketa (ERM-163/013)**

Ermuan zaldi lasterketa egin zutenekoa kontatzen du.

#### **495. Erreka eta zubiak (ERM-163/018)**

Errekak garbi egoten ziren. Ermuan hiru zubi zeuden; non zeuden zehazten du. Paperezko ontziak egiten zituzten.

#### **496. Enadienaka jolasa (ERM-163/019)**

Enadienaka jolasa azaltzen du. Non jolasten zuten kontatzen du.

#### **497. Eskolan ogia etxerako (ERM-163/020)**

Plazako eskolan neskak eta mutilak bereizita egoten ziren. Eskola hartatik beste batera pasatu zen. Eskolan ogia ematen zieten gerra ostean eta bandera eseki behar izaten zuten. Irakasleak erdaldunak izaten ziren.

#### **498. Urteberri egunean Urkora (ERM-163/023)**

Urteberri egunean Urkora joateko ohitura zeukaten. Eibarko kirol elkarteak antolatzen zuen. Indalecio Ojangurenak mendian ateratako argazki bat badauka etxean.

#### **499. Azeriak eta hegaztiak (ERM-163/025)**

Azeriak hil izan ditu eskopetarekin, baina asko omen daude. Ez dute kalterik egiten etxean. Ehizan lehen hegaberak, birigarroak, durdulak eta beste harrapatzen zituzten. Basurderik ez du ezagutu inguruetan.

#### **500. Gaua lotarako (ERM-163/027)**

Mikeleteak, zeladoreak, serenoa... egoten ziren. Gaua lotarako izaten zela dio, inor ez zela kalean ibiltzen. Jaietan ere, ordu batean isiltasuna egin behar izaten zen, derrigorrean. Musika bandak jotzen zuen jaietan.

#### **501. Musika banda, buruhandiak eta erraldoiak jaietan (ERM-163/028)**

Musika bandarekin kalejira egiten zuten. Buruhandiak eta erraldoiak ibiltzen ziren jaietan. Komedianteak ere ibiltzen ziren.

#### **502. Argindarra falta zenean (ERM-163/029)**

Argindarra beti ezagutu izan du. Sarri falta izaten zen, haizeagatik edo. Kandeladun farolak eta linternak erabiltzen zituzten.

#### **503. Hamasei urtetatik pilotari profesionala (ERM-164/002)**

Hamar urterekin hasi zen pelotan jolasten Ermuko plazako frontoian. Hamasei urterekin profesional bihurtu zen. Garai batean Ermuan pilotarako zaletasun

handia zegoen. Anaiek eta aitak ere jokatu dute profesional bezala. Jokatzen hasi zenean, Ermuan 20 pilotari inguru ziren guztira.

#### **504. Atzerrira jokatzera doazen pilotariak (ERM-164/003)**

Pilotariak atzerrira jokatzera joateko pasa behar zuten prozesua kontatzen du. Bera Mallorkara joan zen jokatzera eta handik aukeratu zituzten Estatu Batuetara, Filipinetara edo Mexikora joango zirenak. Estatu Batuetatik Durangora ere pilotari batzuk etortzen ziren. Denboraldiak 4-5 hilabetekoak izaten ziren.

#### **505. Zesta-puntako entrenamenduak (ERM-164/005)**

Anai guztiek jokatu dute zesta-puntan. Ermuan hasi ziren jokatzen. Hobetzen joan ahala, anai nagusiak Markinara joaten ziren jokatzera.

#### **506. Zesta-puntan 17 denboraldiz Ameriketara (ERM-164/006)**

Zesta-puntan hobetzen hasi zenean Durangora joaten zen jokatzera, bertan frontoi berri bat zegoelako. Han txapelketa bat jokatu zuen eta Mallorcan jokatzeko aukera eman zioten. Bertan urtebete egin zuen, gero soldadutzara joan zen eta handik Estatu Batuetara. Denera 17 denboraldi egin zituen Ameriketara. Joan aurretik ingeles pixka bat ikasi zuen.

#### **507. Zesta-puntariak (ERM-164/007)**

Gaztea zenean Bizkaiko eta Espainiako zesta-punta txapelketak antolatzen ziren. Bere aurreko pilotariei buruz hitz egiten du.

#### **508. Pilota apostuak eta desafioak (ERM-164/008)**

Garai batean, apostuak eta desafioak egiten ziren Ermuan. Herriko frontoiak.

#### **509. Gernikako frontoia (ERM-164/009)**

Markina, zesta-puntako unibertsitatea izan zen, Gernika baino lehenago. Gernikan astelehenetan partiduak egoten ziren. Gazte asko joaten ziren frontoia oso haundia zelako eta giroa sortzen zuelako.

#### **510. Estatu Batuetako frontoien itxiera (ERM-164/010)**

Estatu Batuetako pilotaren krisia dela eta, frontoiak itxi dira: Melbourne, Daitona, Quincy...

#### **511. Ameriketako frontoietako giroa (ERM-164/011)**

Ameriketako frontoietako giroa oso ona zen. Egunero ateratzen zituzten estadistikak eta jendeak horren arabera apostuak egiten zituen. Batzuetan telebistan ere ematen zituzten partiduak. Dirua aurrezteko lain irabazten zen.

#### **512. "Ermua" pilotaria (ERM-164/019)**

"Ermua" pilotariaren benetako izena Ignacio Onaindia da. Ermuako alkatea izan zen frankismoan.

### **513. Ermuko pilotari onenak (ERM-164/021)**

Esku pilotan Ermuan izan diren pilotari onenak Elgea eta Astarloa izan dira. "Sate" Sallabentekoa zen eta oso ona zen ere. Profesionalak izan ez diren beste Ermuako pilotari onak.

### **514. Larru bikoitzeko pilotak (ERM-165/002)**

Pilotan aritzen zen eta finalerdietara heldu zen. Pilotek larru bikoitza izaten zuten eta eskuz egiten zituzten.

### **515. Palan jokalaria profesionala (ERM-165/004)**

Eibartarren kontra egindako desafioa kontatzen du. Palan jokatzeko profesionala izan zen. Bilbon jokatzeko zuen.

### **516. Astelehenetan pilotan (ERM-165/006)**

Astelehenetan lan askorik ez zen egiten, ez baitzen zereginik egoten. Astean hiru egunetan lan eginez gero, nahikoa izaten zela dio. Ermua izenarekin jokatu izan du.

### **517. Pilotan txapelketetan Ermua garaile (ERM-165/008)**

Herri arteko lehiaketan Ermua garaile atera zen eta Inaxiok jaso zuen saria. Hainbat lehiaketa irabazi zituen Ermuak.

### **518. Palan profesionala hogeita lau urtez (ERM-165/011)**

"Juego de la pelota" liburuan bere argazkia argitaratu zuten. Hogeita lau urtez profesionala izan zen palan jokatzeko. Frontoirik berriena gaizki egin zutela azaltzen du. Ermuan ikasi, handik Durangora eta ondoren Bergarara joaten ziren pilotan egitera.

### **519. Hamabost urtez San Ferminetan jokatzeko (ERM-165/013)**

Bost urte Bartzelonan, bi urte Madrilen eta hamabost Bilbon egin zituen. Hamabost urtez segidan Iruñean San Ferminetan jokatu zuen.

### **520. Durangora eta Bergarara entrenatzera (ERM-165/015)**

Entrenamenduak egitera Durangora eta Bergarara joaten ziren. Frontoi bakoitza zelakoa zen kontatzen du.

### **521. Bartzelonan gerra bukatuta, etxera (ERM-165/018)**

Bartzelonan zegoela, ezin izaten zuen Ermuko berririk izan. Han gerra bukatuta, Ermura etorri zen, 1937ko otsailean. Gerra garaian Bilbon jokatu zuen.

### **522. Pilotarien soldata (ERM-165/019)**

Baziren Mexikora eta Kubara joaten ziren pilotariak. Beharginek baino diru gehiago irabazten zuten pilotariek. Langileek 10 pezeta irabazten bazuten egunean, 3.500 pezeta irabazten zituzten partiduko. Irabaziz gero, gehiago jasotzen zuten.

### **523. Maria Teresa Murgaren jabetza (ERM-165/021)**

Teresa Murgak eraikin eta lursail asko izan zituen Ermuan. "Murga txikia" ezagutu zuen Inaxiok. Maria Teresa Murgak eskola eraiki zuen. Murgatarren jauregia Markinan non dagoen azaltzen du.

### **524. Ermuko armarriko kateak (ERM-165/024)**

Ermuko armarrarian agertzen diren kateak Navas de Tolosan dute jatorria. Nafarroako Antxo VII.a Erregearen agindupean joan ziren ermuarrak gudura eta hango garaipenagatik dituzte kateak armarrarian.

### **525. Txispak pistolentzat (ERM-165/028)**

Errotabarrikoak osaba-izebak zituen. Ermuan txispak egiten zituzten pistolentzat.

### **526. Pistola egileak eta akabatzaileak (ERM-165/029)**

Inaxioren gurasoen garaian pistolak egiten zituzten. Akabatzaileak zein lan egiten zuten azaltzen du; disdira ateratzeaz arduratzen ziren.

### **527. Ermuko baserriak (ERM-165/030)**

Armaginak eta baserritarrak ziren Ermuan. Hogeita hamalau baserri zeuden herrian. Izendatu egiten ditu batzuk, baita elkarrizketatzaileak ere.

### **528. Sabon baserria (ERM-166/001)**

Sinkoneko baserrian jaioa. Non zegoen kontatzen du. Sabon izena omen du jatorriz etxeak. Errenteroak ziren eta 1959an erosi zuten baserria.

### **529. Sinkoneko baserriaren ingurua (ERM-166/002)**

Sinkoneko baserriaren ingurua deskribatzen du.

### **530. Sinkoneko lursailak (ERM-166/003)**

Sinkoneko baserriaren lursailak izendatu eta kokatzen ditu: Arizmendi, Mallamendi, Txabolaburu...

### **531. Gurutzeostia (ERM-166/009)**

Gurutzeostia non zegoen azaltzen du.

### **532. Errotabehe, errotabarri eta Mantiabaso (ERM-166/012)**

Errotabehea eta Errotabarri etxeak non zeuden azaltzen du. Mantiabaso zein den kontatzen du. Artarra.

### **533. Erretenari buruzkoak (ERM-166/013)**

Erretenpia eta Erretenburu non dauden kontatzen du. Erretena nondik nora zihoan azaltzen du.

### **534. Ermuko baserriak (ERM-166/014)**

Ermuko baserriak izendatzen ditu banan-banan.

### **535. Kurabaso (ERM-166/017)**

Kurabaso non dagoen azaltzen du.

### **536. Baserriko lanak (ERM-168/002)**

Ganaduarekin joaten ziren Eibarrera garai batean. Idiak ere izan zituzten eta aitak idi-probetan parte hatzen zuen.

### **537. Ikatza eta ikazkinak; kare-harrobiak (ERM-168/003)**

Ikatza egiteko prozesua. Ikazkinak. Ikatza etxerako eta lantegietarako erabiltzen zen. Kare-harrobiak. Karea ateratzean sortzen den hautsa.

### **538. Ermuko San Martin ermita (ERM-168/004)**

San Martin ermita galduari buruzko kontuak. Erromeriak.

### **539. "Konbidau eguna" (ERM-168/005)**

Erromeriara Usartzara joaten ziren beti, baina gainontzeko lekuetara ere: Bariñara, Trabakuara... "Konbidau egunean" senideak inguratzen ziren baserrira.

### **540. San Juanak eta Gaztainerre (ERM-168/006)**

San Juanetan Eibarrera joaten ziren eta sua tontorrean egiten zuten. Abestu ere egiten zuten. Bedeinkatutako erramua jartzen zen.

### **541. Garai batean ardi gehiago zeuden (ERM-168/007)**

Inguruan haritzak, arteak eta pinuak egon dira. Garai batean ardi askoz gehiago zeuden. Gatzatoa egiten zen baina gaztaia gutxi.

### **542. Baserrian ogia egiten zen (ERM-168/008)**

Ogia baserriko labean egiten zuten, lapiko handi batean. Baserrian garia eta artoa ereiten zen eta errotetara eramaten zen. Errotabarri.

### **543. Gerra ostean errotak itxi zituzten (ERM-168/009)**

Estraperlorik ez du ezagutu, baina behin idi bat eraman zuten haien baserrira. Gerra ostean irinarekin kontrabandoa egiten zen eta errotak prezintatu ziren.

### **544. Ura bonba batekin eramaten zen baserrira (ERM-168/014)**

Ura Urkotik haratago hartu izan dute baina lehortzen hasi da. Bonba batekin hartzen zuten ura. Inguruko lekuak aipatzen ditu: Untzuma, Lindari...

### **545. Baserriko bideak eraikitzen (ERM-168/016)**

Baserrietako bideak egiten ibili ziren Eibartarrekin batera. Gerora dirua jarri zuen Ermuko Udalak. Zatika eraiki dira bideak, dirua egon denean. Garai batean bideak konpondu egiten zituzten baina euriarekin dena apurtzen zen eta beti gaizki zeuden.

### **546. Urko azpiko kobazuloa (ERM-168/018)**

Harrobia ia baserriraino heltzen da. Ur hotz-hotza ateratzen duen leize bat dago harrobitik gertu.

#### **547. Azerien uxaldiak; azkonarra (ERM-168/020)**

Azeriak izan dituzten baserri inguruan beti, oiloen inguruan. Uxaldiak egiten ziren garai batean azeriak harrapatzeko. Behin 76 hil zituzten. Erbiak eta azkonarrak ere asko ehizatu dira. Azkonarrak dena apurtzen du.

#### **548. Katamixarrak eta basakatuak; hegaztiak; ardiak (ERM-168/021)**

Katamixar asko zegoen garai batean. Gozoa omen da jateko. Basakaturen bat edo beste ikusi izan du elurretan. Haien larrua saltzen zen. Garai batean txori asko zeuden, jateko askoz gehiago zutelako. Arranoak. Ardiak eta txakurrak.

#### **549. Baserrir argindarra heldu zenean (ERM-168/023)**

Baserrira argia heldu zeneko denbora gogoratzen du.

#### **550. Ganaduen hermandadeak (ERM-168/024)**

Ganaduen ermandadeak Arrajolan (Eibarren) egiten ziren. Nola funtzionatzen zuten kontatzen du.

#### **551. Errebatzeak (ERM-168/025)**

Etxe bat erretzen zenean izaten ziren errebatzeak ezagutu izan ditu. Eibarko Amaña auzoan gertatu zen behin.

#### **552. Meza eta ezpata-dantzariak (ERM-168/027)**

Abenduak 23an meza egoten zen eta Ermuko ezpatadantzariak izaten ziren. Ardoa eta txorizoa ere eskaintzen zen. Meza emateari utzi zenean galdu zen dena.

#### **553. Tenporak eta ilargiaren faseak; erreka (ERM-168/032)**

Tenporak nola ulertu kontatzen du. Ilargiaren faseak. Errekan karramarroak harrapatzen zituzten. Iturria zegoen deposituaren ondoan.

#### **554. Berorika abadeari egiten zitzaion (ERM-168/033)**

Hika egiten zaio gazteagoari eta zuka helduagoari. Berorika abadeari egiten zioten. Sotanarekin jazten ziren.

#### **555. Santa Agedan baserriz-baserri kantuan (ERM-168/035)**

Gabonetan jatekoa ezberdina izaten zen. Santa Agedan kantuan joaten ziren baserriz-baserri. Kanta ezberdinak zeuden. Baserriek txanponen bat edo janaria ematen zuten.

#### **556. Soltero-despedidako anekdota (ERM-168/037)**

Ermuako Ziriako izeneko gizon baten soltero-despedidan, Juan San Martinekin izandako anekdota kontatzen du.

#### **557. Gaztetako kuadrilla (ERM-168/038)**

Komedianteak ikusten zituzten zirkoa Eibarrera joaten zenean. Ermura eta Eibarrera, berdin joaten ziren. Kuadrillako lagunak Amazabalegitik (Eibar) Beranorarteko (Mallabia) baserrikoak ziren.

### **558. Eztia nola egin (ERM-168/041)**

Felixek ez baina emazteak eztia egiten zuen garai batean. Prozesuaz hitz egiten du. Urtetik urtera eztia ezberdin ateratzen da.

### **559. Apostuak eta "trabesak" (ERM-168/043)**

Eskuzko-pilotarako zaletasun handia egon da Ermuan. Apostuak eta "trabesak".

### **560. Teilak non eta zela egiten zituzten (ERM-171/003)**

Telleria non zegoen azaltzen dute. Buztinarekin egiten zituzten, eta ondoren lehortu. Moldeak erabiltzen zituzten.

### **561. Ikatza zela egiten zuten (ERM-171/004)**

Egurra pilan jarri eta lurrez, zoiarekin, estaltzen zuten. Sua eman eta zaintzen egoten ziren gau eta egun. Eskuz egiten zen.

### **562. Egur-ikatzaren erabilera (ERM-171/006)**

Ikatza edo egur-ikatz sutarako erabiltzen zen. Garai batean etxeetan eta ondoren kanpoko suak egiteko (txitxiburduntzia eta). Lantegietan ere ikatz hori erabiltzen zen.

### **563. Errementariaren lana (ERM-171/007)**

Errementariak erabiltzen zuten egur-ikatz. Non zegoen azaltzen dute. Zaldientzako perrak egiten zituzten. Baserrietarako erramintak egiten zituzten.

### **564. Gallegosiaren ibilerak (ERM-171/009)**

Gallegosia zein zen kontatzen dute. Oso dotore ibiltzen omen zen. Senar-emazteak paseatzen ibiltzen omen ziren egunero, garaiko auto batekin. Eibarko Isasiko markesak gogoan dituzte.

### **565. Leopoldo amerikarraren jaiak (ERM-171/010)**

Leopoldo Ameriketara egoten zen eta etortzen zenean, jai handia antolatzen zuen umeentzat.

### **566. Enplastoak sendagarri (ERM-171/012)**

Enplastoak egiten zituzten sarri. Berari amak txokolatearekin egiten zizkion. Etxeko belarrekin sendatutako baten pasarte. Elgoibarko sasimedikua aipatzen dute.

### **567. Aita gozogilea (ERM-171/013)**

Jesusaren aitak gozogintza ikasi zuen Bilbon eta hostoreak egiten zituen. Gozogilea zen eta denetarik egiten zuen. Merengea egiteko trukua kontatzen du.

### **568. Txerri tratanteak (ERM-171/014)**

Emilioren senideak tratanteak ziren. Txerriak erosten zituzten, ondoren saltzeko.

### **569. Kinkailariak eta komediantek (ERM-171/017)**

Kinkilariak oihalak-eta saltzen ibiltzen ziren. Zalgurdietan ekartzen zituzten eta arkupe zaharrean egoten ziren. Etxerik etxe saltzen zituzten. Komediantek ere ibiltzen ziren Ermuan; pregoia jotzen zuten eta pozik ikusten zituzten. Kinkaila pultsera merkeak eta oihalak izaten ziren. Baserriz baserri ere ibiltzen ziren. Martin debarrari oihalak eta toailak erosten zizkioten.

### **570. Erregeetako kanta (ERM-173/001)**

Gabonetako kanta, Erregeetan abesten zutena.

### **571. Kanta abertzalea, Sabino Arana aipatuz (ERM-173/003)**

Sabino Arana goratzeko kantu abertzalea.

### **572. Kanta abertzalea (ERM-173/004)**

Kantu abertzalea.

### **573. "Belarrimotz entzun zazu" kanta (ERM-173/005)**

Kanpotik etorritakoei eskainitako abesti abertzalea.

### **574. Gabonetako menua eta giroa (ERM-173/007)**

Irrati saio baterako grabazioa denez, elkarrizketatzaileak aurkezpena egin du. Mariak bere gaitzizena aipatzen du: Maria Txindurri. Menbrilloa jateko pozez egoten ziren gabonetan. Jaiotza ipintzen zuten. Oilaskoa eta intxaur-saltsa jaten zuten gabonetan. Afalostean kantuz eta dantzan ibiltzen ziren.

### **575. Mattin Txiki tabernan (ERM-173/009)**

Mattin Txiki izeneko tabernan, gizonek kantuan egiten zuten meriendatu eta hizketan egin bitartean.

### **576. "Ai, hori begi ederra!" eta "Kattalin" kantak (ERM-173/010)**

Gabonetan eta bestela ere abesten zituzten kanta hauek.

### **577. "Uso txuria" kanta (ERM-173/011)**

Sarri abesten zuten kanta hau Mariak eta Mirenek, gabonetan eta bestela ere bai.

### **578. "Allando, allando" gabon kanta (ERM-173/012)**

Ermuan abesten duten gabon kanta. Urteberri egunean abesten zuten etxerik etxe. Anekdotak bat kontatzen du.

### **579. Gabon bezperako pregoia eta gabon afaria (ERM-173/013)**

Danbolinjoleak pregoia jotzen zuen gabon bezperan, ate aurreak garbitzeko aginduz. Bakailaua errekan beratzen edukitzen zuten afaltzeko. Eskailuak errekan hartzen zituzten botilarekin.

### **580. "Belenen sortu da" gabon kanta (ERM-173/015)**

Gabon kanta.

### **581. Amak erakutsitakoak (ERM-173/016)**

Etxean abesten zituzten amarekin. Erdaldunak guardia zibilak eta irakasleak izaten ziren, eta haiei gaztelerazko "Madre hay un niño en la puerta" abesten zieten, amak erakutsitakoa.

### **582. "Hor goiko tenpluan" kanta (ERM-173/017)**

"Hator, hator" ere betidanik abestu izan dute. Amarekin ikasten zituzten kantak.

### **583. Ezkondu beharreko bertsoak (ERM-173/019)**

Ettxeginari ikasitako kanta.

### **584. "Hau da gabaren zoragarria" gabon kanta (ERM-173/020)**

Beti abesten omen zuten gabonetan.

### **585. "Amak ezkondu ninduen" kanta (ERM-173/022)**

Ama-alaben arteko elkarrizketa kontatzen duen kanta. Euskarazko antzerkia egiten zuten Ermuan.

### **586. Neskazarrei buruzko kanta (ERM-173/023)**

Sarri abesten zuten.

### **587. "Erregeak datoz" gabon kanta (ERM-173/024)**

Olentzerori buruzko kantak ikasi dituzte. Erregeei buruzko kanta hauxe abesten zuten.

### **588. Txitxirritoka, karta jokoa (ERM-173/027)**

Gabonetan karta jokoa briskan, bateko urrera, txitxirritoka... Txitxirritoka zela jolasten den kontatzen du. Musean ere jokatzen zuten.

### **589. Pazko eguneko txistea (ERM-173/028)**

Telebistarik eta irratarik ez zegoen lehen. Etixerako arerioak direla uste dute. Lehenago afalostean txistea kontatzen aritzen ziren. Mariak txiste bat kontatzen du.

### **590. Abade txikiaren txistea (ERM-173/029)**

Txistea kontatzen du Mirenek.

### **591. Mutilzaharraren txistea (ERM-173/030)**

Txistea kontatzen du Mariak.

### **592. Urko-goikoa baserriko kontu barregarria (ERM-173/031)**

Mariak kontatzen du txistea.

**593. Mutilzahar baten ezkontzako txistea (ERM-173/032)**

Mariak kontaktzen du pasartea barrez.

**594. "Gure amama ganbaran dago" kanta (ERM-173/033)**

Sarri kantatzen zuten kanta.

**595. "Gabon gaboneta" kanta (ERM-173/034)**

Gabon kanta.

**596. "Nere maitea" eta "Txomin eta Bartolo" kantak (ERM-173/035)**

Kantari beste zati bat gehitzen diote.

**597. Eibarko pilotariaren kontu barregarriak (ERM-173/036)**

Marino pilotariari gertatutako pasarte barregarriak.

**598. "Eibartikan urten genduan" bertso sorta (ERM-173/037)**

Eibartarrek kantatzen duten abestia, gerrako ibilerak kontaktzen dituen.

**599. Hika, zuka eta berorika (ERM-182/001)**

Hika, zuka eta berorika zeinekin egiten zuten: hitanoa lagunekin eta anaiekin, zuka ahizpa-arrebekin eta seme-alabekin, eta berorika apaizekin eta medikuarekin.

**600. Santiago jaiak zelakoak ziren (ERM-182/003)**

Bi mila biztanleko herria zen. Santiago jaietan gonbidatuak izaten zituzten etxean. Bezperan, ardoa debalde ematen zuten udaletxean. Zezen egunean, hogeita zazpian, sardinak banatzen zituzten. Santiago egunean meza, bandaren kontzertua eta pilota partidak izaten ziren. Santa Ana egunean Eibarko musika bandak jotzen zuen. Behin zezenketak ere izan ziren. Zezen egunean, emakumeak labaderoetan batzen ziren arropak garbitzeko eta mutilek aurrekua dantzatzen zuten labadero batetik bestera eta dantzara ateratzen zituzten neskak. Kalejiran joaten ziren kalerik kale.

**601. Santiago jaietan errekan (ERM-182/004)**

Santiago jaietan, plazan taberna bat egoten zen, ezki zuhaitzen azpian mahaiak eta aulkiak ipinita. Errekan egiten ziren hainbat ekimen. Orduan erreka oso garbia zegoen.

**602. Ermura etorritakoen eragina hizkuntzan (ERM-182/005)**

Ermura erdaldunak etortzen zirenean, euskaraz ikasten omen zuten. Baina 1960-70 urteetan, jende asko etorri zen eta euskaldunak hasi ziren erdaraz.

### **603. Zezen eguna (ERM-182/006)**

Uztailaren hogeita zazpian, zezenak egoten ziren. Hortik dator zezen eguna. Jaietako azken eguna zenez, herrikoak bakarrik egoten ziren. Bazkariak egiten zituzten lagunartean, plazan, errekan... Denek ezagutzen zuten elkar. Gaueko hamabietan kalejira egiten zuten.

### **604. San Inazio eguna, proba eguna eta auzoetako jaiak (ERM-182/007)**

San Inazio eguna karlistek ospatzen zuten. Hurrengo domeka proba eguna izaten zen. Probalekuan idi-demak eta apustuak egiten zituzten. Ermitetako erromeriak gustoko zituzten. Sallobenteko zuhaitza oso ederra omen zen; erromeria errepidean egiten zuten.

### **605. Santa Agedatako ohitura eta koplak (ERM-182/009)**

Santa Agedatan kintoek irtetzen zuten. Batutako diruarekin afaria egiten zuten tabernaren batean. Etxeren batean hildakoren bat izan bazen, salbea abesten zuten. Bertsoak asmatu ere egiten zituzten. Pare bat koplak abesten dituzte.

### **606. Urteberri eguneko eta Larunbat Santuko diru-batzeak (ERM-182/010)**

Salbearen zati bat abesten dute. Hunkigarria izaten omen zen. Urteberri goizean, umeak irtetzen ziren etxerik etxe kantuan dirua batzen. Larunbat santuan (Aste Santuan), etxerik etxe sua eta ura banatzen zituzten, eta dirua batzen zen. Ez zen ezer kantatzen.

### **607. San Juan bezperako loreak, sua eta koplak (ERM-182/011)**

Sallobenten San Juan bezperan meza egoten zen eta lore sortekin eta fruituekin bertaritzen ziren, baita gurutze txikiekin ere, ateetan eta soroetan ipintzen zituztenak gero. Suak pizten ziren iluntzean. Koplak bat errezitatzen dute.

### **608. Gabonetako eskerako kanta (ERM-182/012)**

Aginaldo eguneko kantuak abesten dituzte. Aipatzen dute hitzak zela aldatu ziren denborarekin. Zentzurik gabeko hitz barregarriak izaten ziren.

### **609. "Neska txiki-txikia" abestia (ERM-182/013)**

Umeen kanta asko zeuden. Laborda apaizak erakusten zizkien. "Neska txiki-txikia" kanta abesten dute.

### **610. "Kirikiriken" abestia (ERM-182/015)**

"Kirikiriken" kanta abesten dute.

### **611. "Haurtxo danak alkaturik" abestia (ERM-182/016)**

"Haurtxo danak alkaturik" kanta abesten dute.

### **612. "Txindurri txiki-txikia" abestia (ERM-182/017)**

"Txindurri txiki-txikia" kanta abesten dute.

### **613. "Gaztetasuna" kanta (ERM-182/018)**

"Gaztetasuna" kanta abesten dute.

### **614. "Tximinitik gora" abestia (ERM-182/019)**

"Tximinitik gora" kanta abesten dute.

### **615. Lotarako kantak eta "mutiko batek behin galdetu zun" (ERM-182/022)**

Lotarako kantak abesten zituzten. "Obabatxua" kantaren zati bat abesten dute. "Lo egizu" eta "Mutiko batek behin galdetu zun" kanta abesten dute.

### **616. Gabonetan beti kantuz (ERM-182/023)**

Gabonetan afalostean kantuz aritzen ziren. Gabon zaharretan ere lagunartean abesten zuten, bataren eta bestearen etxeetan. Euskaraz zein erderaz abesten zuten.

### **617. Euskara debekatuta zegoenean (ERM-182/024)**

Kantu euskaldunak debekatuta zeuden eta horiek abesten zituzten. Izenak aldatu egin zizkieten. Eskolan ere eraztunaren zigorra jasotzen zuten euskaraz egitearren.

### **618. "Lo egizu" kanta (ERM-182/025)**

"Lo egizu" kanta abesten dute.

### **619. Gabon zahar gauean zer abesten zuten (ERM-182/026)**

Gabon zahar egunean, gerra garaiko ohiturengatik, gaberdian aita gurea abesten dute presoen alde; ondoren "Eusko gudariak", "Gora ta gora Euskadi" eta "Internazionala" ere bai.

### **620. Inauterietako basakeriak (ERM-182/027)**

Gazte garaian inauteriak debekatuta zeuden. Ume zirela, ikusten zituzten kaldereroak. Plaza itxi egiten zuten eta soldadutza egin gabeko gaztetxoei ez zieten sartzen uzten, beraientzat aproposa ez zelako. Astakeria bat kontaktzen dute.

### **621. "Eibartikan urten genduan" abestiaren zati bat (ERM-182/029)**

"Eibartikan urten genduan" kanta aipatzen dute zatika. Azalpena ematen dute.

### **622. Poteka, "tres navios"ka, sokasaltoan... (ERM-182/031)**

"Ikubiltxoren" ipuina kontaktzen zieten. Sokasaltoan, txintxurrean, poteka, "tres navios"ka... aritzen ziren. Azalpenak ematen dituzte.

### **623. Dendarik denda ikasten (ERM-184/001)**

Ermuko estankotan eta Eibarren ikasten aritu zen. Handik urte batzuetara, Bergaran egon zen eta ondoren, bere kontura ekin zion.

#### **624. Eitzako jaiak eta amuarrainak (ERM-184/005)**

Eitzako jaiak zelakoak ziren kontatzen du. Erreketan amuarrainak harrapatzen zituzten. Bentan ze giro egoten zen kontatzen du.

#### **625. Ziburuan jolasean eta iturrira ur bila (ERM-184/007)**

Ziburuan ibiltzen zen umetan. Iturriko ura ekartzera joaten zen afaltzeko.

#### **626. Droget eta Gallegosia zein ziren (ERM-184/009)**

Droget eta Gallegosia zein ziren azaltzen du.

#### **627. Gallegosia diruduna (ERM-184/011)**

Gallegosia ezaguna zen dirua egin zuelako. Inguruko sail eta etxe asko bereak omen ziren.

#### **628. Zeladoreen lana (ERM-184/016)**

Elorriagako bentan jatordu onak ematen omen zituzten. Zeladoreak egoten ziren, muga zaintzen, baita mikeleteak ere. Plazara joaten ziren baserritar guztiei zer zeramaten begiratzen zieten eta tarteka lapurretan egin ere bai.

#### **629. Kaminerua, Ermuko bertsolaria (ERM-184/017)**

Kaminerua izenekoa zen Ermuko bertsolaria. Tabernan aritzen zen.

#### **630. Komedianteak eta ijitoak (ERM-184/018)**

Komedianteak ikustera joaten ziren plazara. Motxailak edo ijitoak elizpean egoten ziren.

#### **631. Herriko medikua (ERM-184/019)**

Herrian mediku bat egoten zen. Gizarte Segurantzarik ez zegoen. Pasarte bat kontatzen dute.

#### **632. "Xagua" ikazkina (ERM-184/021)**

Ikatzka zela egiten zuten kontatzen du. Xagua esaten zioten bat zen herriko ikazkina.

#### **633. San Juan bezperako sua (ERM-184/023)**

San Juan bezperan erromeria egoten zen eta hurrengo egunean dantzaldia. Sua pizteko larrak batzen zituzten.

#### **634. Hika eta zuka zeinekin (ERM-184/028)**

Hika edozeinekin egiten zuten, pertsona nagusiekin izan ezik. Zuka lagun bereziei, bikoteari edo helduagoei egiten zitzaien, errespetua zor zitzaionari.

#### **635. Irratiarekin harrituta (ERM-184/031)**

Umetan ez da arto-zuriketan ibili izan. Irratia noiz ekarri zuten gogoan dauka. Nagusiek ez zuten sinesten urrutiko ahotsik entzungo zenik irratitik. Telebistaren etorrera ez dauka gogoan.

### **636. Estankoan saltzen zutena (ERM-184/035)**

Estankoan hamalau-hamabost urterekin lan egin zuen. Janaria eta denetarik izaten zuten. Plazan zegoen. Tabakoa ere saltzen zuten.

### **637. Aste Santuko sua eta ura (ERM-184/038)**

Aste Santua zela ospatzen zuten kontatzen du. Mezak eta prozesioak izaten ziren. Sua eta ura eramaten zituzten etxerik etxe.

### **638. Maiatzeko loreak (ERM-184/039)**

Maiatzeko lorak zer izaten zen kontatzen du: elizara joan, abestu eta loreak eramaten zituzten.

### **639. Malengoko etxean; Patakonia etxea; ezizenak (ERM-216/002)**

Ermuko "Malengoko" etxean jaiotakoak dira. Izenaren jatorria. Patakonia etxea beraienean ondoan zegoen. Patakonia baserriaren izenaren jatorria. Igor Astarloaren aitak beti esaten zuen bere semeak Monakon etxea erosiko zuela. Horrenbeste errepikatzen zuen, "Monaco" deitzen hasi zirela lagunak.

### **640. "Malengo" etxearen izenaren jatorria (ERM-216/003)**

"Malengo" etxearen izena nondik ote datorren kontatzen du.

### **641. "Malengoko injinerua" zuten aita (ERM-216/004)**

Guraso biak Mallabiakoak dituzte. Amak mojekin ikasi zuen Berrizen. Aita injenierua zen baina ez zuen esaten. "Malengoko injenierua" deitzen ziotelako jakin zuten. Oso ikasle ona omen zen.

### **642. Gurasoen artean 18 urteko ezberdintasuna (ERM-216/005)**

Aitak ikasketak nagusia zenean egin zituen. 1887an jaio zen eta Santanderren egin zituen peritu-ikasketak eta Bartzelonan injenieru-ikasketak. Gurasoen artean 18 urteko ezberdintasuna zegoen eta aitak 5 gutxiago zituela esaten zuen. Aitak Bartzelonako konturik ez zuen inoiz kontatzen.

### **643. Malengoko etxean jaio ziren biak (ERM-216/007)**

Aitak 1924ean bukatu zituen injenieritzako ikasketak, 37 urte zituela. Bueltan ezkondu bazen ere, ez dakite zehazki noiz. Malengoko etxea 1926an bukatu zen eta biak jaio ziren bertan.

### **644. Aitaren injenieritza-ikasketak (ERM-216/009)**

Aita Santanderrera unibertsitatera joateko dirua nondik atera ote zuen hitz egiten dute. Baserrian ez zegoen dirurik, amona alarguna zen... Ziurrenik Santanderren lan egin zuen ere. Berandu erretiratu zen haien aita.

### **645. Gerra garaian Sestaora joan ziren (ERM-216/011)**

Ermuara bueltata zenean, aitak Sestaon lan egiten zuen. Gerra hasi zenean, Ermuan zegoen errepresioari ihes egiteko familia osoa joan zen Sestaora bizitzera. Berrizkoa zen "Verdugo" izeneko batek aitari esan zion arazoren bat izaten bazuen (politikoki) noizbait, berarengana jotzeko.

#### **646. Malengoko etxea eta errota eraikitzeako lurrak (ERM-216/014)**

Malengoko etxea eraikitzeako, lehenengo lurrak erosi zituzten. Errota eta okindegia, etxea eta gero eraiki ziren. Lurrak erosteko dirua nola lortu zuten.

#### **647. Aitak zentral elektriko bat sortu zuen (ERM-216/017)**

Aita injeniarria zuten eta etxe ondoan zentral elektriko txiki bat eraiki zuen. Mallabiako 80 baserriri argia ematen zion. Ogerleko bat ordaitzen zuen hilean baserri bakoitzak argindarra izateko. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du Estebanek.

#### **648. Argindarra kobratzera amonarekin (ERM-216/018)**

Hasierako argindarrarekin etxeetan denbora berea bi bonbilla bakarrik egoten ziren piztuta. Batzuek tranpa egiten zuten. Esteban amonarekin joaten zen argindarraren zerbitzua kobratzera baserrietara. Asko hasarretu egiten ziren ordaindu egin behar zutelako.

#### **649. Malengoko errota (ERM-216/019)**

Etxean zentral elektrikoa jarri eta gero errota ere eraiki zuen aitak. Osaba okina zen. Ura nondik hartzen zen kontatzen du Estebanek. .

#### **650. Malengoko errotarako ura nondik zetorren (ERM-216/020)**

Malengoko errota erabiltzeko ura bi lekutatik heltzen zen. Urari bidea emanaz, errotaren turbina ibiltzen hasten zen. Errota eginda okindegia sortu zen.

#### **651. Aita injeniarri ona izan zen (ERM-216/021)**

Aita injeniarria zen. Ideia oso onak zituen eta gauzak egiteko erraztasuna ere.

#### **652. Garai batean Ermuan ur nahikorik ez (ERM-216/023)**

Garai batean ez zegoen ur nahikorik Ermuko etxe guztientzat. Orduko alkatea zen Jose Luis Zubiaurrek Bizente Bilbaori eskatu zion ia errotako ura erabiltzeko aukera zuen herriak.

#### **653. Errotak erabiltzen zuen ura gero etxeetara joaten zen (ERM-216/024)**

60. hamarkadan Ermua 1500 biztanletik 8000 biztanlera pasatu zen eta ez zegoen ur nahikorik denentzat. Malengoko errotara heltzen zen ura, gero ubideen bidez etxeetara banatzen zen.

#### **654. Bizente Bilbaoren nortasuna (ERM-216/027)**

Bizente Bilbao izan zuten aita. Pertsona ona zan eta kontalari ona zen. Pertsona aktiboa zen.

#### **655. Bizente eta Feliciano Bilbao (ERM-216/029)**

Egunkaria goitik behera irakurtzen zuen Bizente Bilbaok. Fisikoki nolakoa zen kontatzen dute. Feliciano zuen anaia eta oso ezberdinak ziren.

### **656. Familiako panteoia (ERM-216/031)**

Aitaren anai bat Argentinan bizi zen eta bi alabekin bueltatu zen Ermura. Garai hartan "Espainiar gripea"ren epidemia zegoen eta bi alabak hil zitzaizkion. Panteoi bat eraiki zuen alabak bertan ehortzeko, Argentinara bueltatu zen eta ez zen inoiz gehiago itzuli. Panteoi berdinean dago Esteban eta Pilarren umetan galdu zuten anaia txikia ere.

### **657. Ama, lotsa gutxiko emakumea (ERM-216/032)**

Ama alaia zen eta lotsa gutxiko emakumea. Sestaon bizi zirenean harategian gertatutako anekdota bat kontatzen dute.

### **658. Baserriko lanak egiten lau urtetatik (ERM-217/002)**

Urko Behekoa baserrian jaio zen. Aita zen bertakoa eta ama Arta auzoko (Ziortza-Bolibar) Etxebarri baserrikoa. Drogeten iturritik baserrira 20 bat minutu egiten zituen oinez. Eskolara herrira joaten zen baina ez zen asko joan ama 43 urterekin alargundu zelako eta baserrian lagundu behar zutelako. Lau urterekin hasi zen Esperanza baserriko lanekin: behieri jaten eman, iturritik ura ekarri, egurra ekarri, ardiak batu... Hamahiru urterekin Lejardiren lantegian hasi zen lanean.

### **659. Iturrira ur bila astoarekin; baserriko lanak (ERM-217/004)**

Iturrira ur bila joateko astoarekin joan behar zuten, baserritik piskat beherago zegoelako. Iturriran garbitokia ere zegoen. Astoa urez nola kargatu izebak erakutsi zion.

### **660. Pagotxa ganaduarentzat zen (ERM-217/005)**

Pagotxa ereiten zuen Esperanzak, ganaduari jaten emateko. Pagotxa saldu ere egiten zuten Elgoibarren azokan eta Eibarko Gisasola baserrikoeti, adibidez. Ganaduari ematen zaion beste belar-motak.

### **661. Belarra lehortzeko, gari-meta eta ardatza (ERM-217/006)**

Baserri inguruan zelai handiak zituzten. Gaur egun ere saltzen dute belarra. Belarra lehortzeko metak egiten ziren baina gaur egun fardoak egiten dira. Gari-metak eta ardatzak egiten zituzten anaiek. Prozesua nolakoa zen kontatzen du.

### **662. Etxeko guztiek belarra batzen zuten (ERM-217/007)**

Etxeko guztiek laguntzen zuten belarra jasotzen eta lehortzen. Sardearekin eta segarekin ibiltzen zen Esperanza.

### **663. Baserriko bizimodua (ERM-217/008)**

Neguan zuhaitzak kimatzen ziren eta egurra batzen zen etxeko beheko suarentzat. Iluntzean afaldu egiten zuten eta ohera joaten ziren. Amak eta izebak eraman zuten aurrera baserria.

### **664. Baraziak oso merke saltzen ziren (ERM-217/009)**

Baserriko esnea saltzen zuten herrian eta barazki batzuk ere, baina kalean bizi zen jendeak ere baratzea izaten zuen eta dena oso merke saltzen zen.

### **665. Zumarragaraino errota klandestino batera (ERM-217/010)**

Gerraostean azukrea, olioa edo kafea erostea oso zaila zen. Errotak prezintatu zituzten eta garia izan arren ezin izaten zuten ehotu. Batzuk trenea hartuta Zumarragaraino joaten ziren han omen zegoen errota klandestino batetara. Zahiaren eta birrinaren arteko ezberdintasuna zein den kontatzen du. Zahia ganaduari ematen zitzaion baina gerraostean ogi integrala ere egiten zen etxeetan.

### **666. Gerraostean ogia estraperloan banatzen (ERM-217/011)**

Gerraostean errotak itxita zeuden eta ogi zuria lortzea zaila zen. Ambrosianean egiten zen eta Eibarko Chalcha jatetxean saltzen zuten. Bertara ogia eramateko mikeleteen postua pasa behar zenez, mentitik eramaten ziren Azaldegiko (Eibar) okindegiraino, eta gero handik banatzen ziren.

### **667. Baserriko produktuak entregatu beharra (ERM-217/012)**

Muga pasatzean, mikeleteak askotan baserriko produktuekin gelditzen ziren. Baserriko etekinen parte bat entregatu behar izaten zen. Baserriaren eta lurraren azaleraren arabera kalkulatzeko zuten hori udaletxean. Idazkariak bere seme-alabentzat beste etxe batzuetako artilez egindako koltxoiak hartu zituen.

### **668. Baserri guztietan zeuden ardiak (ERM-217/013)**

Garai batean baserriko guztietan 50 ardi baino gehiago zeuden. Gero pinua sartu zen eta ardi gutxiagoa zeuden. Arkumeak San Pedroetan antzutu egiten ziren, ardiei artilea kentzen zitzaion eta mendira eramaten ziren uda pasatzera.

### **669. Baserritarren arteko liskarrak (ERM-217/015)**

Baserritarren artean inbidia eta ezinikusi asko egon dira. Gehiago zutenek, gutxiago zutenak kaltetzen zituzten. Beste baserri batetako ardiak haien artotzan eta baratzean sartzen ziren eta txikituta uzten zuten dena.

### **670. Basoko animaliak: basurdeak eta azeriak (ERM-217/016)**

Elur asko egiten zuenean, basurdeen oinatzak ikusten zituzten baserri ondoan. Behin, inguruko baserrietako artotzetan zebilen azeri zuri bat harrapatu zuten.

### **671. Hartzaren Koplak; amona pandero-jolea (ERM-217/018)**

Esperanzaren osabak, Patxi "Urkok" k idatzi zituen "Hartzaren koplak" izeneko bertsoak. Ama Artakoa (Ziortza-Bolibar) zen baina ezagutzen zituen koplak. Patxi "Urko" k kantak bere ama pandero-jolearekin abesten zituen.

### **672. Behiei kantuan egiten zien (ERM-217/019)**

Umetan behiei kantatzen zien Esperanzak.

### **673. Patxi "Urko" (ERM-217/020)**

Patxi "Urko" bere osaba zen. Mutrikun ibili zen morroi bezala eta Esperanzaren ezkontzan egon zen eta argazkian agertzen da.

### **674. Aitaren heriotzaren inguruko oroitzapenak (ERM-217/021)**

Aita gaztea zeneko argazki bakarra dauka eta txirula jotzen agertzen da. Aita oso txikia zenean galdu zuen eta ez du beraren oroitzapenik. Hil zenean, Elorretako baserrikoak joan zitzaizen abisua ematera eta orduko oroitzapena badauka. Aitaren gorpua eta kaxa ez ditu gogoratzen baina mahai gainean zegoen maindirea eta auzokoak baserrira nola hurbiltzen ziren bai.

### **675. Anda-bidea, burdi-bidea eta zor-bidea (ERM-217/023)**

Gorpu bat baserritik elizara eramateko bideari anda-bidea edo eliz-bidea deitzen zaio. Baserri atzetik pasatzen zen. Burdi-bidea ere ondoan zeukaten. Zor-bidea pasatzeko eskubidea duen bidea da. Zor-bideek liskarrak sortzen zituen baserritarren artean.

### **676. Estarteia eta burdi-bidea (ERM-217/025)**

Estateia esaten zaio estarrez bidea mugatuta duen burdi-bidearen zatiari.

### **677. Garai bateko bideak galdu dira (ERM-217/026)**

Herrira oinez edo astoarekin jeisteko bide berdina erabiltzen zuten, baina ganaduarentzat beste bat erabiltzen zen. Garai batean erabiltzen zituzten biderik ez dasgo gaur egun.

### **678. Etxe osteko aranak (ERM-217/027)**

Etxe ostean aranak biltzen zituzten bi urtetik behin. Txoriek jaten zituzten baina geroago patxarara egiten hasi ziren etxean.

### **679. Beldurra pasatzen zuen gauez baserrira igotzen (ERM-217/029)**

Baserritik jeisten zirenean kanteran abarkak uzten zituzten eta zapatak jantzi. Beldurra pasa izan du gauez baserrira igotzen. Behin, berak jakin gabe, anaia zebilen igotzen bere aurretik eta izugarritzko beldurra pasa zuen. Gaztainondoetara joateko karobi baten albotik pasatu behar izaten zuen eta beldurra pasatzen zuen.

### **680. Umeak beldurtzeko ipuinak: gantz-atataileak (ERM-217/030)**

Umetan "gantz-atataileekin" (sacamantecas) beldurtzen zituzten. Neskatala bati gertatutako pasadizoa kontatzen du. "Sacamantecas" hitza geroago ezagutu zuten.

### **681. Amaren gaztetako kontuak (ERM-217/031)**

Amak ez zizkien ipuinak kontatzen baina bere gaztetako ibilerak bai: neskame egon zeneko kontuak, Eibarrera edo Ondarrura saltzera joaten zenekoak... Beldurra pasatzen zuen menditik ibiltzean eta ehizan ibiltzen ziren eibartarrekin elkartzen zenean lasaitu egiten zen.

### **682. Amaren neskame garaiko kontuak (ERM-217/032)**

Amak, bere neskame garaiko kontuak kontatzen zizkien: nnolako bizimodua zen, zer jaten zuen, ondo tratatzen zioten edo ez, etxe ona zen edo ez... Arratzun neskame egon zen etxe batean semeak gosea pasatzen zuela kontatzen du.

### **683. Amaren umezain garaiko kontuak (ERM-217/033)**

Ama Markina-Etxebarrin umezain ibili zeneko kontuak kontatzen ditu.

### **684. San Juan eguneko kantak eta sua (ERM-217/034)**

San Juanetan sua egiten zuten. Berano Txikiko umee kantatzen zuten San Juan kanta eta beiraiek abesten zutena ez zen berdina. Biak abesten ditu. San Juan egunean Eibarrera joaten ziren, han tiobiboak zeudelako. San Juan bezperan baserrian sua nola egiten zuten kontatzen du.

### **685. Ermuko "Joxe Benta" etxea (ERM-219/002)**

Ermuko Erdikaleko "Joxe Benta" etxean jaio zen. Etxearen izenaren jatorria Sallabenteko bentatik dator.

### **686. Lanik ez eta beste herrietara lanera (ERM-219/004)**

Amak ikatza saltzen zuen. Senide asko ziren eta lanera beste herri batzuetara joan ziren. Maria Angeles Muruetara bidali zuten eta horregatik eskolara gutxi joan zen.

### **687. Amak ikatza saltzen zuen (ERM-219/005)**

Aitak lantegian lan egiten zuen baina ikatza banatzen laguntzen zuen ere. Harri-ikatza.

### **688. "Joxe Benta" etxearen historia eta Sallabenteko benta (ERM-219/006)**

Etxe azpian Ermuko lehenengo kooperatiba-denda zabaldu zen, geroago Eroski izango zena. Jatorriz "Joxe Benta" baserria izan zen baina berak etxe bat bezala ezagutu zuen. Izena, Sallabenteko bentatik datorkio eta bertan kontrabandoa egiten omen zen. Bildotsak eta ardiak eramaten ziren Frantziara

### **689. Ermuko Eloy Izagirrereren lantegia (ERM-219/008)**

Eloy Izagirrereren lantegian lan egin zuen gaztetan. Berogailuak eta arropak lixatzeko aparatuak egiten ziren bertan.

### **690. Aita kaxagina izan zen (ERM-219/009)**

Aita kaxagina zen eta Eibarrera bidaltzen zituen egindako piezak.

### **691. Ermuko lantegiak eta dendak (ERM-219/011)**

Garai batean Ermuan zeuden lantegiak: Eloy Izagirre, Acha, "kutxillerixia"... Dendak ere: "Denda barrixa", kooperatiba, Mendiolanekua...

### **692. Garai bateko Ermuko eskolak (ERM-219/012)**

Garai bateko Ermua polita zen. Denek ezagutzen zuten elkar. Eskolara plazara joan zen eta maistra onak izan zituen baina bera ikasle txarra zen. Bi eskola zeuden, baita neskontzat eta bestea mutilentzat.

### **693. Neskek "eskuetakoak" ikasten zituzten (ERM-219/013)**

Eskola eta gero, arratsaldetan, "eskuetakoak" egiten zituzten: poltsoak, alfonbrak, gonak... Josten eta brodatzen ere ikasi zuten.

### **694. Umetako jolasak eta gaiztakeriak (ERM-219/015)**

Umetako gaiztakeriak eta jokuak kontatzen ditu. Neskek eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren

### **695. Bikiak jaio ziren (ERM-220/002)**

Margarita eta bere anai bikia jaio zirenean, Muruetan zeukaten izeba bat beraiekin bizitzera joan zen amari laguntzeko. Garai bateko pixoihalak.

### **696. Ermuko labaderoak; arropa-garbitzaileak (ERM-220/004)**

Arropa labaderoetan garbitzen zen eta pozik joaten ziren amari laguntzera. Kontu asko esaten ziren labaderoetan. Labaderoak non zeuden gogoratzen dute. Bat jauregiaren (Valdespina) atzean zegoen. Amak jabonadurak egiten zituen beste familia batzuentzat.

### **697. Mozkorren kantuak (ERM-220/005)**

Etxera mozkortuta heltzen zenean, aitari kantatzen zioten kantuak abesten ditu.

### **698. Gizonezkoak eta txikiteoa (ERM-220/006)**

Gizonak beti ibiltzen ziren txikiteoan. Aitaren bila joaten ziren tabernara.

### **699. Euskaraz egiteagatik zigortuak (ERM-220/007)**

Plazako eskolan ikasi zuen eta gero Berrizen kolegioan. Euskaraz ezin zuten hitz egin eta zigor asko jaso ditu horregatik. Etxean kopiaketak egin behar izaten zituen eta aita haserretu egiten zen. Zigor fisikorik ez du ezagutu.

### **700. Bataio-eguneko anekdota barregarria (ERM-220/008)**

Bikiak jaio zirenean, bakarrarentzat zeukaten aitabitxia eta amabitxia. Beste biak nola topatu zituzten kontatzen du. Aitabitxia, eliza pareko Botxo tabernan aurkitu zuen aitak, lagun artean. Bataio egunean, elizatik atera zirenean, lagunak tabernatik atera eta "Viva Don Jaime y Doña Margarita de Borbon" esaten zuten.

### **701. Umetako jolasak (ERM-220/010)**

Umetako jolasak: sokasaltoa, kanikak, tortolosak, "alturitas"... Frontoian pelotan ere ibiltzen ziren.

### **702. Klase partikularrak Milagrosekin (ERM-220/011)**

Eskola eta gero partikularra joaten zen Milagrosengana, eta handik doktrinara. Enrique izeneko bizilagunak eman omen zion lehenengo musua, jaioberritan. Milagrosek erakutsitakoak.

### **703. Ermuko Acha Hermanos lantegia (ERM-220/013)**

Acha Hermanos lantegian lan egin zuen, umeentzat jostailuak egiten (eskoletak, pistolak...).

### **704. Ermuko paseatzeko lekuak (ERM-220/015)**

Garai bateko Ermuako pasealekuak aipatzen dituzte. Neskak eta mutilak ezagutzeko lekuak ziren.

### **705. Senarrak berriztarrak (ERM-220/016)**

Bien senarrak berriztarrak ziren. Eibarren lan egiten zuten eta arratsaldean Berrizera joateko trena Ermuan hartzen zuten.

### **706. "Potian-pote" jolasa (ERM-220/017)**

Pasealekuetan jolasten ibiltzen ziren umetan. "Potian-pote" jokora nola jolasten zuten azaltzen dute. Probalekuan ere jolasten zuten.

### **707. Oinak errekan garbitu eta etxera (ERM-220/018)**

Hiru erreka pasatzen ziren Ermutik. Gizon batzuk egoten ziren erreka ondoan neskatilei agur esaten. Larunbatetan etxera joan aurretik erreka jaitsi eta oinak garbitzen zituzten.

### **708. Sallabenteko "Joxe Benta"ren ondorengoak (ERM-220/020)**

Amak errieta egiten zien, baina oso umezalea zen. Carmen zuen izena eta aitak Zipriano, nahiz eta denek "Joxe Benta" deitzen zioten. Aitonak izan zuen benta hura Sallabenten. Auzoko jaietan orkestrak jotzen zuen eta jatekoa ematen zuten.

### **709. Ermuko jaiak; dantzan ikasten (ERM-220/021)**

Ermuan San Pelayoak eta Santixauak ospatzen ziren musika-bandarekin, dantzekin... Gaztetxotan ezin ziren dantzetara joan eta urrutitik musika entzunez ikasten zuten haien artean. Moja joan zen ahizpak oso ondo dantzatzen zuen.

### **710. Arropa berriak estreinatzeko egunak; jostunak (ERM-220/022)**

Aste Santuan udaberriko arropak estreinatzen ziren, Santixauetan udakoak eta Domu Santu egunean negukoak. Arropak jostunak egiten zituen. Eguneroko eta jaietako arropak ezberdinak ziren. Anai-arreba zaharren arropak txikienek erabiltzen zituzten.

### **711. Garai bateko oinetakoak: abarketak, txankloak... (ERM-220/023)**

Abarketak erabiltzen ziren garai batean baina Margaritak zapatilak eta sandaliak erabiltzen zituen. Jaietarako borladun zapatak zituen. "Txankoak" abarketen gainera janzten ziren. Ortozik ere ibiltzen ziren.

### **712. Larunbatero konfesatu behar zuten (ERM-220/025)**

Aste Santuetako gauzarik garrantzitsuena arropak estreinatzea zen. Prozesioak egoten ziren. Larunbat guztietan konfesatu behar izaten zuten. Abadeentzat dena zen bekatua. Hamar mandamentuak gogoratzen dituzte.

### **713. "Bula" ordaindu eta absoluzioa lortu (ERM-220/026)**

Pertsona batzuek "bula" izeneko isun moduko bat ordaintzen zuten konfesioko bekatuen absoluzioa lortzeko. Pazkoetan txartela bat zegoen, ordainpekoa.

### **714. Garai bateko egunerokotasuna; janaria (ERM-220/027)**

Garai batean diru askorik ez zegoen eta seme-alaba asko zeuden etxe batean. Bazkaltzeko babarrunak jaten zituzten eta igandetan garbantzuak. Behin mezetara ez zen joan garbantzuak zaintzeko.

### **715. Elizara joaten ez zirenak "señalauak" ziren (ERM-220/028)**

Elizara joaten ez zirenei edo konfesatzen ez zirenei "señalauak" esaten zitzairen. Banakako batzuk bazeuden.

### **716. Gerrako babeslekuak Ermuan (ERM-220/029)**

Umeak zirela ezagutu zuten gerra. Kanpaiek hegazkinen abisua jotzen zutenean kanpandorrera joateko agindua zuten haurrek, bonbak bertan botako ez zituztelakoan. Geltoki azpiko zubian babesleku bat ere zegoen eta gaur egungo jubilatuen etxe azpian beste bat.

### **717. Gerrako zaurituak (ERM-220/030)**

Gerra garaian hegazkinak heltzen zirenean kanpandorrean ezkutatzen ziren. Lehenengo abisua basotik jasotzen zen, txapligu baten bidez. Behin zubiko babeslekuan ezkutatu ziren eta Kalamuatik zaurituak nola ekartzen zituzten ikusi zuten.

### **718. Artarrai baserritik hegazkinen abisua botatzen zen (ERM-220/031)**

Gerra garaian Artarrai baserritik botatzen zituzten txapliguak, hegazkinak zetozeला abisatzeko. Iluntzetan frontoira jeisten zituzten tankeak eta goizean berriz ere Arratera igotzen zituzten.

### **719. Anaia eta osaba Bilboko Carmelo espetxean (ERM-220/033)**

Gerra garaian etxean soldaduak izan zituzten. Haien anai bat eta osaba bat Bilboko Carmelo espetxean egon ziren preso.

## **720. Karlistak izateagatik zigortuak (ERM-220/034)**

Aita eta beste osaba bat karlistak ziren eta gerra hasi zenean zigor bezala frontera eraman zituzten trintxerak egitera. Batzuk hil egin zituzten.

## **721. Frontoian tankeak egoten ziren (ERM-220/035)**

Zazpi urte zituen Margaritak gerra hasi zenean. Frontoira joaten ziren tankeak ikustera.

## **722. Ahizpa herrian oso maitatua zen (ERM-220/037)**

Ahizpa nagusia maistra zen eta edozeini laguntzen zion. Oso maitatua zen. Gerra hasi zenean moja joan zen eta joan-etorriko zerbait izatea eskatzen zion jendeak. Gero, misioetara joan zen eta trenan Ermutik pasatu zenean, herri guztia joan zen geltokira agur esatera. Misioetatik gaixorik bueltatu zen eta gaztea zelarik hil zen, 55 urterekin.

## **723. Etxeko giro politikoa: antifrankista eta langile-mugimenduaren aldekoa (ERM-235/002)**

Etxean gazteleraniaz egiten zuten. Gurasoak errepublikanoak ziren. Aita, milizianoa izan eta etxean giro politikoa nabaria zen. Antifrankistak eta langile-mugimenduaren aldekoak.

## **724. Aita, komunisten Batailoi Larrañagan miliziano (ERM-235/003)**

Gerra aurretik, aita gaztetan anarkista zen eta alderdi komunistara aldatu zen. Gerran, komunisten Batailoi Larrañagan borrokan egon zen. Ihes egiten saiatu zen arren, kartzelan sartu zuten.

## **725. PCE-ko militantea 17 urterekin (ERM-235/004)**

Hogeita bost urterekin, Ermutik Eibarrera doa bizitzera baina ordurako PCE-ko militantea zen. Nola sartu zen. PCE-en apurketa asko egon ziren eta bera, Komunistak alderdira pasatu zen.

## **726. ETAREN V. asanblada; ETA Berri; Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) (ERM-235/005)**

ETA-ren V. asanbladaren ondoren, lehenengo apurketa eman zen. Gai sozial eta langile-mugimenduekin gehiago lotutakoek "ETA Berri" sortu zuten (Patxi Iturrioz, Eugenio del Rio...) eta handik "Komunistak". Urtebetera, "Komunistak", Euskadiko Mugimendu Komunista-EMK bilakatu zen.

## **727. Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) (ERM-235/006)**

PCE-tik ateratako talde txiki batzuen artean batasun bat sortzea planteatu zen eta EMK-k asko bultzatu zuen ekintza.

## **728. EMK eta maoismoa (ERM-235/007)**

EMK-ko kideak oso "ideologizatuak" zeuden. Batzuk marxistak ziren, besteak leninistak, maoistak... Txina eta Errusiaren apurketarekin, Txinaren alde jarri ziren. Maoismoa.

### **729. EMK beti gizarte mugimenduekin: borondatezko lana (ERM-235/008)**

EMK-ren oinarri nagusienak: batasuna lortzea eta beraien ideologiari bueltak ematea. Beti ekimen sozialetan sartuta egon ziren, hasieran langile-mugimenduarekin eta ondoren feminismoarekin ekologiarekin, antinuklearismoarekin, soldaduskaren aurkako ekimenekin... Denbora, lan eta diru guztia mugimenduan inbertitu izan dute. Borondate handikoak izan dira. Haien bizitza beti zegoen mugimenduari begira.

### **730. EMK-ren gaur egungo ildoak (ERM-235/009)**

Atzera begira, mugimendua oso ideologizatua zegoen eta ekimen batzuk ez ziren demokratikoak. Azkenengo urteetan, EMK-ren helburua giza eskubideen alde borrokatzea eta demokrazian sakontzea izan da.

### **731. Euskal Mugimendu Komunistaren aktibismo kulturala (ERM-235/010)**

Komunisten irakurgai nagusiak beti Marx eta Engels izan dira. Ildo komunistako irakurketak ez ezik, musika, poesia, eleberrri eta bestelakoak oso garrantzitsuak ziren ere. Lorca, Neruda, Ez dok Amairu, Oskorri...

### **732. Erregimenaren aurka borrokatzeko borondate handia (ERM-235/011)**

Erregimenaren kontra zeuden guztiak klandestinitatean lan egiten zuten, panfletoak egiten zituzten, bilerak... Alderdi ezberdinek elkarrekin lan egiten zuten manifestazioak eta ekitaldiak prestatzeko. Gazte asko zeuden erregimenaren kontrako mugimenduan sartuta eta inplikazioa eta borondatea handiak ziren.

### **733. Klandestinitatean erregimenaren kontra (ERM-235/012)**

Politikoki ez ziren ezagunak, baina jendearengana heltzen saiatzen ziren (kalean, unibertsitateetan, lantegietan...). Klandestinitatean biltzen ziren. Segurtasun-arau batzuk zituzten harrapatuak ez izateko.

### **734. EMK Zirkus, Bilboko Txosnak... (ERM-235/013)**

EMK Zirkus, hauteskunde garaian jende gehiagorako zabaltzeko ekimena izan zen. Umorea erabiltzen zuten. Bilboko jaietan, EMK-ren beste ekimen batzuk: txosnak, Txomin Barullo...

### **735. EMK-ko kideak, "españolistak" (ERM-235/014)**

ETA-ren V. asanblada hartatik irten zen talde berria, espainolizatzen joan zen hasieratik. EMK-ko kideak beraz, horrela identifikatzen zituzten ezker abertzalekoek.

### **736. EMK-ren bilakaera eta amaiera (ERM-235/015)**

EMK, LKI-rekin (Nazionarteko Liga Komunista) batu zen eta gero, Zutik alderdia sortu zuten. Hogeitabat urtetataro desegin zen. Arrazoiak. Gizarte-mugimendu batzuek interesa galtzen hasi ziren ere. Feminismoaren kasuan, interesa handitzen joan da urteetan, baina gainontzeko arloetan (ekologismoa, soldaduska...) ez.

### **737. Euskadiko Ezkerraren sorrera, lehenengo hauteskundeetan (ERM-235/016)**

EMK sortu zenean, ezkerreko partiduen batasuna lortu nahi zuten eta lehenengo hauteskunde demokratikoetarako Euskadiko Ezkerra alderdia sortu zuten, ETA p.m. (edo EIA)-rekin batera. Gerora, Euskadiko Ezkerrak beste ildo bat hartu zuen. EMK-k ezker abertzaleentzat botoa askotan eskatzen zuten arren, espainolizatzen hartuak ziren beti.

### **738. Komunistak oso ideologizatuak zeuden (ERM-235/018)**

Estatu mailan PCE zen komunisten oinarria. Hortik kanpo, talde txiki asko zeuden eta denek nahi zuten "komunista puruak" izan. Oso ideologizatuak zeuden. Frankismoaren amaierarekin gehienak desagertu egin ziren.

### **739. Francoren heriotzarekin, erakunde askoren krisia heldu zen (ERM-235/020)**

Frankismoarekin bukatzeko iraultza egin behar zutela uste zuten. Franco hil zenean, jende asko mugimenduetatik atera zen. Krisiak egon ziren erakunde askotan.

### **740. Franco eta gero zer? (ERM-235/021)**

Francoren heriotzak utzi zuen trantsizioarekin ez zeuden ados, frankismoaren egitura eta pertsonak oraindik hor zeudelako. EMK-ren helburua haiekin amaitzea zen. Frankismo garaian PCE erresistentzia handia izan arren, trantsizioko 1. emaitza txarrak lortu zituen. EMK eta ezker abertzalea, trantsizio eredu horretatik kanpo geratu ziren.

### **741. Euskal gatazka (ERM-235/022)**

ETA eta 80. hamarkadan zeuden beste talde armatu txikien ekintza armatuen kontra zeuden. Politikoki eta sozialki lan egin nahi zuten. Hipercor, Miguel Angel Blanco...

### **742. 80-90. hamarkada: Drogak eta polizia (ERM-235/024)**

80-90. hamarkadetan egon zen drogaren arazoa. Drogak sartzearena estatuko estrategia izan ote zen edo ez. Eibarren, Elgoibarren...

### **743. EMK-ren lanaren hausnarketa (ERM-235/027)**

Politikoki egindako lanari buruzko hausnarketa. Demokraziaren alde zerbait egin zuten, baina ez du uste oso nabarmenak izan zirenik. Zaila da gizartearengana heltzea, baina ekimen batzuk hobeto atera ziren (NATO).

### **744. EMK-ren ekimen deigarriak (ERM-235/029)**

EMK ez zen talde handia bat baina fama asko zuten, propaganda eta ekitaldi deigarriak egiten zituztelako. Behin, Eibarko San Andres elizan goizeko 6etan pankarta handi bat zintzilikatu zuten kanpandorretik.

## 745. Otsailaren 23ko estatu-kolpea (ERM-235/030)

Otsailaren 23a nola gogoratzen duen. Ez zuten espero horrelakorik eta Eibarren, asanblada bat antolatu zuten egun hartan. Militarrak edo guardia zibila haien bila joango ote ziren beldurrez, eta momentu hortan irratira joan ziren manifestu bat irakurtzera. Badaezpada, gau hortan askok ez zuten beraien etxean lo egin.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-31*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com